

**2024KO MARTIAREN 13KO BATZAR NAGUSIAREN  
BATZAR-EGUNKARIA  
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA  
DE FECHA 13 DE MARZO DE 2024  
(TRADUCCIÓN)**



## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	5
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau “Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021eko Kontu Orokorra onesten duen Foru Arauaren proiektua.”	5
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Berrojalbiz Zabala andreak hartu dau berbea .....	5
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiaiko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	7
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	8
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	9
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	11
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	13
- Euzko Abertzaleak taldeko Arregi Osoro batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	15
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau. “PFEZren atxikipen fiskalak kentzea LGS kobratzen dabenei eta errenta txikienak daukiezanei.”	16
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	16
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiaiko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	17
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	19
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea .....	20
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	21



- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	23
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	24
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	25
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea .....	26
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	27
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau	28
“Metro Bilbaoren 4. linea.”	
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	29
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	31
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	32
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	36
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	38
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	39
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	40
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	41
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	42
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau	44
“Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eskeini beharreko berehalako berariazko zerbitzuak.”	
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	44
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	46



- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	48
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea.....	49
- Euzko Abertzaleak taldeko Fika López batzarkide andreak hartu dau berbea.....	51
- EH Bildu taldeko Iardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	52
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	54
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	55
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea.....	56
- Euzko Abertzaleak taldeko Fika López batzarkide andreak hartu dau berbea.....	57
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau ..	58
“Lehen sektorearen mobilizazioak.”	
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	59
- Euskal Sozialistak taldeko Rebollo Frías batzarkide andreak hartu dau berbea.....	60
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	62
- Bizkaiko Talde Popularreko González Díez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea.....	63
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	65
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	67
- Euskal Sozialistak taldeko Rebollo Frías batzarkide andreak hartu dau berbea.....	69
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	70
- Bizkaiko Talde Popularreko González Díez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea.....	71
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	72



- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau “Aurrekontu partehartzaileen inguruko mozioa”	74
- EH Bildu taldeko Buruaga Barcena batzarkide andreak hartu dau berbea	74
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	77
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	78
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	80
- Bizkaiko Talde Popularreko González Díez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	82
- EH Bildu taldeko Buruaga Barcena batzarkide andreak hartu dau berbea	83
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	84
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	85
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	87
- Bizkaiko Talde Popularreko González Díez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	88
- Batzarra amaitu da.....	89



2024ko martiaren 13ko batzarra  
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 13 de marzo  
de 2024 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señora Diputada General, diputados y diputadas, junteros y junteras, miembros de los medios de comunicación.

Y, antes de abordar el orden del día, queremos dar la bienvenida al nuevo diputado foral, Carlos Alzaga Sagastasola. Muchas gracias, y bienvenido.

Y para comenzar con el orden del día, trataremos su primer punto.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Cuenta General  
[\(R.E.12/E/2023/0001232\)](#)

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Proyecto de Norma Foral de aprobación de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021.

**Documento Principal:**  
[\(R.E.12/E/2023/0001232\)](#), [Ver,\(R.E.12/E/2023/0002087\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (2A),  
[Admisión a trámite](#) (2B)

**Expediente:** [\(12/B/08/0000217\)](#)

1.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Kontu Orokorra  
[\(12/E/2023/0001232SE\)](#)

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021eko Kontu Orokorra onesten duen Foru Arauaren proiektua

**Dokumentu Nagusia:**  
[\(12/E/2023/0001232SE\)](#), [Ikusi,\(12/E/2023/0002087SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (2A),  
[Izapidetzeko onartzea](#) (2B)

**Espedientea:** [\(12/B/08/0000217\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tomará la palabra la representante de la Diputación, para explicar el proyecto. Por lo tanto, señora Berrojalbiz Zabala, tiene usted la palabra.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Gracias, señora presidenta, Diputada General, junteros y junteras, señoras y señores, buenos días a todos y todas.

Tal y como explicamos en la Comisión de Hacienda del 23 de febrero, hoy presentamos para su visto bueno el Proyecto de Ley de la Cuenta General de Bizkaia 2021. Tal y como se establece en el Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia, las Juntas Generales



deben analizar y, en su caso, aprobar la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2021.

La Cuenta General fue aprobada en primera instancia por el Consejo de la Diputación Foral de Bizkaia y remitida a las Juntas Generales para su aprobación definitiva, en su caso, de conformidad con lo dispuesto al respecto en el Decreto Foral Normativo 5/2013 por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Asimismo, tal y como comentamos en la Comisión, esta Cuenta General del ejercicio 2021 ha sido fiscalizada por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que ha emitido el correspondiente informe de fiscalización y ha acudido a la Comisión de Hacienda a presentar el presente informe.

Aitatutako batzorde horretan, aurrekontu-ekitaldi horretako magnitude ekonomiko nagusien azterketea egin genduan, eta 2021eko Kontu Orokor horretan zehazten dira horren zehetasunak eta isla ekonomiko eta finantzarioa. Edozelan be, Batzorde horretan azaldu geuntsuezan magnitudeetako bat aitatzearren, 2021eko ekitaldian diru-sarrera arruntak 8.537.000.000 eurokoak izan ziran, eta gastu arruntak, barriz, 8.173.000.000 eurokoak. Horrek 364.000.000 euroko aurrezte arrunta sortu eban. Inbersino garbia, 239.000.000 euro; finantzetako gaitasuna, 125.000.000 euro. 2021eko aurrekontu-emoitza doitu ia 238.000.000 euroko superabita izan zan, eta 2021eko ekitaldi horretako gastu-aurrekontua, 8.708.000.000 eurokoa. Horreetatik, % 79 (6.922.000.000 euro) konpromiso instituzionalei jagokez, eta % 21 (1.786) Bizkaiko Foru Aldundiaren jaubetzako kudeaketa-gastuaren aurrekontuari.

Kudeaketa propioiko gastuaren aurrekontua 1.786.000.000 eurokoa izan zan ekitaldi horretan; horreetatik, sailik sail, Gizarte Ekintzarena % 32 izan zan; Azpiegiturak eta Lurralde Garapena, % 16,4; Garraioak eta Mugikortasun Iraunkorra, % 10,5. Bestalde, Enplegu eta Gizarteratze eta Berdintasun Saila, 4,3; Euskara, Kultura eta Kirol Saila, 3,9; eta gainerako lau sailak, % 4,7 eta % 7,2 artean.

Kudeaketa propioiko gastu hori erabili da, 2021eko ekitaldi horretan, gure eskumeneko eremuetan, gizarte-arloan, ingurune naturalean, kulturen, garraioan, urigintzan, azpiegiturak inbersinoetan eta saneamendu eta ur-hornikuntzan, baita sustapen ekonomikorako laguntzetan be, Aldundiaren berezko funtzionamentu-gastuez gain. Eta ez dodaz magnitude ekonomikoen zehetasunak aitatutako, Batzordean sobera gainbegiratu zan-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko jarduera ekonomikoa.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere eretxia emon dau jarduera ekonomiko-finantzario horretaz. Horri jagokonez, Auzitegiak honako hau adierazo dau, eta berbarik berba aitatu dot:

*“Bizkaiko Lurralde Historikoa osotzen daben erakundeek behar bezala bete dabe, 2021eko ekitaldian, ekonomia- eta finantza-jardurea arautzen dauen lege araudia”.* Eta eretxiaren bigarren atalean hau dino:

*“Bizkaiko Lurralde Historikoa osotzen daben erakundeek kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, 2021eko aurrekontu-ekitaldiko jarduera ekonomikoa, abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoerearen irudi fidela eta data horretan, hau da, 2021ean, amaitutako urteko ekitaldiari jagokozan eragiketen eta eskudiru-fluxuen emoitza erakusten dabez, apliketako finantza-informazioaren arau esparruagaz, eta, batez be, bertan jasotako kontabilidade-printzipio eta erespideakaz bat etorri”.*

Eta eretxi hori barrikusitako espediente kopuru handi baten oinarritzen da, eta, beraz, fidagarritasun handia dauka. Auzitegiak barrikusitako kontratazioen eta



dirulaguntzen espedienteak eta hitzarmenak errepasetarren... Aztertutako kontratazino-espedienteak:

2021eko 16 espediente, 54,3 milioi euroan esleituak.

3 esparru-akordio, 25,4 milioi euroan esleituak.

Aurreko urteetako 25 espediente, 188.000.000 euroen truke betearaziak.

GUFEn 3 espediente, 2,6 milioitan esleituak.

GUFEn aurreko ekitaldietako 4 espediente, 2,5 milioi eurokoak.

26 espediente enpresa-sektore publikoan (305,7 milioi euro).

Aurreko urteetako sektore publikoko 23 espediente; 98,9 milioi euro.

Dirulaguntzen eta hitzarmenen espedienteetan, 2021ean emondako dirulaguntzak, 68,3 milioi euro.

2021eko hitzarmenak, 6,1.

Eta aurreko ekitaldietakoak, 5,5 milioi eurokoak.

Ikusten dozuenez, aztertutako espediente guztiek argi eta garbi erakusten dabe Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren ganean egindako kontrolaren zehaztasuna.

Amaitzeko, aitatu dodan zezeilaren 23ko Ogasun Batzordean zehatz-mehatz aztertu genduan-ta, ondorio bat aitatu gura neuke. Bizkaiko Foru Aldundian positibotzat jotzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko jarduera ekonomikoa, ez bakarrik arestian aitatutako kopuruakaitik, baita Aldundi honetako sail guztien kudeaketa globalagaitik be. Arabere gehiago, kontuan eukita non gengozan aurreko ekitaldian, 2020koan, eta horrek 2021ean bertan zelan eragin eban. Modu positiboan baloretan dogu Auzitegiaren eretxia, baita batzarkide-talde guztien eretxi ona be. Hemendik, aurreko Ogasun Batzordean egindako lana, borondatea eta eretxia eskertzen dodaz.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala. Y comenzamos con el turno de los grupos. Para ello, tiene la palabra la representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a todas y a todos.

2021. urtea, baita 2020.a be, sano gogorak izan ziran herritarrentzat orokorrean, pandemiaren ondorioz. Berrojalbiz andreak be esan dau. Egoera horrek, ganera, areagotu egin ebazan Bizkaiak eukazan arazoetako batzuk. Zaintza-sistemaren krisia, indarkeria matxisten adierazpen gogorrenen gorakadea (% 30 salaketa gehiago), lan-prekaridadearen igoerea, % 13tik behera ez egiten ez eban batez besteko langabezia-tasea, eta krisi klimatikoa, zeinaren kontra gobernuek ez eben irmetasunez jarduten.





Eta hortik abietan gara Elkarrekin Podemosen, 2021eko Kontu Orokorrek dakarren dokumentazioa aztertzeko. Aurrekontu-kontuei eta gastu-aurrekontuaren memoriari erreparatan badeutsegu, nahikoa da esatea 2021erako aurrekontua izapidetzen genbiltzanen esan gendua: ez gengozala ados horregaz, ez eutsalako erantzuten une hareetan bizi genduan errealidadeari. Bada, aurkeztu diran kontuek berresten dabe orduan esaten genduan hori, bete ezeze, okerrera be egin ebala. Hasieran aurkeztutako aurrekontu-partidetan izandako aldaketa ugariak aztertu ondoren, ikusten da Azpiegitura Sailak 39.000.000 gehiago euki ebazala, eta Gizarte Ekintzakoak, barriz, 36,5 milioi gitxiago. Barriro dinot. Herritarrak kinka larri samarrean egozan haretan.

Zaintza-sistemeak, edo persona ahulenei arreteta emoteko sistemeak, ahalegin handiagoa behar eban, eta ahalegina Azpiegitura Sailaren alde egin zan. Gauza bera jazoten da sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko proiektuak finantzetako suspertze-mekanismitik datozen ia 400.000 euroakaz: ez ziran gastau, salaketa kopurua % 30 handituta be. Eta onartuko deustazue, baina ezin dogu ulertu, orduan bizi ziran inguruabarretan, holango egoerak jazotea.

Beste alde batetik, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aurkeztu dauen fiskalizazio-txostenari jagokonez, eta egia izanda Bizkaiko Lurralde Historikoa osotzen daben erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen dauen arautegia arrazoiz bete dala, gai batzuk aitatu gura doguz.

Begira, foru sektore publikoagaz edo Aldundiagaz egindako 37 alegazinoetatik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 37 alegazino horreetako bat baino ez dau ontzat emon. Bestalde, auzitegiari azalpenak eskatzen jakozan guztietan ez da lortzen entidadeak erantzun bat emotea. Adibidez, Zugaztel edo Lantik enpresen kasua, aurrekontu-zuzkidurak ezelako aldaketarik onartu barik gaintzeari jagokonez. Ez dozue horri buruzko azalpenik emon, eta uste dot hori oso adierazgarria dala, administrazio publikoaren gardentasunari jagokonez. Beharbada ohar gitxi egin dauz Auzitegiak, bai, izan be, 2020an baino gitxiago izan dira, baina horreetan erantzunik ez egoteak, edo auzitegiak berak be egokitzen ez joteak, zalantzan ipinten dau administrazio publikoaren gardentasunaren neurria.

Eta, hori kontuan hartuta, Elkarrekin Podemosek ez dau babestuko 2021erako Kontu Orokorra onestea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. A continuación, tiene la palabra el representante del Partido Popular Bizkaia, señor Pagadigorria Wicke.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Buenos días a todos, y gracias.

Lehenengo eta behin, batzarkide-talde honetatik ondoetorria emon gura deusagu Carlos Alzaga jaunari, Azpiegituretarako diputadu barriari. Eta espero dogu arrakasta handia izatea bere ardurea beteten. Egia da curriculum interesgarria eta positiboa daukala, eta emoten deusagu. Eta, ganera, gehitu behar dot Azpiegituretarako foru-diputadu bat behar dogula, azken hileotan ez dogu-ta benetan euki.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Pagadigorria Wicke, por favor, está bien dar la bienvenida, pero por favor...



El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: 2021eko Kontu Orokorrari buruz berba egingo dot. Gure taldea abstenidu egingo da. Egia esan, nahiko ados nago nire aurretik egindako iruzkin batzuek, baina, nire ustez, kontuan euki behar dogu nik, jagokon batzordean, kontu hau pandemia ostekoa dala esan nebala. Zuzendu egin ninduen, pandemikoa dala esan eusten, eta ados nago. Beraz, 2021eko Kontu Orokor bat danok jaubetzen garan elementu horreekaz tratau behar da: ezin izan zala aurrekonturik egin, edo, jakina, aurrekontua gauzatzea desitxuratu eben elementuak egon zirala. Eta, horrenbestez, aurrekontua gauzatzeko aurrekontu-partidei jagokenez, gure eskakizun-mailak, derrigorrez, urte arrunt bateko aurrekontu bategaz daukaguna baino txikiagoa izan behar dau, esan daigun.

Alde horretatik, guk planteau genduan gaietako bat zorpetzea zan, zorpetze-mailea. 410 milioiko zorpetze barria egoan, eta horrek esan gura dau zor bizia 1.719 milioikoa zala abenduaren 31n. Hori da guk eztabaidabide euki dogun gaietako bat. Niri diputaduak erantzun eustan, eta egia da urte horretan koltxoiaren aukera hori euki behar zala, etorri eitekezan gastuak zirala ta. Holan ulertu dogu.

Euskal Epaitegiaren txostenari jagokenez, ba egia da, argazkiagaitik ez deusue errieta handirik egiten, errazoizkoak dirala dinoe. Era berean, pentsau gura dogu, batez be kontratazinoari jagokenez –horixe da-ta Epaitegiaren txostenak gehien nabarmendu dauena–, elementu batzuek eragin ebela, seguruenik, kontratazino-prozedurak ezin garatzea behar beste exijentziagaz, ez-betetzeak larriak izan ez badira be. Guk, gure berezko eta derrigorrezko kontrol-lanean, kontu orokor honeek eta aurrekontu honeen betearazpena gainbegirutzen jarraituko dogu, eta benetan egiaztauko dogu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere erispideen arabera guztiz bat ez etorren kontraturen bat edo betearazpenen bat topau dauen sail horreetan, arazo bat izango dogu eta horretan jardun behar dogu. Hau da, txosten positibo batek ezin dau ezkutau soziedade- eta antolaketa-ikuspegitik hain konplexua dan administrazino honetan, Bizkaiko Foru Aldundian, oso erne ibili behar dogula erakunde horreek guztiek Kontuen Euskal Epaitegiak ezarten deuskuzan erispideak bete daiezan.

Eta, beraz, botazino honetan abstenidu egingo gara. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos. Tiene usted la palabra, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, eskerrik asko, mahaiko jaun-andreok, batzarkide jaun-andreok. Ondo etorri, Alzaga jauna, zure kudeaketea arrakastatsua izan daitela.

Lehenik eta behin, nire Taldetik, momentu batez gogoratu gura dodaz COVID-19 deitu geuntsan tragedia harek eragin ebazan biktima guztiak. Etzi 4 urte beteko dira egoera horretatik, zeinak izugarri traumatizau ginduzan, bildurrez bete ginduzan, guztiz zalantzazko etorkizuna edegi euskun, eta gure bizitza guztiak eta gure ekonomia kolokan ipini ebazan. Hara, bada, hemendik gogorapen hunkigarria tragedia horren biktima zuzenak izan ziran persona guztientzat, baita haren senideenganako alkartasuna be.

Hortik aurrera, 2021eko ekitaldia, testuinguru apur bat eskatzen deusuet horri jagokenez, artean tragedia horren arrastoek irauten eben ta. Eta gai batzuk horren ondorio baino ez dira. Egia da 2021eko, 2019ko, 2020ko edo 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorrak beti jasoten dituala ondareko eta diruzaintzako aurrekontu-eragiketak, Aldundiko sailek, foru-erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek, merkataritzakoek, foralek, fundazinoek eta abarrek egindakoak, egitura ikaragarri konplexua, danok dakizuen lez.



Muinari erreparetan badeutsagu, Kontuen Euskal Epaitegiaren eretxiak, ekitaldi horretako Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren fiskalizazio-txostenari jagokonez, nabarmetzen eban Bizkaiko Lurralde Historikoa osotzen daberen kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, ikuskatutako ekitaldi honetako jarduera ekonomikoa adierazoten ebela, eta, batez be, garrantzitsuena, urte horretako abenduaren 31n egoan ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela. Hori guztia, jakina, aplikau beharreko arau-esparruaren eta esparru horretan jasotako kontabilidade-printzipio eta -erespideen arabera. Beraz, errazoiz bete zan jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen eban legezko araudia.

Hori esanda, oso berbakera administratiboa badirudi be, oso burokratikoa, ez oso hunkigarria beharbada, baina guztiz garrantzitsua da, ez daigun pentsau Lurralde guztietako Kontu Auzitegi guztiek eta Estadia osotzen dauen sare osoak halangorik esateko aukerea daukienik. Susmoa daukat beste Kontu Auzitegi batzuek salbuespenak egin behar dabezala, azken baten, ikuskatutako administrazioek erispide hobeak euki daiezan. Zorionez, ez da gure kasua, eta hori nabarmendu gura neuke.

Ederto. Hori esanda, egia da, betiko lez, gai batzuk agertu zirala Epaitegiari buruz, alegazioak, baina nik hemen ñabardura bat egin gura neuke. Batzordeetan aitatzen izan da, eta Osoko Bilkura honetan be cba. Bai, alegazioak aurkeztu ziran, eta foru-erakundeek Epaitegiak planteetan dauzan gaiei emoten deusieezan erantzunak dira. Tira, nik gogoratu gura dot Epaitegiaren eta administrazioen arteko erespide-desbardintasun horreek ez dakarrela berez ikuskatutako erakundeen legez kontrako jokabiderik. Ez da legez kanpokoa bat ez etortea.

Ildo beretik, gu oraintxe Epaitegiaren eretxia epaitzen egongo ginateke, eta esan daikegu, ez, ez, ez, Aldundiak ez deutso jaramonik egin Auzitegiak esan dauenari, eta kasu egin behar jako. Hau da, ez litzateke hori izango kontua, gu Epaitegiak esandakoa interpretetan gabiliz. Bada, Aldundiak, haren erakundeek, alegazioen bidez interpretetan dau Epaitegiak dinoana. Eta, horrenbestez, barriro dinot: ez dago ezelako ilegaltasuna, ez da legez kontrako jokabidea, ez da auditatutako erakundeen jardunbide txarra, Epaitegiak alderdi batzuei buruz daukanaren bestelako eretxia adierazotea. Halan izango litzateke Epaitegiak salbuespenak erabiliko balitu, horreek entidadeon jokabidearen gaitzespenak dira ta.

Hori esanda, gogoeta horreek (ez dira ez-beteteak) zenbait akats ezarten dabez, bai, eta horreek zuzentzeko helburua euki behar dogu, jakina. Baina barriro dinot, Epaitegiaren jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen daberen lege-betetzeen barruan dagoz.

Azkenik, autortu behar da Epaitegia itzel hobetzen dabilela txostenak, eta oso sinpleak, eta askoz ulergarriagoak egiten dituela. Foru-erakundeak be euren barne-kontrolako sistemak hobetzen ahalegintzen dabilz, eta gomendatutako asko gehitu dabez. Hain zuzen be, portaera hori jagoteko gagoz gu hemen. Ederto, holan jarraitu daiela erakunde biek.

Administrazioari be eskatu beharko jako, iradoki, gogorarazo baino gehiago, bete beharreko diziplina-printzipio bat daukala, eta Epaitegiaren gogoetak alegau egin behar dirala. Alegeteak ez dau esan gura esaten denagaz ados gagozanik; isiltasunagaz erantzutea da okerreko jokabidea. Beraz, erakunde biek alkar ulertzeko modu nahikoa izan daien eskatzen dogu, kontu honeek zero gogoeta eukiko daberen unea ailegau daiten. Beste barik, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. A continuación, la señora Sarasola Lartategi, representante del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.



La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y todas.

Aprobar o rechazar la cuenta general de 2021, eso es lo que hay que decidir hoy.

Sería una decisión doble, por diversas razones.

Una doble decisión. Por un lado, debemos evaluar si la cuenta general recoge adecuadamente, desde el punto de vista de la contabilidad, el reflejo de los presupuestos ejecutados en ese año, pero también debemos valorar

si la ejecución presupuestaria sirvió o no para dar respuesta al contexto existente en 2021 y a los retos que se planteaban en esa época.

En este primer caso, es decir, tratándose del informe de fiscalización, no vamos a extendernos demasiado en la elevación o declaración contable de los Presupuestos, pero sí queremos expresar una preocupación que es importante para nosotros y nosotras: tanto la diputada en la comisión, como los dos partidos que sustentan el Gobierno, hacían una valoración absolutamente positiva del informe del Tribunal Vasco de Finanzas Públicas sobre la cuenta general, restando importancia, de alguna manera, a los incumplimientos legales y cuestiones a mejorar de los que dicho tribunal advertía.

Y no seremos nosotras quienes hagamos una lectura dramática del informe elaborado por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, tal como expusimos en la Comisión. No vamos a decir que sea un informe muy duro, pero sí creemos que la Diputación debería mostrar una actitud diferente respecto a los errores, incumplimientos legales y cuestiones a mejorar, que se repiten año tras año. Otra actitud, más crítica o constructiva.

Eta onartuko deustazue apur bat gelditzea HDEEK egiten dauen gogoeta baten: foru-sektore publikoko erakunde bi, Gaikuntza eta BizkaiKOA, katalogetako eta definitutako erabilten dan nortasun juridikoa. Erakunde bi horreei buruz, HDEEK behin eta barriz esaten dau, urterik urte, bere fiskalizazino-txostenean, merkataritza-jardueragaz zerikusirik ez daukien eginkizunak daukiezan erakunde bi diran eskero, ez dirudiela zentzun handirik daukanik enpresa-erakunde publiko lez katalogauta egoteak. Gure taldeak Batzordean horri buruz galdetu ebanean, epaitegiko ordezkariak azpimarratu eban gai hori, beraren eretziz, oso garrantzitsua dala, eta gai horretaz Aldundiagaz eretxi-desbardintasuna baino zeozer gehiago egoala. 2019an, Epaitegi horrek lehenengoz aitatu ebanean hori, Aldundiak esan eban gaia aztertuko ebela, euren zerbitzu juridikoakaz, aditzera emonez bape hutsala ez dan gai hori bideratzeko aukerea egoala, baina, kontuak kontu, danak bardin jarraitzen dau. Izan be, 2022an, Aldundiak Foru Arau barri bat aurkeztu eban BTE (orain Gaikuntza) arutzeko, eta ez eban gai hori birbideratu, erakunde hori enpresa-erakunde publiko moduan mantendu eban eta. Ogasun eta Finantzen Diputatuak be, Batzordean, erantzun euskun hori dagoaneko aztertu dala, eta, zeozelan, zuek zuen jarrereari eusten zeuntsiela.

Bada, guztiz kezagarria iruditzen jaku, ezin deustuegu besterik esan.

Y ahora, dicho esto, y para terminar con el informe de fiscalización, debo decir que también nos parece preocupante la ausencia de un informe de impacto de género en el ejercicio que se realiza sobre la cuenta general. Y, ahora sí, vamos a abordar el tema de la ejecución de los Presupuestos de 2021, que entendemos que tiene mucha importancia.

En el Pleno en el que se aprobaron estos presupuestos, nuestra representante, para explicar su voto negativo, dijo lo siguiente:



*“EH Bildu considera que en estos momentos es indispensable hacer cambios para conseguir, realmente, una Bizkaia mejor y más justa. Y en el Proyecto de Presupuestos de 2021 presentado no vemos eso”.*

Bueno, pues siendo importante lo que se recoge en los Presupuestos, más importante es la ejecución que luego se hace de esos Presupuestos, más importante es la ejecución, y, pasados estos 3 años, y echando la vista atrás, podemos decir que acertamos plenamente.

En esa época, el Gobierno hablaba de la Transición sociosanitaria. Debemos recordar, como han recordado anteriores portavoces, que veníamos de un contexto muy golpeado por la pandemia de COVID, y que aún estábamos en una situación de pandemia. Pues bien, si bien en este contexto se había previsto asignar a Acción Social, en el Presupuesto inicial, el 38 % de dicho Presupuesto para temas sociales, en la ejecución real el esfuerzo presupuestario realizado para temas sociales se redujo al 35,2 %. En cambio, el esfuerzo realizado en el Departamento de Infraestructuras se incrementó (del 15,8 % al 18 %). Y, además, comparado con el gasto real realizado entre 2020 y 2021, en el conjunto de los Departamentos hubo aumento del 10 % en lo dispuesto (lo gastado), mientras que Acción Social registró un incremento del 2,7 % y el Departamento de Infraestructuras del 39%.

Y sí, sé que podrían ustedes decir que en el Departamento de Infraestructuras se puede entender ese esfuerzo, ya que también adquirieron un compromiso con la movilidad sostenible. Pero si nos fijamos en la utilización del Presupuesto que hizo el Departamento de Infraestructuras, vemos que las mayores inversiones se destinaron a la construcción y mejora de carreteras, y no a infraestructuras distintas de la carretera, como los bidegorris, por ejemplo. Y, comparando con el ejercicio 2020, aumentó el esfuerzo en carreteras y descendió el de otro tipo de infraestructuras.

Pero quiero volver de nuevo a la inversión realizada en el Departamento de Acción Social. De hecho, en 2021 se vio más nítidamente que nunca la apuesta clara por la privatización que hace este Gobierno de Bizkaia, en lo que al cuidado de las personas mayores se refiere.

Zifra bi baino ez deusuedaz emongo, eta, hortik aurrera, nork bere ondorioak atera daizala:

- 2020ko ekitalditik 2021ekora bitartean, enpresei eta kanpoko entidadeei adinekoen laguntza-zerbitzuengaitik, hau da, zerbitzuen pribatizazioagaitik, 163 milioi ordaintzetik 168 milioi ordaintzera igaro zan (% 3ko igoera).

- Baina badakizue zer jazo zan GUFEn adinekoentzako egoitza publiko bietarako (Leioakoa eta Elorrio) aurrekontuagaz? Bada, 2020tik 2021era jaitsi egin zala euren jarduerarako eukiena, 1,7 milioitik 1,6 milioira (% 6 gitxiago). Hau da, egoitza pribaduak ordaintzeko xedatutakoak igon egin eban, eta egoitza publikoetan egindako ahalegina murriztu zan.

Voy terminando. También hablaban de la Transición ecosocial y energética, pero teniendo en cuenta que el Departamento de Medio Ambiente es el principal responsable de esta actuación, sí se ve que el gasto ejecutado en 2021 fue el mismo que en 2020, por lo que no se puede decir que se hicieran grandes inversiones para la transición energética.

Por todo lo dicho, y ahora sí que voy a acabar, en su día dijimos ‘no’ al Presupuesto 2021, a pesar de hacer referencia en su presentación a objetivos muy deseables, porque las partidas concretas de los Presupuestos no respondían a los retos que tenía Bizkaia en



ese momento, y hoy, echando la vista atrás, y mirando a lo ya ejecutado, llegamos a la conclusión de que el tiempo nos ha dado la razón, y con más razón rechazamos estas cuentas.

Si algo nos ha dejado claro la Cuenta General 2021 es que en ese ejercicio, el de 2021, retrocedimos tanto en el sistema público de cuidados como en los objetivos de promoción de la transición ecosocial y energética y de otro modelo de movilidad más sostenible.

Horretan guztian atzera egin genduan, ze, aurreko ekitaldian baino % 10 gastu handiagoa egin zan ekitaldi baten, adinekoentzako jagoletza publikoen egindako gastua murriztu egin zan, eta egoitza pribaduetakoa, ostera, handitu. Errepideetan egindako gastua handitu egin zan, zelan ez? Eta Iraunkortasun Sailak eskura euki ebana aurreko ekitaldian baino askoz be gitxiago izan zan, proportzinoan.

Por tanto, diremos no a la Cuenta General de 2021. Nada más por nuestra parte. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí. Gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y todas.

Tira, Kontu Orokorrari buruzko eztabaidea, Batzar Nagusiek onespeneraren tramitazioa egiteko. Funtsean, zifra ekonomikoak ondo baino hobeto azaldu ditu Ogasuneko diputaduak, Berrojalbiz andreak. Ekitaldiak doitutako emoitza dauka, 238 milioiko superabitagaz. Bertan, lortutako diru-sarrera arrunten kopuruak nabarmentzen dira, 8.500 milioitik gorakoak, eta, zalantza barik, gastuari jagokonez, konpromiso instituzionalak. Egiaz, gastuaren % 79 beste administrazio batzuk finantzetako da, euren eskumenak garatu ahal izan daiezan. Eta, esan daigun, Foru Aldundiak berak zuzenean egikaritzen dauen gastuak % 21eko pisua dauka gastu osoan.

Alde horretatik, tira, Kontu Orokorraren balorazioari buruzko gogoeta batzuk egin dira, zeinak, kontua bera aztertu beharrean, aurrekontuagaz zerikusia daukie beharbada, edo, atzoko greba-eguna aprobetxautu, atzoko greba-deialdia, gastua egiten dan mailaren ehunekoagaz lotuz, zuzenean edo kanporatzeko moduren baten bidez, une honetan berba egin behar ez dana, nire ustez, hori ez jagoko-ta Kontu Orokorrari berari. Baina zifra batzuk emotearren, konpromiso instituzional horreen barruan, Eusko Jaurlaritzari bere eskumenak finantzetako egindako ekarpena 5.462 milioikoa izan zan, eta 2020agaz alderatuta, igoera handia izan da, zalantzarik barik, ez dago 2020agaz alderatzerik, 2020an pandemia-egoerak eragin itzela euki ebalako. Baina kopuru hori 2019ko ekitaldikoa –pandemiaren aurreko ekitaldikoa– baino % 3,25 handiagoa da. Eta Bizkaiko udalen finantziazioa be handiagoa izan zan. Kasu honetan, % 2,1, pandemiaren aurreko ekitaldian, 2019an, emon zana baino. 2020agaz alderatu ezkerre, zalantza barik, hazkunderaren ehunekoak askoz handiagoak dira.

Orokorrean, Foru Aldundiaren gastuari jagokonez, nik uste dot argi ikusten dala zein dan Aldundiaren ekintzaren orientazioa, eta hori, benetan, pertsonakazko, herritarrakazko konpromisoa dala, premia handiena daukienei, zerbitzu publikoek ondo funtzionetea gehien behar dabenei eta zerbitzu publiko horreek neurri handiagan erabilten dabezaneie artea dala. Zifra batzuk emonda, aurrekontutik kanpokoak –aurrekontuak zenbatekoa izan beharko leukeen eztabadaitzeari jagokonez– baina bai gastu-betearazpenaren



arloan, Foru Aldundiak egikaritutako gastu guztien % 52 honeei jagoke: Gizarte Ekintza Saila, zuzenan edo neurriren baten kanpora aterata; garraio publikoa sustatzeko saila, garraioa sustatzekoa, garraio publikoaren zerbitzurako; eta enpleagarritasuna edo gizarteratzea sustatzeagaz lotutako alderdiak, edo enpleo sailak gauzatutakoak. Sail horreek Aldundiak egikaritutako gastuaren % 52 egikaritzen dabe. Eta azpiegituretarako sailari jagokonez, bada, bai, haren portzentajea % 18koa da, eta hori txikiagoa da aurreko ekitaldi batzuetakoa baino. Esaterako, 2018koa baino, urte hartan ehuneko handiagoa eukan eta.

Horrenbestez, adierazo gura dot gure Taldeak, duda barik, ikuspegi horretatik aztertuta be baloretan dauela Kontu Orokorra, Aldundiaren jarduna be oso modu positiboan baloretan dau. Izan be, argi dago joerea zerbitzu publikoa ahalik eta bermerik handienagaz emotea dala, beharrezko oreka eta kohesino soziala lortzeko, eta premina handiena daukientzako babesa lortzeko. Horretaz ez dago zalantzarik.

Horregaitik, positiboki baloretan dogu Kontu Orokorra. Positiboki baloretan dogu Kontu Orokorra, era berean, 2021eko abenduaren 31ko finantza-egoereagaitik. Pandemiak, artean, ekitaldi hari be eragin eutson, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, bere txostenean, orduko finantza-egoerea zuzena zala aitutzen dau.

Era berean, positiboki baloretan dogu Kontu Orokorra fiskalizazioaren ikuspegitik, bai Foru Aldundiko sailek bai foru-sektore publikoa osotzen daben generako erakundeek gastua gauzatzeko egiten daben kudeaketa egokiagaitik.

Sailek behar dan moduko kudeaketea egiteari jagokonez, Ogasun Sailaren kontabilidadea alde batera itxita, legezketasunari buruzko gogoeta batzuk egin dira. Eta, gure eretxiz, ukatuezina da hori be, holan autortu dabe, orokorrean, talde politikoetako bozeroale guzti-guztiek, bai gaur, bai Ogasun Batzordean. Gure eretxiz, kudeaketea oso ona izan da, ia bikaina. Egia esateko, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostena ia garbia da ta. 6 salbuespen baino ez ditu jasoten, azterketa sakona egin ondoren, eta horri buruzko datu batzuk diputatu andreak, Berrojalbiz andreak, emon ditu daborduko. 100 espediente baino gehiago aztertu dira, eta garrantzi handikoak. Izan be, 2021ean egikaritutako 323 milioi euroko gastua aztertu da, eta 2021ean esleitutako, kontratutako 358 milioi euroko gastua.

Horregaitik, uste dot aitatu egin behar dala, eta argi itxi behar dala, baita be, Kontuen Epaitegiaren eretxia, eta zer esaten daben Kontuen Epaitegiko kideek Ogasun Batzordera jotzen direnean, euren txostena komentetara, edo neurri handiangoan azaltzera.

Kontuen Epaitegiak, bere eretxiz, nahiko argi ixten dau erakundeek, kasu honetan Foru Aldundiak eta enpresen foru-sektore publikoak, euren kontrol-sistemak hobetzen dabezala, eta Epaitegiak gomendioak gehitzen dabezala beti. Horrenbestez, gero eta gitxiagotan emon behar ditu legeria beteteari buruzko eretxiak, eta gero eta gogoeta gitxiago egin behar ditu, eta, ondorioz, gero eta garbiagoa da eta gero eta hobea da Epaitegiaren beraren txostena.

Zenbait aitamen egin dira, berbarako, zenbait zerbitzu edo obratan aurrekontuko gastua beharbada gaingitzen izan daben soziedadeen ganean. Ildo horretan, azpimarratu behar da, eta adierazo behar da, era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ez dauela hori jasoten salbuespen moduan. Alderdi horreek beste gai batzuen barruan jasota dagoz, kontrol-sistemak hobetzeko beste gogoeta batzuen esparruan, eta ez da salbuespena, legeria beteteari jagokonez, eta dagoaneko azaldu dabe soziedade gehienek, bakanen batek izan ezik, zelan onartu ziran behin betiko gastu horreek. Era berean, interesgarria da, edo aitatu beharrekoa, Foru Aldundiak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak erakunde jakin batzuen izaerari jagokonez eretxi desbardina eukitea eta hori ezbaian ipintea ez dagoala jasota, inondik inora be, ez-betete moduan, legezketasunari eragiten deutson alderdi moduan, gastua gauzatzeko printzipioak beteteari jagokonez. Erakunde jakin batzuek euki beharko leukien forma juridikoari buruzko eretxi desbardina baino ez da.



Nire ustez, gai horreek guztiak be autortu behar dira. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean aitatu dauz, eta bileretan be azaldu dauz. Txostenaren 107. orrialdean, gaztelaniazko bersinoan, argi eta garbi esaten da atal horretan jasotzen diran hutsuneez ez daukiela eragin nabarmenik, jarduera ekonomikoa edo finantzarioa arautzen daberen printzipioen eta kudeaketa hobetzeko agirian jarten diran prozedura-alderdiak beteteko orduan. Ez da legezko tasuna zalantzan jartea. Horregaitik, benetan, gure eretziz, Foru Aldundiaren eta, orokorrean, foru-sektore publikoaren jarduna ia-ia gailentzat jo behar dogu, gastuaren betearazpenaren eta legeria betetearen ikuspegitik be.

Gogoan euki daigun, duda barik, zailtasun handiki ekitaldia izan dala, pandemiak be eragin handia euki dauelako, aldi jakin batzuetan behintzat, olatu zehatz batzuetan, eta horrek, zalantza barik, agirian itxi ditu kudeatzeko zailtasun handiagoak, prozedura jakin batzuk erabili beharra, Sektorre Publikoko Kontratuerei buruzko Legeak ezarten dituanak larrialdi-egoerei konponbidea emoteko, eta, duda barik, beti sortzen dira gai edo hutsune batzuk, materialtasunari jagokonez, kualitatiboari jagokonez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak esanda, txikiak, eta gero eta txikiagoak.

Muchas gracias a todos y a todas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Y, una vez finalizado el debate, someteremos a votación la Norma Foral, cuando esté todo el mundo sentado. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 50 votos, 29 a favor, 18 en contra, 3 abstenciones. Por tanto, queda aprobada la Norma Foral.

A continuación, antes de avanzar en el orden del día, quiero advertirles de que, con el acuerdo de todos y todas las portavoces, hemos realizado una serie de modificaciones en el orden del día. Y diré cuál será el orden del día de esta Junta General. Pero, antes de hacerlo, un juntero me pide la palabra, me imagino que su voto...

Señor Arregi.

El Sr. **ARREGI OSORO** jaunak: Perdón, me he equivocado. Al votar le he dado seguido, y...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tal y como se establece en la norma, nos lo ha comunicado de inmediato. Por lo tanto, su voto favorable quedará así reflejado en el acta. Y, en cuanto al orden del día, se han introducido diversas modificaciones, siendo el orden el siguiente:

El que era el punto 6.º, se tramitará ahora como punto 2.º.

El que era el punto 5.º se tramitará como punto 3.º.

El que era el punto 4.º, se mantiene como punto 4.º.

El que era el punto 2.º, se tramitará como punto 5.º.

Y tramitaremos el que era el punto 3.º como punto 6.º y último.





La señora secretaria lo tiene claro. Por tanto, señor secretaria, a continuación, punto 2.º, anteriormente 6.º.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma ([R.E.12/E/2024/0000347](#))

**Autor:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Asunto:** Suprimir las retenciones fiscales en el IRPF del SMI y de las rentas más bajas.

**Documento Principal:** ([R.E.12/E/2024/0000347](#)), ([R.E.12/E/2024/000445](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (8A), [Enmiendas:](#)

[Admisión a trámite](#) (8B)

**Expediente:** ([12/B/26/0000816](#))

6.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena ([12/E/2024/0000347SE](#))

**Egilea:** González Díez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Gaia:** PFEZren atxikipen fiskalak kentzea LGS kobratzen dabenei eta errenta txikiak daukiezanei

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000347SE](#)), ([12/E/2024/0000445E](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (8A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (8B)

**Espedientea:** ([12/B/26/0000816](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo que presentó la iniciativa. Así pues, a continuación, tiene la palabra el representante del Partido Popular Bizkaia, señor Pagadigorria Wicke.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Gracias, buenos días de nuevo a todos y todas.

Tira, proposamen bat dakargu Batzarretxe honetara, funtsean elementu bi daukazana. Bata Arauz Besteko Proposamen bat da: Foru Aldundiari eskatzea abenduaren 28ko 214/2023 Foru Dekretua aldatzeko, 17.000 €tik beherako errentei aplikau beharreko atxikipenak kentzeko.

Eta bigarren puntu moduan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea kamara honetara bialdu dagiala PFEZren Arauaren 102. Artikulua aldatzeko Foru Arauaren proiektu bat, errenta-aitorpena aurkezteko derrigortasuna kentzeko, 17.000 €horretatik beherako laneko etekin gordinen kasuan.

Ea ba. Hona dakargu proposamen hau, Gobernuaren dekretu bidez ezarritako lanbide arteko gitxieneko soldatearen igoera (15.876 eurokoa da orain) atxikipenei moldatzea gura dogulako, baita hemen azpimarratu gura dodan kontzeptu bati be: errenta erabilgarriari. Ez dot berba egingo, ez da hori Proposizio honen xedea, lanbide arteko gitxieneko soldatearen aldaketa horren jatorrian. Ez naz eztabaidatzen hasiko era batera edo bestera egin behar ete zan, baina horixe egin da. Araubide erkidean, 142/2024 Dekretuaren bidez aldatu ziran errentetarako atxikipenak lan-etekin horreetara arte.

Beraz, zentzunezkoa begitantzen jaku Foru Aldundiak atxikipenen-derrigortasuna kentzea. Guk 17.000 euroko atalasea ipini genduan, uste dogulako argudio berak balio dauela 15.876 euroko errentetarako eta 17.000 eurokoetarako. Atalasea hor ipini dogu,



aldatu geinkean. Baina, gure ustez, daukagun testuinguruan lagundu egin behar dogu errenta garbia, errenta txikerrenetako familien errenta erabilgarria, handiagoa izan daiten. Eta horixe da, hain zuzen be, kamara honetara proposamen hau ekartera bultzatzen gaituen gauza bakarra. Eta kamara honetako alderdi desbardinaren jarrera politiko eta ekonomiko desbardinetatik, antzeko eskaeretara heltzen gara.

Zein da horren zergaitia? Ba, une honetan, hau da, dagozan inflazioakaz, eta, bide batez esateko, zezeileko azkenekoa, bereizten bada errenta horreek daukiezan familientzat gehien kostetan danean, hau da, elikagaiak, alkoholik bako edariak... orain inflazioaren beste igoera bat egon da, ez gagoz soldatak igoten diran testuinguru baten, lanbide arteko gitxieneko soldata hori izan ezik. Orduan, Alderdi Popularrekook uste dogu bidezkoa dala familia horreei laguntzea, prezioen igoerearen eta errenta erabilgarriaren benetako arazoaren une hau gainditzen.

Esaten deuskue gure araudi fiskalaren aldaketa sakonean murgilduta gagozanez, hau erreformearen kajoi horretan sartu beharreko zeozer dala. Eta gu ez gagoz ados. Uste dogu aldaketa hori foru-dekretu baten bidez egin beharko litzatekeala, eta atxikipen-tarteak aldatu, eta kitu. Hau da, aldaketa hau ez dago lotuta ez dakit zeri buruz pentsetan dogunagaz, adibidez, BGAE-en fiskalidadeari edo etxebizitza-kenkariei buruz. edo, jakina, urrunago dagozan elementuei buruz; esaterako, Soziedadeen ganeko Zergea. Honek zergak arintzen deutsez dakarke gehien behar daben familiei, eta guk uste dogu berehala egin beharko geunkeala, daborduko egin dan moduan, barriro dinot.

Errenta txikienak arintzeko elementua da, eta ez dogu ulertzen, jakina, uko egitea, egiteko sensibilidade faltea, eta horrek mahai ganean ipinten dauen gauza bakarra, esan barik doa, zelanbaiteko zerga-gosea da. Hau da, zerga-arintzearen aurrean, zerga-gosea. Nik uste dot ez dagoala erdibiderik guk egiten dogun eskaera honetan. Eta guk, jakina, Bizkaiko Alderdi Popularrak, zuoi danoi esan geinkizuena da sena eta sensibilidadea daukaguzala. Estadu-sena daukagu, gobernu-sena, herritarrei eta, kasu honetan, errenta jakin batzuetako herritarrei zuzenean mesede egiten deutesien arauak onartzeko sena, eta garrantzitsua da hori. Eta sensibilidadea daukagu, sensibilidade soziala.

Barriro dinot, bakotxak bere eredu ekonomikoa defendiduz, eta, seguru asko, jatorrizko posizionamendu desbardinetatik etorrira, hemen agertu gura dogun sensibilidade sozial hau nahikoa argudio da, nire ustez, Arauz Besteko Proposamen hau babesteko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke. Dado que el Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia ha presentado una enmienda, al igual que los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, a continuación, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Tira, azken urteotan gauza asko jazo dira. Eta, hain zuzen be, ezaugarri nagusia izan da herritarrek egin behar izan daben eta egiten jarraitzen daben ahalegina eta sakrifizioa, gure gizartearen zati handi batentzat, prekarioena eta ahulena danarentzat, zoritxarrez, hondino amaitu ez dan krisi ekonomiko baten ondorioei aurre egiteko.



Hazkunde ekonomikoari eta langabezia-tasak hobetzeari buruzko datuek ezin deuskue ahaztuarazo Bizkaiko jente askok soldata prekarioakaz jarraitzen dauela, eta zaurgarritasun handiko egoerak dagozala, begiratu behar deusaguzan egoerak. Horreei erantzuteko betebeharra daukagu, eta konponbideak emoteko betebeharra daukagu.

Eta hor kokatzen dogu Alderdi Popularrak egin dauen proposamena, eta jarraian azalduko dodan zuzenketa-eskea egin deusagu.

Zuek egindako proposamena, Pagadigorria jauna, urteko 17.000 eurotik beherako errentei buruzkoa da, eta bat bagatoz be oso errenta txikiak dirala, eta, horri erantzunez, beharrezkoa dala atxikipen-taulak aldatzea edo errenta-aitorpena aurkeztu behar izatetik salbuestea, eta hori baino zeozer gehiago be.

Baina hori ez da arazoa. Gure ustez, 17.000 €-tik beherako errentak aitatzea, eta ez urteko 15.876 €-tik beherako errentak, horixe da-eta LGSa 2024. urterako, atxakia ezin hobea izango zan, jazo dan moduan, Foru Gobernu honentzat, hori orain ezin dala egin esateko, etorkizunean erreforma fiskal bat egingo dalako. Eta horixe jazo da, Alderdi Sozialistak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu daben zuzenketa-proposamena ikusita. Horregaitik planteau deusuegu zuzenketa-eskea, LGSaren zenbateko bereko edo gitxiagoko lan-etekinak jasoten dituenen atxikipen-taulen berrikuspena orain egin daiten, preminagaz. Horrek ez dau esan gura zuekaz bat ez gatozanik, inola be, beste aldaketa batzuk egin behar dirala.

LGSari jagokonez, aurtengo zezeilaren 6an Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak ezarri eban lanbide arteko gitxieneko soldatea hilean 1.134 €koa izango dala 2024rako, hau da, % 5eko igoera 2023rako adostu zan lanbide arteko gitxieneko soldateagaz alderatuta. Euskadin, igoera horrek 61.000 langile ingururi eragingo deutse, gehienak andrazkoak eta gazteak. Horrek dira lanbide arteko gitxieneko soldateari jagokon soldatea proportzino handienean daukienak.

Halanda be, soldatearen igoera hori albiste ona izan arren, ez da hain ona errentearen ganeko zergearen erregulazinoan aldaketa batzuk egiten ez badira, eta, hain zuzen, horregaz batera atxikipen-ehunekoen taula orokorra aldatu behar bada, lehen esan deusuedan lez. Eta kasu praktiko bat planteau gura dot. Pentsau daigun: ama bakarreko familia bat, gitxieneko soldata daukan alaba bategaz edo seme bategaz. 2022. urtean, gitxieneko soldata 1.000 € Horrek zer esan gura dau? 14.000 €urtean, eta ez eukan ezelako atxikipenik.

2023. urtean, 1.080 euroko gitxieneko soldatea, seme-alaba batengaitiko atxikipena, % 3. Horrek zer esan gura dau? Hazkundearen % 40,5 galtzen dauela.

2024. urtean, hileko gitxieneko soldatea, 1.134 € igoera handia izan da aurreko urteagaz alderatuta. Baina, badakizue zer jazoten dan? Igoera horren % 84, % 4ko atxikipena aplikauko jakonez, ez dabela ikusiko, hazkundearen % 84.

Nire ustez, interesgarria izan daiteke, era berean, LGSaren 1.134 euroak eta EAeko 2024ko batez besteko soldatea, hilean 2.197 eurokoa, alkarregaz konparetea. Izan be, batez besteko soldatea LGSarena halako bi da. Eta, alde horretatik, eztabaida honen harira, aitatu gura dot 2023. urtearen hasieran, Estaduak LGSa 1.080 euroan ezartea onartu ebanean, Eusko Legebiltzarrean, kamara hau osotzen dogun talde batzuek proposamen bat onartu genduala, patronalari eta sindikatuei eskatzeko akordio bat lortu eiela negoziazio kolektiboaren barruan, Euskadiko LGSa herrialde honetako errealidade sozio-ekonomikoari jagokon mailan ezarteari dagokionez. Hau da, gure batez besteko soldateari eta bizitzaren kostuari jagokon mailan. Eta proposamen horrek Euzko Alderdi Jeltzalearen, Alderdi Sozialistaren, Euskal Herria Bilduren eta Elkarrekin Podemosen akordioa ekarri eban. Izan be, danok uste genduan,



Europako Gutun Sozialaren erispidea, hau da, LGSak apliketan dan lurralde-eremuko batez besteko soldatearen % 60 izan behar dauela, erispide egokia zala Euskadirako be.

Hori kontuan hartuta, gure LGSa 1.318 €raino eroateaz izango litzateke kontua, hau da, gaur egun Estaduak finkatutakoa baino 180 € inguru gehiago hilean. Beraz, aurrekari horreek kontuan hartuta, uste dot hemen gagozan guztiok uste dogula gaur egun indarrean dagoan LGSa ez dala nahikoa, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen dogula LGS horren atxikipenak kentzea. Horrenbestez, Foru Aldundiak tresna nahikoak daukaz atxikipenen taula preminaz eta Foru Arau baten izapidea hasteak (Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak zuzenketan proponidu daben moduan) ekarriko leukeen atzerapenik barik barrikusteko eta aldatzeko.

Nik entzun egin gura deusuet, zergaitik Foru Arau baten bidez? Hori ez da beharrezkoa, hain zuzen be, persona horreen egoerari azkar erantzun ahal izateko, eta, ganera, zergaitik zuen zuzenketan ez da zenbatekoa adierazoten, edo zein dan, zuen ustez, atxikipen hori kendu beharko litzatekean atalasea.

Uste dot Elkarrekin Podemosen jarrera nahiko argi geratu dala. Oraingoan, hemen itxiko dot. Zain nago, ea zer dinoen Gobernua sostengatzen daben alderdiek.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, buenos días de nuevo. Jaun-andreok, ahaldunok.

Ederto, itxaron gura badozu, itxaron daigun. Hara, begira, guk osoko zuzenketa-eskea aurkeztu dogu Talde Popularrak egin dauen proposamenari buruz. Hara, osoko zuzenketa horrek hau dino: “Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie, ganerako euskal erakundeakaz batera, lehentasunez bultzatu dagiala, zergak barrikusteko prozesuaren barruan, errenta txikienen tributazinoa hobetzeko hasitako lana. Zerga-berrikuspeneko prozesua garatzen dan bitartean, Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Arau proiektu bat aurkezteko eskatzen deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, PFEZren zergadunek aitortpena egiteko betebeharra daukien atalasea handitu daian, eta, era berean, PFEZren atxikipenen taula aldatu daian”.

Tira, ekin egingo dogu, zuek zeuen zuzenketak irakurri dozuez eta, zuzenketa hau justifiketeari ekingo deusagu. Danok dakigu barrikuspen-prozesu batean gagozala, adostu daikegun edozein erreformaren aurretik. Eta bertan jasoten da, gure zuzenketan eskatzen dogun moduan, PFEZren zergadunek aitortpena egiteko betebeharra daukien atalasea igotea, eta horri jagokon atxikipenen taularen aldaketea, hau da, salbuetsitako gitxieneko bat ezarri geinke.

Talde Popularraren proposamenean badago horri buruzko aitamen bat, zurean, iragarri zenduan hatan, ez dago holakorik, atxikipenen taularen aldaketea izan ezik. Gure proposamenean dinogun lez, Foru Aldundiari eta inplikautako beste erakunde batzuei eskatzen deusegu –hau da, ez dogu ahaztu Euskadiko Zerga Koordinazinarako Organoa– lehentasunez bultzatu dagiala. Eta lehentasunezko izaera hori, logikoa danez, preminagaz egitea dala ulertu behar da, hau da, “preminaz interpretau” gura dozu, ez legoke hortik urrun errenta ahulenei lotutako zerga-neurrien arloan hasitako lana, hau da, itxidazu esaten gu, proaktiboak izan behar dogula eta proaktiboak bagarala, eta, hain zuzen be, benetan dinotsut, Euskal Sozialistak taldeari jagokonez –haren izenean baino ezin dot berba egin, jakina–, behar egiten



dogula beste zerga-neurri batzuek, beste zerga-iturri batzuei jagokezanak, –etxebizitzari, familiari, zaintzari, mendeko personei eta abarri buruzkoak– garai honeek eskatzen daberen zerga-tratamentua euki daien. Baina, logikoa danez, horrek be kezkatzen gaitu, eta prest gagoz, era berean, ahalik eta arinen adosteko aldaketa bat ildo horretan.

Baina koherenteak izan behar dogu erreformau gura danean, edo barrikusi gura danean. Koherenteak izan behar dogu eta gure zerga-sistemea, batzuetan esan dodan moduan, osotasun bat dala ikusi, alkarregaz lotura zuzena daukien arau multzo bat. Eta ia ausartzen naz alkarrengandik banatuezinak dirala esaten, bai gaian, bai objektuan, bai kausan, printzipioan edo iturrian, hau da, osotasun bat, barriro dinot, osotasun bat. Errazena egin geinke, metrailetea atera eta, hara, erregelamentu bat. Bai, erregelamentu bat berehala aldatu daiteke, 15 egunean. Erregelamentu bat arin egitekoa da, baina erregelamentu bat bereizi, banandu, garatzen dauen arautik, haregaz koherentzia euki behar dau. Era berean, arauak koherentzia euki behar dau sistemeagaz.

Eta hemen inork ez dau esan gaia sine die atzeratuko danik buruz, inola be ez. Edozein arauaren aldaketeak, edo gura dan moduan deitu (erreformea, aldaketea, barrikuspena, gura dozuena), edozein arauaren aldaketeak zergadunaren segurtasun juridikoa eta konfiantza legitimoa bermatu behar dauz. Gura badozue, bigarren zatian, zuen zuzenketetako alderdi batzuk zehaztu geinkez.

Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos y a todas.

Tal y como ha explicado, el Partido Popular ha presentado la PNN sobre las retenciones del Salario Mínimo Interprofesional. Para ello, también se ha señalado que ha analizado dos medidas concretas, por un lado, la modificación del Decreto Foral 214/2023 para eliminar la retención aplicable a los contribuyentes con rentas inferiores a 17.000 euros y, por otro, la modificación de la Norma Foral del IRPF, para establecer la obligación de presentar declaración de la renta para rendimientos brutos del trabajo superiores a 17.000 euros.

Elkarrekin Bizkaia también ha comentado que ha presentado su propia enmienda subrayando la urgencia de este tema, y nosotros y nosotras, junto con el Partido Socialista, hemos presentado, con otra enmienda, otra propuesta que consideramos más adecuada.

Antes de explicar la enmienda, también me gustaría destacar cuál es el contexto actual en torno al SMI. Y, como se ha dicho, en los últimos años el Gobierno español ha ido incrementando paulatinamente el SMI, pasando de 755 a 1.080 euros en la pasada legislatura, y recientemente hemos sabido que volverían a subirla, a 15.876 euros. Y, con ello, hemos sabido que también se ha incrementado el importe de las retenciones, para que los y las contribuyentes que cobran el salario mínimo no las soporten.

Si venimos a Bizkaia, como todos y todas sabemos, el Decreto Foral 214/2023 regula en su artículo único el porcentaje general de retenciones, y, como se ha comentado anteriormente, los y las contribuyentes que perciben un salario bruto entre 0 y 14.000 euros no sufren retención. Pero es cierto, y no debemos olvidarlo, que entre las líneas



estratégicas del Departamento de Hacienda y Finanzas para la legislatura está la revisión del sistema tributario. Para hacer frente al reto demográfico, ambiental e incluso digital, una Bizkaia más próspera para todos y todas, socialmente avanzada, verde y con personalidad propia.

Para ello, como ya sabemos, ya se ha iniciado la revisión de los tributos, concretamente el mes pasado, cuando se nos presentó ante estas Juntas Generales el informe de evaluación de las reformas fiscales del IRPF y del impuesto sobre sociedades, y, tal y como dijo la propia señora Berrojalbiz, esa reforma fiscal evaluada sienta las bases de una revisión fiscal ya iniciada.

Eta, hain zuzen be, norabide horretan edo zerga-berrikuspenaren, zerga-hausnarketearen esparru horretan planteau dogu, edo planteau gura dogu, geure zuzenketa-eskea, Pagadigorria jaunak agertu dauen sensibilidade sozial beragaz. Saila fiskalidatea barrikusten hasi da, PFEZren eta Soziedadeen ganeko Zergearen aldaketak aztertuz eta ebaluazinoa eginez, eta askotan esan dau aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa daukala.

Gure zuzenketearen bidez, Aldundiari eskatzen deusagu, hasitako zerga-barrikuspen horren barruan, lehentasuna emon deiola errenta bajuenen tributazinoa hobetzeari, bai eta Batzar Nagusi honeetan Foru Arau proiektu bat aurkeztuari be, PFEZren zergadunek aitorpena egin behar daben atalasea handitzeko eta PFEZren atxikipenen taula aldatzeko, beti be ganerako euskal erakundeakaz bat etorrita, zerga-harmonizazinoaren mesedetan. Izan be, zergadun horreei urtenbide orokor edo integrala emon gura badeutsegu, beharrezkoa da foru-araue hori aldatzea. Sailak behin baino gehiagotan adierazo dau lanean hasi dala, eta, aurkeztu gura dituen zerga-aldaketa hauen artean, errenta txikerrenen fiskalidatearen aldaketa sartu gura dabela. Eta horregaitik, gure zuzenketearen bidez, lehentasunezko izaera hori emon gura deusagu, datuak eta daborduko egiten dabiltzan zenbatespenak behar besteko denporaz aztertu daitezcan, fiskalidate barri hori gure lurraldeko errealidatera egokitu ahal izateko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti. Y la señora Sarasola Lartategi, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias, señora presidenta.

Debo confesarles que, siendo las primeras en plantear el debate de la reforma fiscal, hoy en día, la verdad, es que tengo la duda de si acertamos o no, a la vista de cuántas veces utilizan ustedes esto como excusa para no abordar ni una sola vez la cuestión, y para no tomar medidas inmediatas. Al final, nos arrepentiremos y todo.

Dicho esto, en Bizkaia y en el conjunto de Euskal Herria, una persona trabajadora que cobra el SMI no tiene, y todos y todas lo sabemos, ingresos suficientes para hacer frente a sus gastos básicos diarios.

El SMI implantado en el Estado español no es suficiente, en Bizkaia, para tener un mínimo de condiciones de vida dignas, es decir, ese salario no da para cubrir vivienda, alimentación, consumos energéticos, transportes (los que necesita una persona trabajadora para ir a trabajar, entre otros), vestido y demás gastos básicos.

Esto, a nuestro entender, deja una serie de conclusiones y reflexiones sobre la mesa:



- Primera, cuando hablamos de la necesidad de soberanía, quienes dicen que hablamos de temas que no preocupan a la gente, es decir, que deberíamos hablar de la comida de la gente y no de cuestiones de soberanía, etc., quienes dicen eso quizá deberían pensarlo dos veces, o pensarlo o mejor, a la hora de hacer este tipo de afirmaciones.

- La segunda, la creación de una nueva categoría de personas trabajadoras: la de las personas trabajadoras pobres, que, aun teniendo empleo, no tienen garantizadas sus condiciones materiales básicas de vida.

Bizkaian, LGSa irabazten dauen persona batek, 15.875 euro 14 ordainsaritan, Estatu osoko atxikipenik altuena ordaintzen dau, Nafarroaren ondoren bakarrik. Pentsau daigun, esate baterako, LGSa kobretan dauen eta adinbako bat bere kargura daukan emakume batengan. Persona horrek hilean 1.134 euroko soldata gordina kobrauko leuke, eta horreetatik, PFEZren atxikipena kenduta, eta Gizarte Segurantzako % 6,47 inguruko kotizazioa kenduta, hilean 1.026 euro likidoko soldatea geratuko litxakio.

¿Quiénes estamos aquí creemos realmente que esta mujer podrá hacer frente, con ese dinero, a sus gastos diarios? (Recuérdese que hemos puesto en el ejemplo de que tiene un hijo o una hija). Todos y todas sabemos que eso es imposible.

Y una vez pagada esta retención, además, tendrá que pagar los tipos más altos del Estado también en su declaración de la renta. Ya que en esto sí, señora diputada, es verdad que tenemos uno de los tipos más altos del Estado. No en los de los tramos altos, pero sí en los bajos, ahí tenemos los tipos más altos.

Ante esto, la Hacienda de Bizkaia tenía la oportunidad, como prometió Álava, de modificar la tabla de retenciones sin más dilación, para paliar la retención y el perjuicio que estos trabajadores y estas trabajadoras tienen en su nómina mensual, pero ustedes han decidido que no, cómo no, porque han decidido dejarla pendiente de la futura reforma fiscal.

Benetan, gizarte-errealidadetik hain urrun egotearen ondorioz, erabat galtzen dozue hilearen amaierara ailegetako txarto pasetearen ikuspegia, eta pentsetan dozue personak lasai-lasai egon daitekezala, zuen erritmoei eta ezarten dozuezan denporei begira. EH Bildu aspalditik dabil erreforma fiskala eskatzen, besteak beste, errenta bajearen karga fiskala murrizteko (hori bai, Alderdi Popularreko jaun-andreok, aberatsen zerga-kargea be handituz, ez daigun ahaztu). Ba, tira, kamara honetan behin baino gehiagotan salatu dogun moduan, EH Bilduk norabide horretan arraun egin dauen bitartean, Gobernu Taldean ez dozue besterik egin, erreforma fiskalari buruzko eztabaidea denporan atzeratzea baino, zuei holan ondo joatzue, izan be, zuen ustez zerga-sistema progresiboa eta zuzena daukagulako, eta horretan doikuntza txikiren bat edo beste baino ez da egin behar.

Azaldu hori Lan Ministerioak berak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan LGSa kobretan dabela kalkuletan dauen 61.000 persona horreei (erdia baino gehiago Bizkaikoak dira, seguru), azaldu eiozue itxaron egin behar dabela eta gero geroakoak, ze, zuen ustez, gure zerga-sistemeak funtzinoau egiten dau, antza.

Pero, para eso, no cuenten con EH Bildu.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi. Y pasamos al turno de réplicas. Para ello, tiene la palabra el representante del Partido Popular Bizkaia, señor Pagadigorria Wicke.



El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, ea ba, nik aldendu egin gura dot tentazino zelanbait populista batetik: neurri hau egoera jakin batengaitik proponiduten dala eta guk horri etekina atera gura deusagula pentsetea. Ea, oso ados nago emon diran argudio askogaz, gaur hemen aitatu diranak. Arabere gehiago, ados egongo nintzateke, izan be, lanbide arteko gitxieneko soldatea ezartearen jatorrian ez egoan argi muga geografikorik ipini behar ete zan, hau da, egia da, Euskadin Espainiako batez besteko soldatarik altuena daukagu, egia da, baita 2023ko hitzarmenetan be, uste dot batez bestekoa % 4,3koa izan dala, eta Espainian, barriz, batez besteko igoera % 3,6koa izan da.

Hau da, egoera ekonomikoak eta bizitzaren kostuak, jakina, Euskadin elementu bat izan behar dau lanbide arteko gitxieneko soldata hori aztertzeko. Horrek, jatorrian, zentzuna eukan Euskadirentzat, eta zentzuna eukan kostu txikerragoko Espainiako beste eskualde batzuentzat. Baina egia da, hara, gutako inork ezin dogu pentsau lanbide arteko gitxieneko soldatearen errentei atxikipenen zerga-arintze hori ez dala justizia sozialeko elementua, eta lehenbailehen egin behar dala. Izan be, hemen oinarrizko aldea Administrazino honetan hori egiteko daukagun tresnea da. Arriskuan ipinten da, Ogasuneko foru diputadu andrea, proiekturen bat, Aldundi honetako sailen bat, neurri hori bihar martxan jartearren? Ba ezetz uste dot, ezetz uste dot.

Orduan, hemen eztabaidea da, lagundu deiegun errenta-tarte horretan dagozan personei, egin daben moduan, ganera, Foru Dekretu baten, bide batez esatearren, Euskadiko Alderdi Sozialistako jaun-andreok, Espainiako gainerako lekuetan, Foru Dekretu baten. Nik oso ondo ulertzen dot Ogasuneko foru diputadua, gauzak ondo egin gura ditualako memoria ekonomikoari jagokonez, eta hori eskertzekoa da. Gauzak ondo egitea beti da hobea txarto egitea baino, baina, kasu honetan, ezin da justifikau, kasu honetan, hori dinot, seguruenik araubide komuneko Dekretuak memoria ekonomiko barik egin dalako, hori seguru, eta gauzak ondo egitea ondo iruditzen jat, baina, kasu honetan, arin egin behar dira. Eta defendiduten izan dogun gauza bera da, alderdi honek defendiduten dauena. Guk Itunak emoten deuskun gaitasuna daukagu, Lurraldeari oso lotuta egoteko gaitasuna daukagu, eta aldaketak noiz egin behar diran jakitekoa.

Ezin da justifikau zerga-erreforma orokorrera arte itxaron beharra, atxikipen horreen murrizketak jasoko dituen Foru Dekretu Arauemoile bat ez egiteko. Eta ezin da justifikau, ze, gainera, errenta erabilgarria, aldaketa hori ikustea funtsezkoa dala uste dodan kontzeptua, errenta erabilgarria, gero, ekonomia sortzen dauen elementua da. Hau da, guk, eta danok dakizue, guk ez doguz bazterrean itxiko errenta ertainak, eta ez jaku ahaztuko lortu gura dogun zerga-jatsiera orokorraren kontzeptu hori be, zerbitzu publikoen ordainketea nahikoa izan daiten, baina hori da gure proposamena. Guk ez dogu aldatuko eredu ekonomiko liberalari buruz daukagun eretxia, globalizazinoari buruz daukaguna, ez. Hau justizia soziala da, justizia soziala. Guk guztiz ezaguna dan bide batetik heldu gura dogu justizia sozial horretara, eta, bide horretan, zergen jatsiera orokorra da elementuetako bat.

Baina honako hau zerga-erreformearen ganeko edozein eztabaida teknikoren aurrekoa da ia, bai PFEZrena, bai soziedadeen zergearena. Eta ez daigun ahaztu ia zazpi ekitaldiko epealdian bikoiztu egin dala Bizkaiko PFEZren zergearen bilketea. Hau da, egin daikegula, egin daikegula, eta horixe da kontua. Horregaitik ekarri dogu proposamen hau hona, eta horregaitik ez doguz onartu proposamen alternatiboak, erdibidekoak, horretarako datarik adierazoten ez euskuenak.

Barrero dinot, beti aurkituko gaituzue sen oneko neurri fiskalak gauzatzeko. Eta, jakina, lehenago be (eta amaitzen nabil), eta lehenago be esan deusot nonori, munduan jazoten diran gauza horreek, populismoei eta alderdien gorakadari buruzkoak, ba, aizue, ez





dogula gura horreek gora egiterik, batzuetan ondorioak daukiez, beste batzuetan kausa konplejuak daukiez, baina personakaz bat ez etortea izaten da horreetako bat.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Pagadigorria Wicke.

La representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Nik uste dot argi dagoala zein dan Gobernuaren jarrera eroste-ahalmen txikiagoa eta ahalmen ekonomiko txikiagoa daukien familien egoera ekonomikoa hobetzeari jagokonez. Uste dot gaitasuna dagoala aldaketa hori egiteko, eta ganera nahiko arin egin daitekeala, baina ez dagoala ez asmorik ez interesik.

Dana hurrengo erreforma fiskalaren esku itxi dozue ostera be. Nire ustez, persona batzuek ezin dira zuen azterketei begira egon. Eta esan dizue, tira, bigarren zatian ñabardura bat: “Tira, baina hau garatzen dan bitartean, Foru Arau proiektu bat aurkeztuko dogu”. Eta PFEZren zergadunek aitortpenik egin behar ez izateko atalasea handitzea aitatu dozue. Ondo, ados, eta zein da atalase hori, zein da atalase hori? Zergaitik ez dozue hemen ipinten? Gaur adostu geinkean, non dago atalasea, 14.000 horreetan, superinflazio-egoera batek aldaketa eginarazo eutsuela?, 14.400tan, 15.000tan, 17, 25? Zenbatekoa dago atalasea, zergaitik ez dozue hemen adierazoten, idatziz, zein zailtasun daukazue? Hori da zati ulergatxa.

Castrejón jaunak esan dau ez genduala ezer ipini aurkezteko edo ez aurkezteko betebeharrari buruz. Argi dago aldaketa hori egiten ahalegindu gaitkeezala, baina badakigu, era berean, zuek zerga-erreformaren mende itxiko dozuela, eta horregaitik, hain zuzen be, datorren astean bertan aldatu daitekean gai bat baino ez genduan azpimarratu, ezelako erreforma fiskal koiuntural, edo erreformatxu, edo barrikuspen, edo zerguraren mende itxi barik. Izan be, gura izan dozuenean, eta aldaketa garrantzitsuak jazo diranean, ez dozue ezelako arazorik euki Foru Dekretu Arauemoileak, preminazko Foru Dekretuak aterateko. Gogorazoko deusuet, 2020. eta 2021. urteak, zenbat Foru Dekretu Arauemoile aztertu behar izan genduzan hemen? Preminazko zenbat Foru Dekretu? Zenbat? Ezin konta ahala, ezta?

Baina orain, hara non, aldaketa hau ezin da bizkortasunez landu. Gura neuke zuek guri azaltzea, benetan, zein dan zuentzat atalasea, eta zein dan onartzeko zailtasuna, baita Alderdi Popularrak une honetan planteetan dauen proposamena be. Ez dot ulertzen zein dan arazoa. Zeri itxaron behar jako? Oztoporen bat dago, edo zeuena da onartu beharrekoa, Gobernu babesten dozen taldeok planteau dozuena, zehaztasun falta itzela daukana? Hori babestu behar da, “ez jakin” hori?

Zuek errenta kalteberak aitatzen dozuez, kalteberenak buruz. Zeintzuk dira, zuen eretxiz, errenta kalteberenak? Argitu egizue gero, hona igoten dozuenean. Zer dira, zuen ustez, errenta kalteberak? Izan be, atzo arte 14.000koak zirala esaten zenden. Uste badozue horregaz familia batek bere egunerokoari aurre egin ahal deusola, ba nik, benetan, ezetz uste dot, ezetz uste dot. Eta barriro dinot, jakina, beste neurri batzuekaz batera joan behar dau. Adierazpenaren aurkezteaz salbuetsita egoteagaz, jakina. Era berean, oso egokia litzateke zenbait kenkari eta hobari jaso ezin dabezan familia horreentzako zerga negatiboak egotea. Bai, jakina, baina badakit, hori orain proponiduten badogu, zerga-erreforma koiuntural horretara



eroango dala. Proponiduten deusuegun hau datorren astean egin daiteke. Prest zagoze hori egiteko? Bai ala ez? Oso erraza da. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea.

Jaun agurgarri hori, Pagadigorria jauna, eskerrak, eskerrak, ez dozula populistea izan gura dinozun. Zerga-gosea, sintoniarik eza, sena eta sensibilitadea... dakaruz hona. Oso pelikula polita. Prestazino-gosea. Hobeto orain, ziur. Izan be, argi dago, atzo, errepasso txiker bat eginez, topau neban Madrilgo Erkidegoan, urtean 15.876 €ko errenta gordina eukita, 50 urteko persona batek, begira, ez deusat ezer gehitu, bestelako erantzukizunik barik, lizentziaduna, 1.189 €ko atxikipena. Administrari-laguntzaile batek, 1.267,82 €koa. Orain neuk dinotsut: klasismoa. Neuk be ez dot populistea izan gura. Hori ulergarria da.

Bada, begira, gizarte-sentsibilitatea daukan alderdirik badago, hemen dozu 8 kideko talde apala. Horrek sensibilitate soziala dauka, hori dabil hemen buru-belarri, hainbeste gauzaren alde.

Bada, mamira joanda, zure proposamenei jagokenez, zureak funtsezko elementu biak daukaz, funtsezko elementu biak, hau da, atxikipenak kenduko doguz zoru bat ezarri eta gero, 17.000 euro. Eta zergaitik ez batez besteko gitxieneko soldatea Euskadin, edo zergaitik ez batez besteko gitxieneko soldatea Espainian, edo zergaitik ez Estaduko, lurralde komuneko, gainerako lurraldeetan dagoana? Ez dakit, ez dakit, niri iruditu jat, 17.000 euro horreei jagokenez, zure alderdiaren arabera Espainiako ekonomia hondatuko eban lanbide arteko gitxieneko soldata hori baino apur bat gorago joatea dala, eta, ganera, arrautza egosi bi ipintea gabetik, etxeko marka.

Orduan, nik, benetan, benetan, justizia sozialaz berba egiten badozue, begiratu honantz, mesedez, begiratu apur bat zure ezkerrean, eta hor topauko dozu zer dan justizia sozialaren defentsa. Ganera, datuakaz.

De Madariaga Martín andreari jagokenez, ba, ez dakit, zer lortu gura zenduen zuen zuzenketagaz, zergadunei diru-ilusinoa sortzea? Hau da, atxikipenez berba egiten dozu eta esaten dozu, "eta galdu egiten dabez". Zelan izan leiteke atxikipenak galtzea? Imajinatu itsulapiko bat daukazula, eta itsulapiko hori gela jakin batean daukazula, eta hilero 10 euro sartzen dozuzala han. Itsulapikoa galduko dozulako idea daukazu? Ez, ezta? Ogasunean atxikipena egiten dogunean, egin eta, ondoren, likidau egiten dogu. Jakina, boltsikoan diru gehiago euki deiela gura badozu, niri be bai, baina niri iruditzen jat boltsikoan diru gehiago euki behar dauela beste soldata batzukaz, ez 15.000 euroko apal bategaz, beste soldata batzukaz baino. Eta boltsikoan diru gehiago euki deiela gura dozu, kitu. Moneta sortzen gabiltz, ezta? Diru gehiago daukagu, gehiago gastau daikie.

Friedman izeneko batek horrelango gauzak esaten ebazan. Ronald Reagan dalako baten aholkularia zan, Thatcher dalako batena, Bush dalako batena. Baina eskola aparta itxi eban Txile izena daukan herrialde batean, Chicago Boys hareek, eta ez dira musika-taldea. Honezkero danok ezagutzen dogun haziaren egileak izan ziran. Ez dot bide horretatik jarraitu gura. Hau da, erabateko monetarismora bagoaz, galdu egingo gara



Jakina, oso polita da hona ailegetea, “ez, hemen, geu gara errenta txikerrenek dirua boltsikoan eukitea gura dogunak”. Bai, baina boltsikoan diru gehiago euki daien aberastasuna sortu behar da, eta aberastasuna sortzeko inbersinoak egin behar dira, eta inbersinoak egiteko, a posteriori, soldata onak eukiko doguz Hori defendidu behar dogu, soldata onak. Ganerakoa dominak dira. Euskal Herria Bildu taldeak eskatzen dauzan domina gehiago, erreforma fiskalaren kontzeptua be asmau dabelako. Beno ba, ederto, domina batzuk daukadaz. Baina zuek asmau dozuela esaten dozue.

Begira, hemen ez dogu ezer atzeratzen. Erreforma fiskala egin gura dogu, kamara osoa euki gura dogu kontuan erreforma fiskala egiteko, guzti-guztion ahaleginagaz. Baina ahalegin hori, lan hori, fundamentuagaz egin behar da, beste harek esaten eban lez. Halanda ze, espero dot erantzuna emon izana populismoa deitzen ez deutsazuen horri, ba populismoa deitzen ez badeutsazue, deitu egiozue X, baina...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Joan amaitzen. Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón.

A continuación, tiene la palabra la representante del grupo Nationalistas Vascos, la señora Díaz Insausti.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Muchas gracias de nuevo.

Uste izan dot argia izan nazela gure proposamenagaz, eta zuzenketa argia dala, baina badirudi ezetz.

Sarasola andrea, hainbeste kritika, baina zuen proposamenik ez dot ikusten, zuen taldeak ez dau zuzenketarik planteau. Guk badaukagu personarik ahulenak lehenesten dituan zuzenketa bat, baina hemen begira jarraitzen dogu, zuena ikusteko zain.

Alderdi Popularraren proposamenari jagokonez, nire lehenengo agerraldian esan dodan lez, eta aurkeztu dogun zuzenketegaz argi geratu dan lez, guztiz ados gagoz taula orokorra aldatzeko beharragaz, atxikipenaren ehunekoagaz, eta adierazpena aurkezteko derrigortasuna ezarriko dauen Foru Arau proiektua aurkezteagaz. Baina, tira, ez gatoz bat zure taldeak proponidu dauen zenbatekoagaz, 17.000 euro horreekaz.

Egia esan, kontua ez da bat ez etortea, kontua da ez dakigula zelan heldu zarien zifra horretara. Ez dakigu zergaitik dira 17.000, eta ez 16.500, edo 17.850, ez dakit. Ez dakigu zer azterketa edo zenbatespen egin dauen Alderdi Popularrak, ondorio horretara heltzeko. Dakiguna da Foru Aldundia daborduko hasi dala Bizkaiko errealdadea aztertzen. Esan dodan moduan, kalkuluak egiten dabil daborduko, fiskalidadea gure lurraldearen errealdadera egokitu ahal izateko. Sailak zerga-sistemea aldatzeko eta eguneratzeko konpromisoa hartu dau dagoaneko. Uste dogu norberaren neurrira erreformetea, ikuspegi orokor barik, ez dala ona. Eta, tira, horregaitik uste dogu gure zuzenketea hobea edo egokiagoa dala.

Elkarrekin Bizkaiari jagokonez, tira, bat gatoz gai hau aldatu beharragaz. Uste dogu ahalik eta arinen aldatu behar dala, eta uste dogu hori egiteko modurik onena zergak barrikusteko prozesuaren barruan –eta, esan dodan lez, prozesu hori hasita dago– lehenetasuna emotea dala. Izan be, tartea aldatzeak urtenbide partziala baino ez deutse emoten zergadunei, eta konponbide integrala emon gura badogu, Araua aldatu behar da. Esan dodan moduan, atxikipenak bakarrik aldatuta, ez dogu ezer lortuko. Konponbide orokorra emon gura badogu, elementu gehiago aldatu behar dira, eta Foru Arau baten bidez egin behar da.



Eta, De Madariaga andrea, zenbatekoa aitatu dozu, nire taldeak ea ze zenbateko planteetan dauen azpimarratu dozu, baina ez dot ikusten zuk, zeure proposamenean, zenbatekorik edo ezer planteetan dozunik. Zehaztubakotasuna aitatu dozu, baina zure zuzenketak preminazko barrikuspena baino ez dau planteetan, ez dau beste ezer proponiduten.

Para terminar, por tanto, como he dicho, creo que queda clara la postura de nuestro grupo acerca de este tema. Pensamos que, con nuestra enmienda, le damos al tema la prioridad que necesita y que merece, en el marco de la revisión fiscal ya iniciada. Creemos que, con el cambio que proponemos, y los que vendrán, y el firme compromiso que ha expresado la Diputación Foral, se consolidarán los pasos a favor de la innovación y la competitividad de la economía y la sociedad vascas para dar, desde la fiscalidad, una respuesta decidida a los retos actuales de la sociedad: el reto demográfico, la fiscalidad verde, la igualdad de género, etc.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Díaz Insausti.

Y, a continuación, tiene la palabra la señora Sarasola Lartategi, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

No es necesario analizar mucho nuestra norma del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para llegar a una conclusión clara. En efecto, las personas con rentas bajas pagan demasiado en relación a su capacidad, y las que tienen mucho, en cambio, pagan menos de lo que pueden. Y para ello aportaré dos datos:

Las personas a las que más se deduce de todas las deducciones que hay en la renta son precisamente las personas que se encuentran en los tramos altos, por una razón muy sencilla, y es que muchas de estas deducciones se pierden por falta de suficiencia de cuota por parte de las personas con ingresos bajos.

Y el segundo dato es que las personas con rentas modestas de Bizkaia son las que pagan los tipos de impuestos más altos con respecto a los territorios vecinos, mientras que las más ricas pagan menos con respecto a los territorios vecinos, son quienes pagan los tipos más bajos.

Por tanto, si es cierto que todos y todas buscamos un sistema tributario progresivo y justo, y, en principio, todos y todas hemos manifestado, al menos de palabra, que esa es nuestra intención, algunos y algunas quizá desde el punto de vista de la sensibilidad social, nosotros y nosotras más bien desde el punto de vista de la justicia social, pero si es cierto que todos y todas buscamos eso, pues entendemos que ya, y sin más demora, suprimir la retención y bajar los tipos impositivos a las personas que ganan el salario mínimo interprofesional no haría perder coherencia con los cambios que haríamos en la futura reforma fiscal. Todo lo contrario, sería una medida perfectamente coherente alineada en esa dirección.

Halanda be, proposamena egin dauen taldeko, hau da, Alderdi Popularreko bozeroaleak, bere berbaldian, zerga-gosea aitatu eta zergen jatsiera orokorra proponiduten dauenean, esaten deuskuenean fiskalidaderik onena existiduten ez dana dala, diruak jentearen boltsikoetan egon beharko leukeela, merkatuak, ganera, dana bikain erreguletan dauela..., ba ezin gara idea horregaz ados egon.



Ez dakit giza garapenaren indize izenagaz ezagutzen dan adierazlearen barri daukazu. Bada, Nazio Batuek erabili eta proponidutako adierazlea da, gizarte bat zelan garatzen dan ebaluetako balio dauena. Gizarte baten garapen-mailea aztertzen dau, hainbat arloren arabera: osasuna, hezkuntza, bizi-mailea... Eta, oraintsu, beste aldagai bat be sartu dau, gizarteak aztarna ekologikoari edo ingurumen-inpaktuari jagokonez daukan eraginari buruzkoa.

Bada, ez dakit Espainiako Estadia zein lekutan dagoan dakizun, Europako ganerako lurraldeakaz konparaut. Giza garapenaren indizearen ranking horren buruan dagozan herrialdeak Suitza, Norvegia, Islandia, Danimarka, Suedia eta Finlandia dira, hau da, zerga- eta gizarte-kontribuzinorako sistema zorrotzagoa apliketan dan herrialdeak, eta, hain zuzen be horregaitik, aberastasuna hobeto eta gehiago banatzeko sistema daukiena, non gitxien daukienei gehiago bueltetan jaken, jagokena, hain zuzen be, ez gehiago ez gitxiago, eta, ganera, ekonomiaren garapenean esku-hartze publikoa egiteko gaitasuna handiagoa dan. Eta, hain zuzen be horregaitik, sistema ekonomiko orekatuagoa eta erresilienteagoa daukie, merkaduak espekulazinoaren eta zerbitzuen sektorearen alde erabat egiten dauen herrialde batek baino.

Badinotsut, Espainia ez da, bere autonomi-erkidegoakaz, eta zuek gobernetan dozuezan erkidegoakaz, ezta hurrik be, ranking horren buru. Espainia 27. lekuan dago. Baina, gainera, indize horretara joaten bagara, baina, kasu honetan, desbardintasunaren eraginak zuzenduta, Europa iparraldeko herrialde horreek, zerga-sistema eta Gizarte Segurantzako sistema sendoa daukienek, lehenengo postuetan jarraitzen dabe, eta Espainia, barriz, 37. postura bajetan da, eta Europako beste herrialde bi baino ez daukaz atzean: Errumania eta Portugal.

Halanda ze, ulertuko dozue EH Bildu bat ez etortea zeuen fiskalidate-proposamenagaz, ez sistema ekonomiko sendoa eregiteko baliozko proposamen moduan, ezta gizarte-eredu bidezko eta aurreratua bermatzeko be. Neure aldetik, besterik ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi.

Finalizado el debate, someteremos a votación la Proposición no de Norma. Procederemos a votar cuando estemos todos y todas en nuestros asientos. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: Se han emitido 50 votos en total. Han sido 3 votos a favor; 30 votos en contra; 17 abstenciones. Por lo tanto, no se aprueba la Proposición no de Norma.

En este punto tenemos que hacer una pausa, un receso, tenemos que hacer un receso de 5 minutos, porque la Mesa se tiene que reunir para analizar una enmienda que va a afectar a un punto de los Plenos, para lo que les pido una pausa de 5 minutos.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señoras y señores, señora Diputada General, junteros y junteras, diputados y diputadas, retomamos el orden del día. En esta ocasión, con su punto 5°.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso,

5.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu,



del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000469](#))

**Autor:** Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo (GPV/BTP)

**Asunto:** Línea 4 de Metro Bilbao.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2024/0000469](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (14A)

**Expediente:** ([12/B/20/0000862](#))

eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000469SE](#))

**Egilea:** Gómez-Guadalupe García-Tejedor, Pablo (GPV/BTP)

**Gaia:** Metro Bilbaoren 4. linea

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000469SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (14A)

**Espedientea:** ([12/B/20/0000862](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, tiene la palabra el señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA TEJEDOR** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as, egun on guztioi.

Gaur, mozino bat dakargu kamara honetara, Metro Bilbaoren 4. linearen bultzadearen ganekoa. Bertan, linea hori bultzatzea ezeze, 4. linearen proiektua lehenesteko eta kamara honetan eztabaidabide ipinteko be eskatzen dogu.

Kontrolako azkenengo Osoko Bilkuran, Ahaldun Nagusiari, Etxanobe andreaki, Metro Bilbaoren 4. linea dalakoari buruzko itaunak egin geuntsazan. Guretzat oso gai garrantzitsua da, zeharo garrantzitsua gure lurraldearen etorkizunerako eta garraio-arloko kohesinorako. Metroa Errekaldera eta Iralara ailegetea, errebindikazio historikoa izateaz gain – gaur egun Metro Bilbaoren 4. linea izenez ezagutzen dogun mobikortasun-azpiegituran egituratuko litzatekeana–, auzo horreen konexinoa be bada, beharbada garraio-arloan Bilbon ahaztuenak eta bakartuenak, metroaren sare osoagazko loturearen bidez.

4. linea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egindako promesa luze eta betiereko baten historia da. Iragarkiak eta proiektuak ez diran falta izan, baina ziurtasunak, aldiz, hutsaren hurrengoa izan dira. 20 urte baino gehiago daukazan historia honetan, hasiera bate auzo horreen arteko trenbide-konexioa 3. linea modura iragarri zan, gero 4. linea izatera pasau zan, eta orain 5. linea be aurreratu egin jako, danetik jazo da.

Eta, bien bitartean, esan dodan moduan, berbak, iragarkiak, baita datak be, dana alperrik, Foru Aldundiko jaun-andreok. Izan be, ez dagoalako ezelako ziurtasunik. Esan deusuedan moduan, azkeneko Kontrolako Osoko Bilkurako gure itaunean ziurtasunak eskatu geuntsazan Ahaldun Nagusiari, haren erispidea jakin gura genduan, Arriola jaunak adierazotako Eusko Jaurlaritzaren erispideagaz bat ete etorren galdetu geuntsan, hau da, proiektu hau gauzatzen hastea atzeratzea Abandoko AHTaren geltokia martxan ipini arte, eta ez genduan ezelako erantzunik edo ziurtasunik jaso.

Ahaldun Nagusiak kamara honetan egindako berbaldia holan laburtu neike, ikusten dogunez: ez eban beste ezer esan, ezer ez esatea erabagi dabe. Eta nire Batzar Taldeak uste dau, jakina, 4. linea beharrezko eta ezinbesteko ardatza dala gure lurralde historikoaren etorkizunerako, eta, batez be, Errekaldeko, Iralako, Peñascaleko eta promesen zorabioan urte larregi daroetan beste gune askotako herritarrentzat.



Eta uste dogu beharrezkoa dala adostasuna lortzea proiektu hau bizkortzeari buruz. Ezin dogu ahaztu urte honeetan guztietan oso akordio garrantzitsuak lortu dirala erakundeetan, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusi honeetan, Bilboko Udalean. Akordio horreetan bat egin genduan hainbat indar politikok, baita gaur egun Foru Gobernu osotzen dabenean be, eta Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu geuntsen Metro Bilbaoren 4. linearen proiektua garatzeko eta horretarako behar ziran aurrekontu-esleipenak egiteko.

Une honetan, ez behin betiko proiekturik, ez aurrekontu-esleipenik. Mozino honen bidez, Metro Bilbaoren 4. lineagaz konpromisoa hartzea eskatzen deusagu kamara honi. Hainbeste berba eta iragarki alperrekoak ez izatea exijiduten dogu.

Gure itaunean azaldu genduan, Batzarretako talde honek ez dau gura 4. linearen proiektua AHTaren Abandoko geltokiagaz lotzea. Gure ustez, Abandogazko konexinoa, sartzea erabagi zenduena, atxakia ezin hobea izan da Metro Bilbaoren 4. linearen proiektua geldiarazoteko. Eta atxakia ezin hobea dinogu, AHTaren atzerapenean ezkutau gura dabelako, Iralako eta Errekaldeko metroa kajoian ixteko.

Horregaitik, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusagu Bilboko Metroaren 4. lineari jagokonez daukiezan eraikuntza-proiektua eta etorkizunerako planak kamara honen esku ipini daizala. Esan dodan moduan, uste dogu beharrezkoa dala horri buruzko adostasuna, une honetan zuek ez daukazuena. Herritarrek ziurtasunak behar dabezala gogorarazotera gatoz. Egia da, azken proiektu horretan proiektutako trazauaren arabera, Abandoko konexinoa, eta ez proiektuaren generako zatia, Abiadura Handiko Trenaren etorkizuneko geltokiaren menpe egongo litzatekeala. Momentu honetan 2033rako aurreikusita dago hori, baina badakigu holako aurreikuspenak zelakoak izaten diran, azkenean. Ordura arte harri bakar bat mobidu gura ez badozue, honako hau zer motatako proiektua ete dan galdetzen deusagu geure buruari. Baina egia da, era berean, konexinoa birplanteau egin daitekeala, eta bidearen amaiera, Irala eta Abando arteko loturea, baldintzatzea eragotzi daitekeala.

Eta barriro planteau daitekeala dinogu, jatorrizko proposamenean oinarrituta egindako informazio-azterlan guztiek aurreikusten ebelako Irala eta Moyua lotzea. Ibilpide hori historikoki defendiduten izan dabe bai Errekaldeko eta Iralako bizilagunek eta taldeek, batez be Línea 4 Plataformeak, bai alderdi honek, erakunde guztietan. Eta ibilpide hori, hain zuzen be, kamara honen konpromisoa baino ez da, 2018an egindako aho bateko akordioan hartua, eta Metroaren 4. linea etorkizunean handitzeko aukerea –Moyua eta Madril arteko konexioa bat eginez– zelakoa izango zan aurreikusiz.

Esan dogun moduan, Metroaren 4. linea osoa Abandoko geltokiaren menpe ipiniz Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak barriro sortu gura daben beste atzerapen honek konponbidea dauka. Baina borondate politikoa behar da, eta hori da hemen egon ez dana. Eta konponbidea daukala dinogu, azken proiektuaren Abandoko konexinoa trazauaren azken zatia baino ez dalako. Horrek ez leuke eragotziko proiektuaren generako zatia egitea, eta ez leuke eragotziko azken trazauaren zati hori barriro planteatea, kamara honek defendidu dauen moduan, eta gure alderdiak defendidu dauen moduan. Ez itxi bertan behera euskal erakundeen adostasunak.

Azken batean, eta 4. lineari jagokonez, Bilboko eta Bizkaiko herritarren interesak defendiduko dituan foru-gobernu bat behar dogu, eta ez daiala ahaztu Bilboko gune oso bat, Irala eta Errekalde, hain zuzen be, garraio-konexinoetan auzo bakartuenak diralako, eta iragarpenak eta ziurtasunak betetea eskatzen daben auzoak diralako, euren gobernuek 20 urte daroezalako hara-hona, ezer zehaztu barik.

Gure taldeak 4. linearen alde egiten dau, Iralako eta Errekaldeko metroaren alde egiten dau, baina uste dogu Abandogaz lotzea atxakia ezin hobea izan dala proiektu hau



urteerarik bako kalezulo batean sartzeko. Barrero dinot, erakundeek behin eta barrero eskatu deusuela, barrero dinot erakunde guztietan lortutako akordioak dirala, eta zuen konpromiso bat, antza danez bete gura ez dozuena.

Besterik ez, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

A continuación, tiene la palabara la representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Hasteko, gogora ekarri gura dot 2018ko apirilaren 18a. Egun hatan, kamara honetan bertan, aho batez onartu zan Eusko Legebiltzarrean lehentxuago onartutako proposamen bera. Proposamen horretan, BGPk eta Bizkaiko Foru Aldundiak Metroaren 4. lineari buruzko informazino-azterlana egiteko, partaidetza-prozesu bat bermatzeko eta 2019. urterako aurrekontu-partida bat esleitzeko eskatezen zan, Moyua-Rekalde eraikuntza-proiektua idazteko. Akordio hori Bilboko hegoaldeko auzoetako bizilagunek hainbat urtez mobilizatu eta burrukatu ondoren lortu zan.

Halanda be, behin akordio horren zati bat garatuta, esan daigun, inguruko bizilagunek adierazo eben informazino-azterlanak dezepzinoa eragin eutsela, ez ziralako kontuan hartu egindako 3.000 ekarpen baino gehiago, eta, horren ondorioz, euren eretziz, sortutako proiektua okerragoa da auzo horreek, Moyuatik igarota, Matikogaz lotzen ebazana baino.

Begien bistakoa da auzo horreek helgarritasun- eta konexino-arazo handiak daukiezala, bai Bilbogaz, bai auzoen euren barruan. Erdiguneaz loturea eta Termibusegaz loturea behar daben 70.000 personak halan adierazo dabe, partaidetza-prozesua egin baino lehen, egin bitartean eta egin ostean, baina hasierako azterketeak ez ebazan gai horreek kontuan hartu.

Uste dot interesgarria dala puntu horretatik abietea, gaur eztabaidatu, eta, gero, botau egingo dogun Alderdi Popularraren mozino eratorriari heltzeko orduan. Uste dot garrantzitsua dala, era berean, kamera honetara ekartea mozino honek eraginda Metroaren 4. linearen plataformeak emondako erantzuna. Izan be, gai batzuk aitatu dabez hemen ordezkatuta gagozan erakunde politiko guztietara bialdu deuskuen gutun baten. Lehenengo, gogorarazo deuskue plataformeak Moyuagaz konexinoa egitearen aldekoa dala, eta gogorarazo deuskue 2018an aho batez onartutako akordioa. Auzoak Abandogaz lotzen dituan trazaua inposaketatzat hartzen dabela zehaztu dabe, eta 2018an adostutakoa beteteko eskatu dabe. Eta testuinguru horretan eztabaidatuko dogu proposamen hau.

Alderdi Popularrak egin dauen planteamentua ikusita, uste dogu zuek, zeozelan, onartu egiten dozuela Eusko Jaurlaritzak planteautako trazaua, Abandogazko loturea, eta esan behar dot, horrek alde positibo batzuk daukazan arren –berbarako, daborduko dagozan azpiegiturak berrerabiltea–, ez dauela Bilboko hegoaldeko auzoetako biztanleek eskatutako konponbidea emoten.

Halanda be, eta plataformeak egindako eskaereari erantzunez, Elkarrekin Podemosen eraikuntza-proiektu hori amaitu arte itxarongo dogu. Espero dogu aurten bertan





jazotea hori. Eta arretagaz aztertuko dogu, emon beharreko pausu egokienak gure ustez zeintzuk diran baloretako. Ondo ulertu naizue, guztiz ados gagoz Metroaren 4. lineak ezin dauela atzerapen gehiagorik euki. Guk lan egingo dogu, lagundu egingo dogu, ahalik eta arinen izan daiten errealidadea, gure kideen bitartez egiten izan dogun moduan, baita Eusko Legebiltzarrean be, baina ulertu behar dozue hegoaldeko auzoetako bizilagunen beharrei erantzungo deutszen trazadura bat izan behar dauela. Gure ustez, garrantzitsua da auzo horreetako bizilagunen eskaera eta aldarrikapenei erantzutea.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Muchas gracias, señora presidenta. Egun on ahaldun guztiei, eta sare sozialen bidez segiduten zagozanei, eta Batzar hau egitea eta haren zabalkunde publikoa ahalbidetzen duzuen profesional guztiei.

Ostera be, Metroaren 4. linea dogu eztabaidabide dogu barrero kamara honetan. Talde Popularrak egindako interpelazino batetik eratorri mozino bat aurkeztu dauelako gagoz eztabaida horretan, hauteskunde-kanpaina guztietan lez, bide batez esateko. Hauteskundeak dagozan bakotxean, Alderdi Popularrak beti gai berberetara jotzen dau. Hau, beraz, errepikakorra da.

Lehenengo eta behin, 4. linea horregaz lotutako ekintza edo mugarri garrantzitsuenen kronologia bat egin gura dot, ze, proposamena egin dauenaren berbaldia entzunda, emoten dau ez dala ezer egin, eta hori ez da holan. Hainbat jarduketa egin dira, eta, horreekaz batera, baliabideak ipini dira, baliabideak eta borondate politikoa. Izan be, ziurtatzen deutsut borondate politikoa, eta Euskal Sozialisten lehentasun handienetako bat, garraio publiko jasangarria dala, batez be trenbide-garraioa, Metroa kasu honetan, lurraldearen lurralde- eta gizarte-kohesinorako funtsezko elementuak diran aldetik.

Baina, esan dodan moduan, mugarriak aitatuko dodaz. 2019ko maiatzean, ABEE bati esleitu jakon Bilboko metropoli-trenbidearen 4. lineari eta hegoaldeko eremuari buruzko informazino-azterlana idaztea, 2020ko bagilean amaituta egon behar ebana. 2019ko abenduan, azterlan hori amaitzeko epea luzatzea erabagi zan, herritarrek parte hartzeko prozesu bat gehitzeko, azterlanak emondako konponbidearen barruan herritarren eta beste interes-talde batzuen eretxia txertatu ahal izateko. Luzapen hori 2021eko abuztura arte luzatu behar izan zan da, COVIDagaitik, gogoratuko dozuen lez.

Azterlan horrek zenbait gauzatze-alternatibak aurkeztu ebazan, eta herritarrek horreen ganean aukeratu beharko eben. Partaidetza-prozesua 2021eko zezeiletik maiatzera bitartean egin zan, eta 1.200 bizilagun inguruk parte hartu eben.

Prozesu hori amaituta, eta kontsultea ez zanez loteslea, ETSk zehetasunez garatu behar eban konponbiderik egokiena, auzotarren ekarpenak eta zenbait alderdi tekniko eta ekonomiko kontuan hartuta. 2023ko martian, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, ETSren bitartez be bai, Bilboko metropoli-trenbidearen 4. linea eta hegoaldeko eremua eregiteko proiektua egiteko kontratua esleitu eban.



Eta, diputadu andreak aurreko Osoko Bilkuran adierazo eutsun moduan, zuek, proposamena egin dozuenok, hainbat gauza ahaztu dozuez. Lehenik eta behin, trenbide-arloan eskumenak daukazan erakunde-eremua, Eusko Jaurlaritzak. Eta bigarrenik, eregitze-proiektu hori idazteko kontratua gauzatzeko epea. Dakizuen lez, hilebete batzuk falta dira horren ondorioak ezagutzeko. Baina badirudi Alderdi Popularrati ahaztu egiten jakola. Izan be, leitekeana da ordurako hauteskundeak egin izana, eta orduan ahaztu egingo litxakizue gai hau, hauteskunderi begira erabilteko.

Begira, eraikuntza-proiektua amaitzen dabil, eta, beraz, gura beste bider berba egin daikegu hemen 4. lineari buruz, baina ez dauka zentzunik egutegiari, epeei edo finantzaketari buruzko erabakiak hartzeak, zure mozinoan planteetan dozuen moduan, oinarri tekniko egokirik izan barik, eta, barriro dinot, aitatutako eraikuntza-proiektua ezagutu ostean adierazoko da hori.

Halanda ze, zure mozinoak planteetan dituan oharrak, itxidazue esaten, ez dira beharrezkoak. Izan be, proiektua idatzita eta amaituta dagoanean, horreei guztiei, eta gehiagori, behar dan erantzuna emongo jakelako, eta, nire ustez, proposamen oportunistak honetan eskatzen dozuna baino zehaztasun sano handiagoagaz. Ze, ez euki zalantzarik, gai honetan zeresana daukien erakundeak alkarregaz koordinatuko dira, 4. linearako alternatibarik onena sustatuko da, eta hori faktore askoren arabera izango da, batez be teknikoak, eta hemen eta orain ezin dira zehaztu. Eta, jakina, proiektua egutegi batez eta kronologia batez aurkeztuko da, foro eskudunean.

Horregaitik, oposizioaren lanagazko eta haren bultzada- eta kontrol-lanagazko dogun errespetuaz harago, une honetan ez dogu holango proposamenik babestu behar. Izan be, proposamen honek populistak dira, errealak baino gehiago, ez deusek herritarrei ezer emoten, eta nahastea baino ez dabe eragiten. Itxi lanak amaitzen, emoitzen arabera herritarren eskaerak beteteko erabaki egokienak eta eraginkorrenak hartzeko.

Hara, ezagun dozue Enrique Antolín dalako baten izena? Agian batzuk ez, beste batzuk seguru asko bai. Enrique Antolín Eusko Jaurlaritzako sailburu sozialista bat izan zan, eta 1988an, beste batzuen babesagaz, baina ez guztienagaz, Bilboko Metroa egiten tematu zan. Zergaitik joan naz hain atzera? Euskadiko Alderdi Sozialistaren zeregina aldarrikatu gura dodalako Euskadiko garraioaren arloan, arduradun sozialistak egon diran edo etorkizunean egongo diran lekuetan garraio publiko jasangarria bultzatuko da ta. Aldirietako linea eskualdatzea, Euskal Y-a bultzatzea, Zorrotzan tren lurperatzea eta hamaika ekintza zehatz, Bilboko Metroaren 4. linea barne, sozialisten bultzadeagaz joango dira aurrera.

Obra hau konplejua da, ez da egun batetik bestera egiten, eta erabagi sendo eta ondo pentsauakaz egin behar da, eta ez inprobisazioakaz.

Azkenik, Metroaren 4. linea hori erabiliko daben herritarrakana jo gura dot, azpiegitura hori sustatzeko konpromiso sendoa dagoala bermatzeko, kamara honetan dagoaneko adierazo dan moduan, baliabideakaz, eta ez literatureagaz. Izan be, oposiziotik askok arin egiten dabe dana, momentutxu baten, baina, gero, gobernetan dabenean, eta herritarrentzako gauzak egiteko baliabide ekonomikoak bideratu behar dabezanean, murrizketak egiten ditue, garraio publiko jasangarria lehenetsi barik. Ez da gure kasua, sozialistok garraio publiko jasangarrian inbertidutearen alde egiten dogun apustua argia, sendoa eta egiaztagarria da.

Besterik ez. Eskerririk asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno.



Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

En primer lugar, quiero saludar al nuevo Diputado de Infraestructuras, Sr. Alzaga Sagastasoloa. Estoy seguro de que tendremos tiempo de conocernos, de debatir e, incluso, de llegar a acuerdos, también en esta Comisión de Infraestructuras. Bienvenido.

Hoy debatimos la moción derivada de la interpelación realizada en el Pleno de Control sobre la línea cuatro del Metro de Bilbao. El Partido Popular ha presentado una moción de tres puntos, para su aprobación:

La primera, que se establezca un calendario de actuaciones para la ejecución de la línea cuatro de Metro.

La segunda, para que las obras comiencen lo antes posible, con independencia de que el Tren de Alta Velocidad llegue o no a Bilbao.

Y la tercera, para que la Diputación presente en las Juntas Generales el proyecto constructivo y el calendario de actuaciones de esta línea 4 de Metro.

Estas tres propuestas que pueden considerarse de interés, siempre es interesante conocer las intenciones del Gobierno Foral. Es decir, saber qué quieren hacer PNV y PSE con la línea 4 del Metro. Pero en estos momentos, más que saber qué es lo que quiere hacer el Gobierno Foral, lo que nos preocupa en mi grupo, lo que en EH Bildu consideramos realmente imprescindible, es saber si las aportaciones realizadas por los agentes sociales y la ciudadanía de Bilbao van a ser aceptadas y materializadas.

La potencialidad de esta línea cuatro es muy clara, es una línea necesaria, es una línea de Metro, y no creo que nadie discuta eso. Y creemos que el objetivo debe ser el siguiente. Primero, la conexión de los barrios del sur de Bilbao con el centro y las líneas uno y dos. Pero, y ese es el segundo objetivo, hacerlo bien, y subrayo, bien, con respecto a lo que nos piden desde esos barrios. En su intervención de hoy, el Sr. Gómez-Guadalupe se ha referido a la solución y al replanteamiento del recorrido, pero lo cierto es que eso no aparece en la moción que hoy se presenta, los puntos son los que yo he mencionado antes.

Por eso, las discrepancias podemos encontrarlas en las formas de hacer, en el trayecto establecido y en los condicionantes que han surgido. Para dilucidar estas cuestiones habría que crear un debate serio, profundo y participativo, pero lo cierto es que los partidos gobernantes lo han evitado hasta ahora.

2021eko martian, ibilbide txiki bat egin da hemen, baina, tira, artean gure bizitzen esparru guztietan maskarea erabilten genduanean, “partaidetza-prozesu” bat egin zan, eta komatxo artean esango dot, hau da, 6 aurkezpen birtual egin ziran ZOOM plataforman, eta nik parte hartzeko suertea euki neban, eta postontziak ipini ziran Bilboko 5 barrutiko-udaltegitan eta Alonsotegiko udalerrian, Kultur Etxean, hain zuzen be. Jasotako ekarpenen artean, 1.200, Jerónimo Moreno jaunak aitatu ditu, jakina, baina ez dau aitatu, ganera, 3.378 formulario egon zirala, eta Iralako eta Errekaldeko herritarren ekarpenakaz izenpetu eta entregau zirala.

Horreetan, balorazino hau nabarmendu zan:



1.- Alternatiba bakarra aurkeztu da, FEVERen trazaduraa baino ez da-ta proponidu baita. Erabagia “funikularrak bai edo funikularrak ez” zan. Moyua-Errekalde ibilpidea nahita ahaztu zan.

2.- Fluxuak, erabilera-profilak eta abar estatistikoki aztertzeke eta horreen ganeko datuak emoteko informazioa baino ez da jaso.

3.- ETSk, Euskal Trenbide Sareak, eskatu eutselako egin dau prozesu hori, esan deusuedan lez, behartuta, Gasteizko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusi honeetan onartu zalako. Baldintza-agirietan argi eta garbi aitutzen da derrigorrezkoa dala inguruko herritarren alkarteakaz hartu-emona eukitea, baina ez zan holangorik egin, gonbidapen e-mail bat bialtzea nahiko dala jotzen ez bada behintzat.

4.- Iñaki Arriola jaunak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak berak, hasiera-hasieratik argi itxi eban prozesu hori ez zala loteslea izango.

Hori da kritikari jagokon zatia. Baina, ostean, proiektua hobetzeko ekarpen batzuk azpimarratu ziran: 4. linearen trazaua San Mamesetik igarotea, edo zuzeneko eta lurpeko loturea eukitea Basurtu eta San Mameseko geltokiakaz, intermodalagaz eta Renferen 1. eta 2. lineakaz. Iralako sarbideak hobetzea, eta aho bat San Adrian/Miribillara bideratzea. 3.- Errekalde plazan sarbide-ahoa birkokatzea eta, elementu mekanikoen bidez, goi-auzoetan metro-aho horretara heltzea erraztea.

Eta formulario horreek sinatu ebezen 3.378 persona horreek esaten eben, zintzotasunez, aurkeztutako alternatibak ez jakezala onenak begitantzen, baina onartu egin leukieela “A” alternatibea, funikularrak, azaldu barri deusudazan euren ekarpenei benetan kasu egiten bajaken.

Orain, ia urte bi geroago, ez dakigu jarduketa horreek guztiak kontuan hartzen dabilzan, eraikuntza-proiektua egiteko; beraz, normala da 15 hilebeteko idazte-epa amaitu ostean aurkeztuko danaz ez fiatzea. Izan be, esperientziak esaten deutse, eta esaten deusku, dagoeneko idatzita dagoan eraikuntza-proiektu baten gainean egin daitekezan aldaketak hutsaren hurrengo dirala, hutsa ez esatearren.

Halanda ze, gaur aurkeztutako mozinoa, gure ustez, Bilbo hegoaldeko auzoetako bizilagunek talde politiko guztiei planteau deuskuezan parametroetatik kanpo dago. Gaur hemen egin dan irakurketak zerikusi gitxi dauka Rekalde, Irala, Miribilla, San Adrian, Basurtu eta Zorrotzak 2021ean adierazo euskuenagaz. Eta, lehen beste proposatzaile batek hemen esan dauen moduan, aurreko astean be bialdu deuskue idatzi bat, alderdi horreek azpimarratuz.

Ahaldun Nagusiak aurreko Kontroleko Osoko Bilkuran esan ebanez, eta komatxoak zabaltzen dodaz, “serioak izan gaitez, eta hartu beharreko erabagi guztiak hartuko doguz. Oraindakarren ez dogu eregite-proiektua ezagutzen”. Eta hori da arazoa, hori da gure kezkea, Bizkaiko Foru Aldundiak, obra horren % 50 batera finantzauko dauenak, ez dakiela eregite-proiektu horretan zer egongo dan jasota, edo, jakitekotan, ez dauela adierazoten, orain hilebete euki zenduan-eta aukerea.

Jarraipen zehatzik ez egitea, inor ez egotea hegoaldeko auzoetako eragile eta auzokideakaz hartu-emonean, dagozan aurrerapenen barri emoteko, eta erabateko mututasuna egotea idazketa-fase osoan. Hori ez da seinale ona.

Segunda mención: en cuanto al impulso del compromiso, usted habló solo de la financiación de la línea 5 y de impulsar la línea 4. Impulsar, eso no es decir gran cosa. Se



espera un trabajo más proactivo de la Diputación Foral de Bizkaia para impulsar los proyectos, y así lo dije en el Pleno anterior, y creemos que lo que se está haciendo es lo contrario, es decir, alargar y retrasar todos los proyectos de manera reactiva.

Y el tercer y último punto. Hasta que no se materialice el proyecto no se puede saber qué impacto tendrá el Tren de Alta Velocidad. ¿Cómo que no lo sabemos? Ya se sabe que lo hay, lo sabemos todos y todas. Por todo ello, creemos que, a pesar de la lógica institucional de la moción presentada hoy, no responde a las demandas y expectativas de los barrios del sur de Bilbao y por eso EH Bildu no apoyará la moción. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted , señor Méndez Urigoitia.

Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a de nuevo a todos y todas.

Mozinoa azaldu da daborduko, eta ez dot beraren eukia errepikauko. Aprobetxau gura dot, hori bai, guztiz argi ixteko Foru Aldundiak metropoli-trenbidearen zerbitzua garatzeagaz, hedatzeagaz eta zabaltzeagaz, eta, zehatz esanda, 4. linea garatzeagaz, hedatzeagaz eta zabaltzeagaz konpromisoa daukala, konpromiso argia, eta konpromiso hori zalantza guztietatik kanpo dagoala, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan, duda barik, trenbideen arloan eskumena daukan administrazioa da ta. Izan be, Ahaldun Nagusiak azken Kontroleko Osoko Bilkuran azaldu dau daborduko, Agintaldi Planean be, Bizkaia Denontzat izenagaz aurkeztu dan horretan, jarduera batzukaz, jarduera askogaz. Eta jardueretako batean Metroaren 5. linea, eta, era berean, 4. linea beren-beregi aitatzen dira, zera adierazota: “Metroaren 4. linearen garapena be bultzatuko da, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan”.

Konpromisoa, beraz, guztiz argia da. Baina hori ez da barria, edozein proiektutan eta Bilboko, gure lurraldeko, metropoli-trenbidearen zerbitzuaren edozein hedapenetan eta handitzetan izan dan moduan. Hori holan izanda, apur bat harritzen nau, edo asko harritzen nau, Foru Aldundiari ildo jakin batean jarduteko eskatzea beharrezkoa ete dan, egutegieng plangintzagaz eta bestelakoakaz.

Nire ustez, begien bistakoa da, ez neuk dinodalako, herritarrek holan autortzen dabelako baino, eta herritarrek proiektu honetaz, Metroaren 4. lineaz, daukien interesa erakusten dauelako. Izan be, garrantzi handiko proiektua da Metroa hedatzea. Eta hartutako erabagietako baten aurkezpena egin dan guzti-guztietan, mugarriren bat bete danean, eta, ziur, hemendik aurrera beteko diranetan, zalantzarik ez daukat komunikabideen aurrean eta, orokorrean, publikoaren aurrean aurkeztu dala, eta mugarri horreek, idea horreek edo erabagi horreek betetearen barri emon dabela komunikabide guztiek, baita gune jakin batzuetan eztabaidea sustatuz be. Esaterako, irratian, lantzean behin bada be.

Eta, jakina, beti biztu da herritarrengan interes handia, eta herritarrak informau egiten dira. Informazioa hartzen dau, eta epeei buruzko zehaztapen batzuk lortzeko interesa be badauka. Nik ulertzen ez dodana da nori bururatuko jakon hemen, gure ondoan, une honetan, gure ondoan jesarrita dagozan jaun-andre honeei, Foru Aldundia eta Foru Gobernu osatzen dabenei, nori bururaten jakon eskatu behar jakela, edo bultzadea emon behar jakela, Metroa garatzeaz eta hedatzeaz arduratu daitezkan. Nire ustez, benetan, mozinoa aurkeztu dauen Alderdi Popularrak berak be ez dauela uste ezer eskatu behar jakenik.



Oso proiektu garrantzitsua da, herritarrengan interes handia sortzen dauena Bilboko auzo jakin batzuei zerbitzua emoteko, batez be tren bidezko garraio publikoari dagokionez, eta, zalantza barik, Aldundiaren konpromisoa ezin argiagoa da horri jagokonez.

Beste kontu bat da, baten batek gogoratu dauen moduan, agian eztabaida politikoan sartu gura dala, eta momentu honetan, hauteskunde aurreko garaian, eztabaida politikoan, agenda politikoan, tarte txikiren bat irabazten ahalegindu.

Egia dan beste kontu bat da, egia da, era berean, 4. lineak izan behar dauanaren diseinuak, beraren trazadurarik oinarritzeko, aldatzen izan dala, edo asko eztabaidatu dala denporan zehar. Hasieran beti berba egin da zerbitzua Errekalden emotez, zalantza barik, baina ez zan berba egiten, beharbada, Bilboko hegoaldea osotzen daben auzo guztiez, Errekaldez berba egin zan, Irala be sartu zan.

Gaur egun aztergai dan diseinuak, egiten dabilenari jagokonez, dagoaneko eraikuntza-proiektua martxan dago. Bilboko hegoaldea, Zorrotza eta Basurtu lez definitu daikeguzan gainerako auzoetarako konponbidea txertatzen dau, eta Alonsotegin hasita, Alonsotegitik Bilbo hegoaldeko auzo horreetara (Zorrotza, Basurtu, Errekalde, Irala) bidaiari guztiak sartzea ahalbidetzen dauen urtenbide bat dauka, Bilboko erdiuneagaz lotzeko. Eta aukerea emoten dau Enkarteritik, Renferen Aldirietako C-4 linea erabiliz Alonsotegira heltzen diran bidaiariak be sartzeko.

Nire uste apalean, ni ez naz arlo horretako teknikaria, eta ez naz aditurik handiena, baina nire uste apalean, trazadura ona da, jakina, eta hobe da aurretik kontuan hartu diranak baino. Izan be, benetan, trenbidea hartzen da bidaiarien garraio publikoko zerbitzua emoteko ardatz egiturazailatzat, Enkarterriko herritarrak, zerbitzuaren maiztasunari jagokonez, Bilboko erdiunera askoz be baldintza hobeetan hurreratzea ahalbidetzen dau ta.

Esango dozue, beharbada, nire eretxiak ez dauela asko balio, ez dalako aditu batena, baina, zalantza barik, ez da onargarria urtenbide hori egikaritzea atzeratzeko atxakiaren bat bilatzeko asmoagaz diseinatu dala adierazotea. Ez da ezelan be holan, Foru Aldundiak ez dauka ezelako interesik ezer be atzeratzeko. Eta, lehen esan dodan lez, nire uste apalean, urtenbide ona da.

Ze egoeratan gagoz gaur egun? Bada, dagoaneko azaldu dan lez, eregite-proiektua idazten dabilta. 2019tik aurrera hainbat lekutan emon dira pausuak, informazino-azterlanetan, herritarren parte-hartzean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean, eta une honetan ez dakit gitxi gorabehera 5 hilebete diran, 5 hilebete, bai, gitxi gorabehera, hasiera batean eraikuntza-proiektuaren idazketa entregau ahal izateko.

Ziurbakotasunik dago? Mozinoa ustezko ziurbakotasunetan oinarritzen da. Nik ez dakit ziurbakotasunak deituko neuskien, baina, tira, autortu beharra dago, duda barik, oraindino badagozala zehaztu beharreko alderdiak, konpondu barik daukaguzanak edo zehaztu barik dagozanak. Gaur egun, egia esan, gutako inork ezin dau ziurtatu zenbatekoa izango dan linea hori eregitearen kostu osoa, obrak noz hasiko diran, zenbat iraungo daben, Abiadura Handiko Trenaren Abandoko geltokiak zelako eraginik eukiko ete dauen. Eta, ondorioz, argi dago une honetan ez dala bidezkoa aurrekontuko diru-izendapenei buruz berba egitea, alderdi horreek zehaztu beharrekoak dira ta. Baina hori Ahaldun Nagusiak azaldu eban itaunari emondako erantzunean, orain 15 egun pasatxo, edo orain dala hiru aste.

Egia esan, ez dot ulertzen mozinoa planteetako beharra, autortu beharra dagoalako gutako inork, une honetan, ezin dauela bermerik emon, zentzun teknikoagaz, gai horreei guztien erantzuni buruz: zenbat kostauko dan, noiz hasi daitekezan obrak eta zenbat iraungo daben obrek. Orduan, azalpenak, benetan, interpelazinoan uste dot sano argiak izan zirala, ondo azaldu zan zein dan egoerea, eta ez dogu mozinoa ulertzen.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka.

Pasaremos al turno de réplicas. Para ello, tiene la palabra el señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor, representante del Partido Popular Bizkaia.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias, señora presidenta, eta egun on barriro.

Orain arte eztabaidatu dana apur bat aztertuko dot. De Madariaga andrea, bat nator zugaz, hau Errekaldeko, Iralako auzoen aldarrikapen oso garrantzitsua izan dala, Administrazio publikoek auzo horreekaz zorra daukiela, baita konektetako beharra be. Esan deustazu ea ehuneko ehunean defendiduten dogun Foru Gobernu honek azken trazauari jagokonez egiten dauena. Nik esango deustut zein izan dan beti Talde Popularraren erispidea, guk beti gurago izan dogu Irala eta Moyua lotzea, Bilboko erdiuneagaz loturea egiteko modu lez. Gure eretxia argia izan da beti. Maila nazionalean zergen jatsierearen alderdi moduan ezagutzen gaituen lez, Errekalden gure jarrera zein dan argi daukiela ziurtatu ahal deustut, eta, hain zuzen be, hemen eskatzen doguna da proiektu hori Abandoko AHTaren geltokiaren baldintzapean ez jartea.

Eta Jerónimo jaunak, Euskadiko Alderdi Sozialistakoak, esandakoari helduko deustagu. Apur bat harrিতa geratu naz, izan be, benetan pentsetan dozu Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzan, harro egon daitezkeza eta Metro Bilbaoren 4. lineagaz egindako lana errebindikau daikiela? Zuk zeuk gogoratu dozunez, 1988an hasi zan Metro Bilbaoren 4. lineaz berba egiten, eta gaur, hondino, ez dago harri bakar bat be, trazaua aldatu da ez dakit zenbat bider, 3. linea, 5. linea aurreratu da. Benetan, Jerónimo jauna, harritzen nozu baieztapen horreekaz.

Baina, era berean, harritu egiten nozu hona etorri eta elektoralismoa, oportunistoa eta populismoa leporatuta, kamara honek 4. lineagaz daukan konpromisoa gogorazoteagaitik. Eta, nire ustez, kontua da zu ez zarala gogoratzen, kamara hau eratzeko foru-hauteskunde kanpaina egon zanean, zure alderdiko Ahaldun Nagusi izateko hautagaiak, kanpainaurrian ez eze, hauteskunde-kanpainan be, 4. linea laster gauzatuko zala aurrera esaten ebala, eta, ganera, zure konpromisoa zan, Matikogaz loturea izatea, ez dakit gogoratzen dozun, Jerónimo jauna, baina espero dot Laespada andreari ez esatea gaur hemen niri esan deustazuzan gauzak.

Gainerako taldeei jagokenez, Bilduren kasuan, bat nator zuekaz, partaidetza-prozesuan auzotarrek egindako alegazioak alde batera itxi dirala, hori argi dago. Eta, jakina, alderdi batzuk horretan ez zara nigaz ados egongo, beti euki dogu kontuan Errekaldeko eta Iralako herritarren erispidea.

Eta, itaunetik eratorritako mozino honen alde ez egiteko emon dozuen justifikazioari jagokonez, uste dozuelako ez jakela ezer eskatu behar, harrigarria begitantzen jat 2024an, gitxienez 20 urte daroaguzala 4. lineako proiektuei buruz berba egiten, gagozan moduan egotea. Behin betiko proiektu barik gagoz, aldi baterako konpromiso politiko barik gagoz, Bilbo hegoaldeko auzoak ez dagoz pozik, eta auzo horreek, Bilbo barruan ezeze, Bizkaiko uriune garrantzitsuenetako bat be badira, une honetan trenbide-loturarik ez daukiena. Zuen ustez, ez da beharrezkoa guk eskaria egitea, egindako ibilpidea ikusita, hau da markea gero!

Edozelan be, eta, hori bai, jasota itxi gura dot, hemen ikusi da Bizkaiko Foru Aldundiak ez daukala anbizinorik eta benetako konpromisorik, ez dauela ezelako ziurtasunik emon, eta ez dauela emon gura, aitatzen dabena ikusita.



Talde Popularrak argi itxi gura dau Metro Bilbaoren 4. lineagaz seriotasuna behar dala, proiektua kamara honetara ekarri behar dala, benetako bultzadea behar dala, eta, jakina, ezin dala Abandoko AHTaren geltokiaren baldintzapean ipini.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

La representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Nik barrero esango dot gure taldeak Errekalde hegoaldeko auzoetako bizilagunakaz konpromisoa daukala. Uste dot Gobernu honetako kideei eskaria egitea guztiz beharrezkoa dala, nondik gatozen ikusita, uste dot argi dagoala borondate politikoa faltetan izan dala, eta hori argi eta garbi esan behar da, faltetan izan ez dana etekin politikoa da. Eta uste dot Gobernua sostengatzen daben taldeetako batek be ezingo leukeela irakaspenik emon Metroaren 4. linea dala-ta atera dan hauteskunde-etekin politikoari buruz.

Eta baietz dinot, garrantzitsua dala Gobernu honetako kideei eskaria egitea, atzerapen ugari eta ez-beteteak ugari ikusi doguz eta. Izan be, informazio-azterlana Metroaren 3. linea amaitu eta 30 urte baino gehiagora egin da. Hau da, uste dot Gobernu honetako edozein kideri eskaria egitea zeharo beharrezkoa dala, eta, hain zuzen be, atzeratzen jarraituko dala, aurrekoaz gainera AHTa Abandora heltzeko obrea amaitu beharra gehitzen bada. Hara, zuk 2033 aitatu dozu. Ikusiko dogu, ikusiko dogu noiz ailegauko dan. Beraz, bidezkoa dala uste dot.

Eta uste dot bidezkoa dala, era berean, galdetzea zergaitik atzeratzen diran beti Bizkaiko zonalde degradauenak lurraldearen aldetik kohesionetan dabean azpiegiturak. Eta uste dot egokia dala galdetzea, baita be, zergaitik atzeratzen diran lurraldearen kohesinoa eta egituraketea ekarten daben azpiegiturak biztanleek errenta txikiagoa daukien eremuetan, zergaitik atzeratzen dan hegoaldeko auzoetan. Galdera horri erantzutea garrantzitsua dala uste dot. Baina ez da onargarria Bilboko erdiunera lehenago heltzea Getxotik, Errekalde auzotik baino. Hori ez da onargarria.

Orduan, uste dot garrantzitsua dala kontuan izatea, hain zuzen be, Metroaren 4. linea garatu behar dala, baina kontuan hartuta trazadura jakin baten aldeko plataformek egindako ekarpenak. Lerma jaunak, ganera, trazadureari buruz esan dau baeitekeala beste trazadura egokiago batzuk egotea, ederto. Eta trazadura egokiago horreek, noren interesekoak dira? Errekaldeko herritarrena, edo alderdi politiko jakin batzuen beste interes batzuen? Izan be, ez dau balio zuk, Lerma jauna, gaur hemen egin dozunak, kontra jarteak.

Ni harrituta itxi nau zure berbaldiak, ostera be gune batzuetako eta besteetako bizilagunak alkarren aurka ipinten ahaleginduz. Hori egin zenden Metroaren 5. linea agertu zanean, Errekaldeko herritarrak eta Galdakaoko herritarrak aurrez aurre ipini guran, eta orain Errekaldeko herritarrak eta Enkarterriko herritarrak aurrez aurre ipiniko doguz, primeran. Ezin dogu aztertu zein dan bizi-egoerea, eta ze beharizan daukazan Enkarterriko eskualdeak, alde batetik? Ze, argi eta garbi esan dogu behin baino gehiagotan, bai behintzat hemengo gure taldeak, oso garraio-zerbitzu eskasa daukagula. Ondo da, baina aztertu daiguzan Errekalderen beharrianak, orain dala 30 urte baino gehiagotik ezagutzen dozuez-ta, 30 urte





baino gehiago. Halanda ze, nire ustez, garrantzitsua da Foru Aldundi honetako zein Eusko Jaurlaritzako gobernuak auzotar horreek daukaten zor historikoa kitutea.

Neure aldetik, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

A continuación, tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo, eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Bigarren txanda honi erantzunez, batez be proposamena egin dauen Talde Popularrari erantzunez, guk esan eta egin egiten dogu, ez dogu beste barik esaten, esan eta egin egiten dogu, eta zu harritu egiten zaitu, zure ustez hau da markea gero. Nik, benetan, hau Einsteinena da, zuk zeuk esan dozun lez zergen jatsierearen aitzindariak zarie, eta gehien gastetan dozuenen aitzindariak be bai. Metroaren 4. linea, eta 5.a, 6.a eta 25.a egingo zeunkiez, holan, paper bategaz eta boligrafo bategaz, eta batez be, barriro dinot, hauteskunde-garaietan. Gero, ez hainbeste, gero, transferentziak egin behar diranean, gogoan daukat gaur bertan, lagapen bat amaitu danean, ETSrentzat egindako Eusko Jaurlaritzarako aldaketa bat, ETSk burutu daian Bilborako AHTaren inguruko proiektu oso garrantzitsu bat. Hori da politikoki eta baliabideak apustu egitea, garraio publikoak, batez be trenbideak, aurrerapen handia euki daian Bilbon, Bizkaian.

Zergaitik joan naz 1988raino? Nik lez, herritar gehienek badakielako azpiegitura horreek ez dirala egun batetik bestera egiten, ez diralako egiten guk, hemen, makila magiko bat aldatuz, atzamarrakaz klask egin eta esanez, tira, orain 16 geltoki egingo doguz, metroaren 3 ibilpide barri. Ez, hori seriotasunagaz egiten da, hori baliabideak egiten da, hori azterketakaz egiten da, eta, bide batez, oraindino ez dira amaitu. Halanda ze, primerakoa da hona etortea, proiektua apur bat geldiarazotea erabagi badogu, kontsultea eta partaidetza-prozesua egin daitezkan, hara!, txarto, gelditu egin dalako, eta partaidetzagaz egiten badogu, kontxo, txarto!

Nik 1.200 persona esan dot, 1.200 inguru. Ez dakit zehatz-mehatz zenbat ekarpen egin ziran. 3.300, ba askoz gehiago, edozelan be nire alde, ni aitatutakoaren alde. Kontua ez da egun baten goizean jagi eta egoera hori amaituarazo daigun, beste barik. Obra konplejua da, oso konplejua, baliabideak behar dauzkan. Badago, esan barri deutsu aurreko batek, Bizkaia Denontzat dalakoari jagokonez, 4. eta 5. lineakaz, bardin da, ez dau balio, baina ez dau balio orain, ez dau balio, dinot, hauteskunde-kanpainan, edo ia hauteskunde-kanpainan gagozala.

Konpromisoa benetan hemen egiten da, baliabideak egiten da, gobernu-akordioakaz, eta herritarren adostasunagaz, herritarren parte-hartzeagaz eta alderdi politikoen adostasunagaz, eta hori da gu aspalditik erakusten gabiltzana. Alderdi Popularrak asko berba egiten dau, baina gitxi egiten dau. Tira, bai, egiteko gai da, barriro dinot, Einstein, zergak jaisteko baina gero beste inork baino gehiago gastetako gai dira. Hori jazoten da gero, tira, Ekonomia ministro batzukaz; izan be, 2 eta 2ren batuketeak 4 izan behar dau, hemen eta Fernando Poon, ezin da bestela izan.

Beraz, demagogia horrek, nik uste dot bere gloria minutua euki daikeala, baina gero, errealidadean, ez doa inora. Esan dodana, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak,



finantziazioa, Bizkaia Denontzat izeneko gobernu-programa baten konpromiso idatzia dagoala, 4. lineagaz eta 5. lineagaz, barrero dinot, horrek ekarriko dauelako, benetan, 4. lineak aurrera egitea, 1., 2. eta 3. lineek egin daben moduan, hau da, hainbat ekintza, kasu honetan Gobernuaren sostengatzen daben alderdien konpromisoagaz egin diranak.

Elkarrekin andreak esan dau, edo nik txarto ulertu dot, proiektua amaitu arte itxaron gura ebala, proiektua ezagutzeko, eta gero erabagiteko, baina gero ez, badakigu zein erabagi behar dan, herritarrek erabagiten dabena, hain zuzen be. Guk barrero dinogu eraikuntza-proiektua amaitu arte itxaron behar dala eta, behin eraikuntza-proiektua amaituta, 4. linea errealitate bat izango dala, eta Bilbo hegoaldeko auzoetako 4. lineako herritarrak horretaz jaubetu daitezkan gura doguna.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno.

Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo, señora presidenta. Bienvenidas, todas las mujeres que habéis venido, porque seguramente no entendáis nada, habéis entrado y no sabéis ni de qué estamos hablando. La Línea 4, entre el Metro y Rekalde. Intentaré explicarlo un poco yo, aunque no sé si lo conseguiré, porque el debate se está desviando un poco, y yo creo que cada cual estamos explicando cuáles son nuestras posiciones, pero preveo poco compromiso para buscar acuerdos, y, realmente, una solución. Porque el compromiso con la Línea 4 lo hemos mencionado todos y todas, todos y todas, en más de una ocasión, pero el verdadero debate profundo y decidido a favor de la participación, yo creo que no se subraya aquí, veo muy poca intención para ello.

He hecho un ejercicio, zintzoa izango naz, Arantzi neure kideagaz. Esan deutsat: ea zenbat bider esaten dan konpromiso berbea, ederto, nik oraintxe beste hiru bider esan dot, 18 neukazan apuntauta, gehi hiru, beharbada nire berbaldian aterako da, eta oraindino beste berbalari bat falta da. Konpromiso berbea esan dan bakotxean txupito bat hartu izan bagendu, pentsau zelan urtengo genduan hemendik. Zer esan gura dot? Oso erraza dala konpromisoei buruz berba egitea, baina gauzatu egin behar dira.

Nire ustez, berba gitxi egiten da ibilpideaz, baldintzatzaileez, eta mozinoak ekarrenz, hau da, Abiadura Handiko Trena Abandora heldu edo ez heltzeaz, eta horrek baldintzatu leikeanaz. Eta alternatiba bat dago, nik aitatu dodana, danok zabilze auzotarrek esan ebenari buruz berba egiten, hau da, Basurtuko geltokian San Mameseko lineagaz lotzeko konponbidea bilatzeaz, eta horri buruz ez da ezer esaten. Eta hori izan leiteke Abandoko geltokia lurperatzeagazko medekotasunetik askatzeko gordiar korapiloa. Halanda be, tranpak egiten doguz, Lerma Mentxaka jaunak esan dauen moduan, konfiantza osoa ipinten dogu eregite-proiektu baten, jakina, ni be ez naz aditua, baina irakurten badakit eta, batzuetan, interes handiz irakurten dot.

Orduan, nik informazio-azterlan hartu eta ikusten dot hau dionala: “Informazio-azterlan honek Errekalde eta Irala auzoetan 4. linea barria ezarteko beharrezkoa dan azpiegitura barriaren zatia baino ez dau jorratzen. Azterlan honen xedea azpiegitura barriko tarte besterik ez da, aukeratutako aukerea gauzatzeko beharrezkoa baita. Abandoko trenbide-korridorearen aurreko tunelean hasi eta Elejabarriko Adifeko tunel faltuan amaituko da”. Horixe bera jasoten eban informazio-azterlanak, eta gauza bera gertatzen da oinarri teknikoaren



pleguagaz, hau da, edozein eraikuntza-proiekturen Bibliagaz, tarte horretara mugatzen dala dinoana. Beraz, ez dau axola ze ekarpen egin deuskuen Alonsotegitik, Kastrexanatik, Zorrotzatik, Basurtutik, San Adriandik eta Miribillatik. Horreek ez dira kontuan hartuko eraikuntza-proiektuan, diputadu andreak aurreko Osoko Bilkuran aitatu ez euskun aldaketa bat egon ez bada, izan be, lehen esan dodan moduan, aukerea euki eban.

Hortaz, eraikuntza-proiektuan bertan be ez da aitatzen herritarren partaidetza-prozesuaren laburpen-txostena, eta ez da aitatzen kontuan hartu beharreko dokumentuen artean. Barrero dinot, hegoaldeko auzoetako bizilagunek itxaropen gitxi eduki daikie, 5 edo 6 hilebete barru gure esku eukiko dogun eraikuntza-proiektuak euren itxaropenei urtenbidea emoteko. Eta gustauko litxakit oker egotea, baina, ni ez okertzeko, zuek gardentasunez eta partaidetzagaz jokatzeari litzateke onena. Izan be, barrero azpimarratuko dot, gaur Alderdi Popularrak hona ekarri dauen proposamenak logika instituzionala dauka, beharbada, baina uste dogu ez deusola erantzuten Bilboko hegoaldeko auzoen eskaerei eta itxaropenei. Eta, horregaitik, EH Bilduk, lehen aurreratu dodan moduan, ez dau babestuko.

Baina, halanda be, Gómez-Guadalupe jauna, abstenidu egingo gara, EH Bildu ez dalako izango kamara honetan eztabaidea eta informazio-aurkezpena itxiko dituana, beste batzuk esango deusue gaur zuri ezetz. Izan be, inork ez dau zalantzan ipinten, lehen be esan dot, hemen dagozan taldeek 4. Lineagaz daukien konpromisoa. Baina igarten dogu hemen jarrera bi dagozala, irakurketa-mota bi, mozino hau gaur ez babesteko. Lehenengoak dana itxi gura dau gobernu baten eta haren jardueren esku, konfiantza osoa, fede itsua, erabiltzaileen eta hegoaldeko auzoetako biztanleen adostasun barik diseinatutako proiektu baten. Edozelan egin behar dira gauzak, 4. Linea edozein prezioan eregi behar da, konpromisoa daukagu, baina ez deuskue axola ibilpideak, ezaugarriek eta herritarren eretxiak. Badakizue nor babestuko dauen mozinoaren zati hori. Eta bigarrena, gauzak beste modu batera egiten tematzen dan beste modu bat, adostasuna bilatzen dauena, eztabaidea bilatzen dauena, alkar ulertzea bilatzen dauena, ahalik eta zabalena. Baina, jakina, hori zorrotzagoa da, garestiagoa, denporeari eta dedikazioari jagokenez behintzat, nahi-ta, zalantza barik, askoz onuragarriagoa izango litzatekean egin beharreko azken proiektuaren zehaztapenari eta onarpenari jagokenez.

Y acabo con esto. Para EH Bildu es imprescindible establecer amplias bases de consenso sobre este proyecto de la Línea 4 del Metro, pero parece que a día de hoy no se dan. No podemos huir hacia adelante, no podemos cerrar los ojos, no podemos aceptar cualquier proyecto. Tenemos que compartir y acordar con la ciudadanía y los agentes sociales el recorrido, la ubicación de las estaciones, la conexión con el resto de líneas de Metro... para que la Línea 4 del Metro sea un éxito. Y es que solamente con la implicación de todos y todas conseguiremos que la futura línea del Metro sea un éxito. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, Sr. Méndez Urigoitia.

Y para finalizar el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Beno, nik lehen oso txarto edo nahiko txarto azaldu dot, seguruenik. Saiatu naz azaltzen, nire eretxiz, nire eretxi apalean, eta argi dago ez dala eretxi tekniko, ez dala aditu batena, niri urtenbide ona iruditzen jatala orain proiektua garatzeko erabilten dabiltzana, eta azaldu dot zergaitia, zergaitiaren errazoa, ez besterik. Hori holan dala edo konponbide posible horren indargune bat dala onartuz gero, ez dago zertan esan hori herriak alkarren aurka ipinten ahalegintzea danik, inondik inora be, hori ez da gure asmoa, ezta hurrik be.



Benetan harrigarria dana, ez naz ni izango inkoherentzia hori aitatzten dauen lehenengoa, proposamena egin dauanagaitik dinot, Alderdi Popularragaitik. Harrigarria da mozinoa aurkeztea 4. Linearen garapena bultzatu gura dala esanez, une honetan lantzen dan moduan, eta, gero, beste idea batzuk beharbada hobeak irudituko litzakiozela esatea. Eta ez naz ni izan inkoherentzia hori agirian ipini dauen lehenengo berbalaria.

Baina, zer da garrantzitsua? Hori iruditzen jat, ez dot esango oso larria, baina hori da benetan garrantzitsua. Ez dot aitatu guk guztiok, eta nire aurretik berba egin dabenek erabili dabene doinua, baina bai ildo, eta badago guztiz ulertu ez dodan zeozer: mania hori, interes hori, Foru Aldundiari edo Ahaldun Nagusiari berari leporatzeko ustezko atzerapena, 4. Lineaz berba egiten ez dakit zenbat urte emon izana, berau burutu barik.

Izan be, Foru Aldundiak ez dauka eskumenik trenbideko garraioan, trenbideko garraioaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena da, eta hori danok dakigu, behin baino gehiagotan esan dalako kamara honetan, eta holan azaldu da. Baina, benetan, hau da, zorionez, zorionez ez, ez dakit zoritxarrez ez ete dan, baina gutako batek kritiketan dauenean, edo kritikau gura dauenean, berbarako, Ertzaintzaren jarduketaren bat, eskerrak ez zagozen Foru Aldundia kritiketearen ildoan, badakigu nor dan eskuduna, zuzenean begiratzen jako Eusko Jaurlaritzaren sail jakin bati. Ez dakit zer mania, edo zer interes dagoan orain Foru Aldundiari zuzenean begiratzeko, hori oker handia da eta, eta gauza oso-oso larria ez da, baina arazo bat sortzen dau: ez dirala herritarrak prestetan eta ez jakezala gauzak behar dan moduan azaltzen, eta gero herritarrak nahastau egiten dira. Eta horretan, eskumenei jagokenez, ez geunke halakorik sortu behar, eta eztabaidea desitxuratu behar.

Arabere gehiago, egin daiteke? Mozinoan bertan erabilten diran terminoak ikusita, Foru Aldundiari eskatu ahal jako eskumenik ez daukan zeozer egitea? Zelan eskatu Foru Aldundiari eskumenik ez daukan zeozer egiteko? Eta, zergaitik ez da aitatu mozinoan, berbarako Eusko Jaurlaritzari eskatzea? Kamara honek mozino bat onartu eikean, Eusko Jaurlaritzari zelanbait jarduteko eskatzeko. Interes arraroren bat dago gaia Aldundiaren erantzukizunera bideratzeko, haren eskumena izan ez arren. Beste kontu bat da, dagoeneko agirian geratu dala, duda barik, Méndez jauna, Aldundiak konpromisoa daukala 4. Linearen garapenean aurrera egiten eta laguntzen ahalegintzeko, eta, zalantza barik, ildo horretan jardungo dauela. Baina eskumena, berez, erantzukizuna, Jaurlaritzarena da, horretaz ez dago zalantzarik. Eta uste dot hori dala garrantzitsuena.

Eta, era berean, adierazo gura dot, 4. Linearen proiektua funtsezkoa izanda be, Metroaren zerbitzua zabaltzeko, metropoli-trenbide bidezko zerbitzua zabaltzeko, mozinoa ez dala benetan garrantzitsua. Mozinoaren eukiari jagokonez, materialtasunari jagokonez, ia-ia zero, esango neuke, ze, mozinoa onartzen bada, ondo. Eta onartzen ez bada, bardin-bardin, Foru Aldundiaren egitekoa Jaurlaritzagaz lankidetzan jardutea, 4. Linea garatzeko eta metropoli-zerbitzua zabaltzeko, mozino hau onartu, espero dot ez dala holan izango, zein atzera bota. Materialtasunaren ikuspegitik, lehen esan dot itauna bera ez nebala oso ondo ulertu, Ahaldun Nagusiak emondako erantzunak zuzenak, nahikoak eta koherenteak begitandu jatazala, une honetan daukagun zehetasunen ezagutza maileagaz. Eta, hori holan izanda, ez dot ulertzen mozinoa aurkeztea, zarata apur bat egitea saiatzeaz harago.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka.

Y, terminado el debate, y cuando estemos todos y todas en nuestros asientos, someteremos la moción a votación. Podemos votar.



El resultado es el siguiente: se han emitido 49 votos en total. Han sido 3 votos a favor, votos en contra han sido 30, y 16 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

A continuación, el cuarto punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000467](#))

**Autor:** Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Servicios inmediatos y especializados que deben ofrecerse a las mujeres víctimas de violencia machista.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2024/0000467](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (13A)

**Expediente:** ([12/B/20/0000859](#))

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000467SE](#))

**Egilea:** Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eskeini beharreko berehalako berariazko zerbitzuak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000467SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (13A)

**Espedientea:** ([12/B/20/0000859](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Ilardía Olangua, tiene usted la palabra.

Y, en este punto, quiero saludar a todas las mujeres y todas las personas invitadas que han acudido a seguir el tema de hoy.

Tiene usted la palabra, señora Ilardía Olangua.

La Sra **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

En primer lugar, un saludo especial para las personas invitadas que hoy nos acompañan, psicólogos y psicólogas de la Diputación de Bizkaia, trabajadores y trabajadoras sociales, técnicos y técnicos municipales de igualdad, delegados y delegadas sindicales, agentes de Tartekari Sarea, representantes de Ecuador Etxea y de Koloretxe, supervivientes de la violencia machista de la asociación Bizitu, bienvenidos y bienvenidas a esta cámara.

En el Pleno de Control, la señora Laespada nos habló desde la serenidad, así lo expresó varias veces. Y es verdad que hablar con tranquilidad da otra calma. Tengo que confesar que a mí me resulta difícil tratar este tema con tranquilidad. Me duele trabajar con las violencias machistas, ver la respuesta de la administración ante ellas y, además, querer vendernos los beneficios de todo ello. Y, con ese dolor, señora Laespada, me resulta muy difícil hablar desde esa tranquilidad que usted reivindica, de esa serenidad que nos pide a los y las demás de una manera u otra, pero me esforzaré.

El otro día nos dijo la señora diputada Laespada que debíamos leer mejor las normas, que debíamos leer mejor cada una de las leyes y normas en que se basan sus



decisiones. Y sí, como hemos leído correctamente la ley, los decretos y la Ley Orgánica, y las hemos interpretado, a ellas, y junto a muchas otras leyes, consideramos absolutamente necesaria la interposición de esta moción.

En el primer punto de nuestra moción, solicitamos que las mujeres víctimas de violencia tengan acceso directo e integral a los recursos especializados, es decir, a los de la Diputación, sin pasar necesariamente por los servicios sociales de base. Entre otras cosas, porque así lo establece el Decreto 185/2015, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Izan be, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta, batik bat, lege horren 17.1 eta 19. artikuluetan ezarritakoa betez, adierazoten da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diran genero-indarkeriaren biktima guztiek, kasu honetan, beren-beregi eurei zuzendutako Prestazino eta Zerbitzuen Zorroko prestazinoak eta zerbitzuak eskuratu ahal izango dabezala, eta ez jakela administrazio-betekizunik eskatuko, preskripzino teknikoak nahikoa izango da ta. Eta, Zorroari buruzko Dekretuaren arabera, zeintzuk dira zerbitzu espezializatu horreek, ezelako baldintza barik zuzenean eskuratu behar dabezanak? Eta horri nik gehitzen deutsat, babesgabetasun-tresna batek esan barik pasauko zaran edo ez zaran. Esan dodan lez, honako honeek:

185/2015 Dekretuaren 2.4.6 fitxearen arabera: Etxeko tratu txarren biktima diren andrentzako egoitza-zentroak eta andrentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk. Ez jake administrazio-betekizunik eskatuko, preskripzino teknikoak nahikoa izango da ta.

2.7.1 fitxearen arabera (informazio- eta orientazio-zerbitzuak). 2.7.1.2 fitxaren arabera (etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima diren emakumeei informazioa eta laguntza emoteko zerbitzua). Ez jake administrazio-betekizunik eskatuko, preskripzino teknikoak nahikoa izango da ta.

2.7.3 fitxearen arabera (familian esku hartzeko eta bitartekotza- eta laguntza-zerbitzuak). 2.7.3.1 fitxearen arabera (familiakaz esku-hartze sozioedukatiboa eta/edo psikosoziala egiteko zerbitzuak).

2.7.5 fitxearen arabera (tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren andrei, adinbakoei, adinekoei eta desgaitasunen bat daukien personei arreta psikosoziala eta soziojuridikoa emoteko zerbitzuak). Horreetako inori ez jake eskatuko administrazio-betekizunik, preskripzino teknikoak nahikoa izango da ta.

Zerbitzu eta prestazio horreek guztiek, Dekretuaren beraren arabera, sarbide zuzena eta unibersala euki beharko leukie, eskumenik ez daukan beste zerbitzu batek edo profesional batek aurretik baloraziorik egin beharrik barik, eta, jakina, unibersala izanda, zerbitzu eta prestazio horreek jasoteko eskubidea daukien persona asko kanpoan itxiko dabezan galbahe edo tresna barik.

Segundo punto de nuestra moción: equipos especializados interdisciplinares, diálogo integral, relativo a la recuperación del diagnóstico psicosocial, Ley 12/2008 de Servicios Sociales. Su artículo 8 recoge cuál debe ser el modelo de Atención e Intervención y su apartado e) señala que garantizará que esta intervención sea interdisciplinar, con una atención integral y con criterios de continuidad.

La Ley Orgánica 1/2004, Contra la Violencia de Género, recoge en su artículo 19 el derecho de las víctimas de la violencia a la Asistencia Social integral, oara obtener servicios de atención, urgencias, protección y acogida y recuperación integral. En la transposición de esta Ley se detallan todos los servicios y prestaciones que nuestra Diputación debe asumir en este territorio. Y esta ley especifica expresamente que, además de los servicios



que se activan como consecuencia de una intervención derivada de una situación de urgencia, se exige una intervención plena e individualizada con todas las víctimas de violencia de género.

En relación con el punto 3.º de nuestra moción, solicitamos al Gobierno Vasco que desarrolle un único instrumento común a los 3 territorios, que pueda ser utilizado como instrumento de apoyo a los equipos interdisciplinarios profesionales de la Diputación especializados en violencia, solo como apoyo.

Zergaitik dinogu hori? Babesbakotasunaren tresnea arautzen dauen Foru Agindua Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa dan gai bat arautzen dauelako, jarraian azalduko dogun moduan. Begira, 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. III. tituluko I. kapituluak Gizarte Zerbitzuen arloko eskumen-araubidea arautzen dauena. Eta 39.1 eta 39.2 artikuluetan ezarten dau Eusko Legebiltzarrari jagokola Gizarte Zerbitzuen arloko legegintza-eginkizuna, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena dala arauak garatzea.

39.5 artikulua ezarten dau foru-aldundiei eta udalei jagokela, hori bai, gizarte-zerbitzuen arauak betearazotea.

40.1 artikulua ezarten dau Eusko Jaurlaritzak, bere eginkizunen artean, Gizarte Zerbitzuen arloko erregelamenduak egiteko ahalmena daukela, eta, zehatzago esanda, d atalean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak beteten dirala zehazteko aplikau beharreko tresna teknikoak prestetea eta onartzea.

Halanda ze, aitatutako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, 12/2008 Lege horrexen 39., 40. eta 41. artikuluetan ezarritako eskumen-araubideari jagokonez, ez dago zalantzarik Eusko Jaurlaritzak daukela balorazino-tresnak arautzeko eskumena. Esaterako, 852/2024 Foru Aginduan ezarritakoa, eta bigarren txandan jarraituko dot.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua.

El representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Gracias, señora presidenta, y buenos días, ondo etorri.

Hara, nik berbaldi sano trinkoagoa ekarri dot, baina zati mamitsua hurrengo punturako itxiko dot. Une honetan ez gabiltz lau psikologoren ganean berbeta, baizik eta haren proposamenaren alde egin daben 150 persona baino gehiagoren ganean, sindikatuez eta hainbat kolektiboz gain. Ildo horretan, zer eskatzen dabe? Bada, funtsezko 3 gauza, biktimei, indarkeria matxistaren biktimei eta euren seme-alabei arreta ona emotea; personak artatzean diziplinarteko ikuspegiari eustea, eta kalidade handiagoa emotea; eta Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume Zerbitzuko psikologoen lanpostuei eustea.

Alde honi, behin berregituraketa-txostena irakurrita, zalantza asko sortzen deusiez, eta oraindino be zalantzak daukaguz, zergaitik ez dan Foru Agindua argitaratu, plantillari urtarrilaren 26an emon bajakon horren barri. Zalantza, esaterako, Gizarte Zerbitzuen Lege beragaz beste sail batzuetan zergaitik ez ziran psikologoak bazterten, baina honetan bai. Eta zalantzak tresnari buruz, haren baliozkotasunari eta aplikazino praktikoari buruz.



Halanda be, horretaz guztiaz harago, esan deusuedan moduan, ez dot berbaldi trinkorik ekarri gura, eta bai, egoera hori ulertzen saiatzeko, psikologoetako bati kasu bat azaltzeko eskatu neutsala, kasu jakin bati buruz hipotesi bat egiteko. Hau da, kasu-azterketek, ondo dakizuenetz, batez be gaur hemen gugaz dagozan personek, ebaluazino-ereduei eta esku-hartze psikologikoari buruzko orientabideak emoten dabez, aplikazino-adibideen bitartez, eta horreei aurre egiteko moduak ezagutarazoten dabez, edozein esku-hartze egiteko eraginkorrak badira, eskura dagozan datuetan oinarritutako ebaluazinoen bidez. Halanda ze, oso baliagarria da aurreikusteko, nahi-ta kasu honetan esan behar dodan, jakina, kasua behatu eta aurkezten dauenaren begiradea dagoala, zerbitzuan daukan esperientzian oinarrituta egiten dau-ta jazo daitekeanari buruzko hipotesia.

Kasua kontauko deusuet. Elisa, 72 urte, espainiar nazionalidadekoa, Bizkaiko herri baten bizi da. Egoera ekonomiko nasaia dauka, senarragaz bizi da, bizitza osoko bikotekideagaz, eta indarkeriazko egoerak jasan dauz ezkondu zanetik. Elisaren lehen mailako arretako medikua, andragaz daukan hartu-emon hurbila eta bere sensibilitadea dirala ta, haren familia-egoerea eta laguntza eskatzeko aukerak aztertzen hasi da. Elisak laguntza eskatzea onartu dau, bere ondoeza arintzeko aukera posibleen barri eukiteko.

Aurreko ereduagaz eta nire A hipotesiagaz, Elisaren medikuak, haren baimenagaz, Emakumearen eta Familiar Esku Hartzeko Zerbitzuagaz harremanetan jarten da, eta haren egoerari buruzko informazinoa emoten dau, senarrak harengan egiten dauen kontrol gogorra eta Elisaren bildurra dirala ta. Zerbitzu horretako beharginek lehen topaketea egin dabe Elisagaz, haren anbulatorioan bertan, familiako medikuaren konplizidadeagaz. Topaketa horretan, Elisa nasaitu dabe, haren ezinegona eta kezkaeren errazoiak jaso dira, eta laguntzeko hainbat aukera azaldu eta arreteka emoten jarraitzeko aukerea eskaini jako. Aukera horietako bat FEP da, zeinak andragaz hainbat alkarrizketa euki daikezan, hainbat eremutan, haren beharretara eta aukeretara egokituz, eta haren epeak errespetauz, bere ondoizatea hobetzeko beharrezkotzat jotzen dauzan erabagiak hartzeko.

B hipotesian, gaur egungo ereduagaz, lehen mailako arretako medikuak Elisari planteetan deutso, lagundu ahal izateko bere udalerriko gizarte-langileak egoerea ezagutu behar dauela. Elisak mesfidantza dauka bertara joateko; izan be, besteak beste, Gizarte Zerbitzuak udaletxean bertan dagoz, bizilagunen bistan, eta oinarritzko Gizarte Zerbitzueak lehenengoz arreteka emoteko epea ez da berehalakoa izaten, eta udalerraren mende dago. Denpora hori emakumearen aurka doa, laguntza eskatzeko erabagia aldatu daiteke ta. Horri deitu ohi jako indarkeriaren zikloa.

Pentsau daigun lehenengo alkarrizketara badoala. Seguruenik, saio gehiago beharko ditu indarkeria-egoerea adierazoteko eta laguntza eskatzeko. Denpora bat igaro ostean, Elisa gai izan bada gizarte-langileak eskainitako laguntza onartzeko, harek txosten bat egin beharko dau, kasua Aldundira bideratzeko, Elisari bere egoeraz jaubetzen eta tratu txarren egoerea identifiketan eta bere ondoizatearen ganeko erabagiak hartzen lagunduko deusuan zerbitzu espezializau batera.

Eskaria Aldundira heltzen danean, ohiko eskaria da, eta indarkeria matxistek eragindako babesbakotasunaren balorazino-tresnearen bidez baloretako itxaron-zerrenda baten sartzen da. Gaur egun, itxaronaldi hori zortzi hilebetekoa izaten da gitxienez. Denpora horretan guztian, Elisa senar erasotzaileagaz bizi da, gizarte-langilearengana ezkutuan joaten da, eta haren osotasun fisiko eta psikikorako arrisku-egoera areagotu egiten da.

Babesbakotasuneko tresna pasau ondoren, kontuan hartuta familia-sarea, lagun-sare txiker bat eta diru-sarrera ekonomikoak daukazala, hau da, bere pentsinoa, etxea jaubetzan, gai dala bere etxeko ekonomia kudeatzeko, bere oinarritzko kudeaketak egunero egiteko, hitzorduetara joateko... ba, ziurrenik balorazinoaren emoitza arriskukoa izango da, eta ez babesbakotasuneko. Horrek esan gura dau, hilebete horretan guztietan zain egon ondoren,





Elisa barriro oinarrira bideratuko dala, balorazinoen emoitza jasoten dauen txosten bategaz, eta ez dauela aukerarik eukiko laguntza-programa espezializau baten sartzeko.

Elisak Laguntza Psikologikoko Zerbitzura jo daike, baina, egiaz, genero-indarkeriaren ondorio psikologikoak jorratzen dauz, Esnatu, baina ez jako laguntza integralik eskaintzen. Programa horretara hasiera-hasieratik joan eitekean, baina, bistan da, medikua eta gizarte-langilea ez dira aukera horretaz konturatu. Gogoratu behar da Elisak, prozesu hau guztia hasi dauenean, 72 urte daukazala.

Tira, kasuaren aurkezpenean esan dodan lez, hau hipotesi bat baino ez da, eta profezia autobetegarri bat izan daiteke, etorkizuneko jazoera zehatz batzuk aurreikusteak horretxek jazoteko aukera handitzen dau ta. Batez be, aurreikuspen hori eredu barriaren aurka dagoan personearena bada.

Baina, legediaz eta ereduez harago, uste dogu, hain zuzen be, zuzeneko datuetan oinarritutako arretak orientau beharko ginduala kasu honetan erabagiak hartzeko orduan, alde bakarrekoa izango dala pentsetan dogun berregituraketa-proposamen bat egiteko orduan.

Mozinoari jagokonez, Ilardia andrea, gure taldeak eskatzen dau, mahaiburu andrea, alde batetik 1., 3., 4., 5. puntuak botetako, eta, bestetik, 2. eta 7. puntuak, ahal bada, horreetako batzukaz ados gagozalako, eta beste batzukaz ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señorVaquero Moreno.

Tiene la palabra el señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor, representante del Partido Popular Bizkaia.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Egun on ostera be, eta egun on, be bai, gaur tribunan zagpozen konbidauei.

Bilduk gaurko eztabaidara ekarri deuskun itaunetik eratorritako mozinoak jasoten dituan puntuak jorratu aurretik, Talde Popularrekook gogoeta batzuk egin gura doguz, Bizkaiko Foru Aldundiak planteetan dauen esku hartzeko eredu barria iruditzen jakunaz. Egia da 1987az geroztik Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzu bat egon dala, eta, harrezkero, genero-indarkeriaren biktima diran andren egoerea ebaluetan izan dala, ikuspegi psikosozialetik, Zerbitzu zehatz horretako plantillea osotzen eben psikologo-talde batek emoten ebana. Zerbitzu horrek hainbat sarbide eukazan biktimentzat, batetik Gizarte Zerbitzuen bidez, baina preminazko zuzeneko arretearen bidez be bai.

Egoerearen barri zuzena izan genduan langileen eta psikologoaren euren bitartez, eta esan euskuen Bizkaiko Foru Aldundiak berak zerbitzu hori kendu gura ebala. Aldundiko Enpleo, Gizarte Kohesino eta Bardintasun Sailak planteau dauen edo egin gura dauen berregituraketa-proposamenak zalantzak sortzen deuskuz. Zalantzak sortzen deuskuz, gure ustez gizarte-langilearen figurak eta psikologoek interbentzino horretan daukiezan funtzinoak ez diralako bateratuezinak. Aitzitik, guztiz osogarriak izan behar dabe.

Eta zalantzak sortzen deuskuz, izan be, zuek proponidutako ereduan, gizarte-langilearen esku-hartzea lehenesteaz ganera, gizarte-langileak biktimearen diagnostikoa



oso-osorik bere gain hartzearen alde egiten dozelako, ikuspegi psikologikoa kontuan hartu barik; holan, diagnostikoa gizarte-babesbaketasunera mugatu leiteke. Eta uste dogu logikoa dala diagnostikoa osoa eta espezializaua izatea, eta kalte sozialetik harago joatea, ikuspegi integralago eta globalago bategaz.

Halanda ze, zalantza handiak sortzen deuskuz zuek proponiduten dozuena, Laespada andrea, Zerbitzu hori kentzeak biktima askok hasiera-hasiereatik esku-hartze psikologikoa eukitea eragotziko leuke ta. Eta, era berean, kontuan hartuta andra horreek itxaron-zerrendetara bialduko lirakekeala –eta ez dira laburrak, hileak irauten dabe–, Gizarte Zerbitzuek bideratu arte.

Halanda be, gaur eztabaidatzen gabilzan mozinoa, Bilduk ekarten deuskuna, ez dator bat, zehatz-mehatz, bere jatorriko itaunean planteau zanagaz; egia da, gure ustez, arazo hori aprobetxetan dauela Aldundi honetako Enpleo, Gizarte Kohesino eta Bardintasun Sailearen gai asko barriro planteetako, arreta psikologikoko zerbitzu espezializaei eusteko errebindikazino zehatza baino askoz harago doazenak.

Txikiak programari buruz proponiduten danari jagokonez (zelanbait eredu aldatea eskatzen dau), ez dogu proposamen hori ulertzen; izan be, eredu gaur egun planteauta dagoan modean, programa hori balietako eskatzen diran baldintzetako bat da beharrezkoa dala egoerea ebazpen judizial bidez egiaztatea.

Eta, beste alde batetik, Tartekari Sarea handitzea proponidu dozu, gaur egungo ezarpenaren azterketarik egin barik, bai agente kopuruari jagokonez, bai lurralde-testuinguruari jagokonez, eta une honetan haren funtzionamentua eta eraginkortasuna zelakoak diran aurrez azaldu barik.

Eta zuen mozinoa, Bilduko jaun-andreok, Bizkaiko Foru Aldundiko goikargudunen prestakuntza zalantzan ipiniz amaitu dozue, eta ez gara hor sartuko, proponidu dan moduagaitik. Eta, azken batean, zuen mozinoaren formek ez gaitue konbentziduten.

Horregaitik, Batzarretako talde honek argi itxi gura dau zalantza handiak sortzen deuskuzala Enpleo, Gizarte Kohesio eta Bardintasun Sailak planteetan dauen berregituraketeak. Gure ustez, proponiduten dan moduan, hutsegitea izango litzateke Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren Arreta eta Diagnostiko Sozialeko Zerbitzua kentzea, baina abstenidu egingo gara mozinoari jagokonez, ez gatozelako bat, orokorrean, Enpleo, Gizarte Kohesino eta Bardintasun Sailearen programen birformulazino orokorra egiteko moduagaz.

Besterik ez, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

A continuación, tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as. Ondo etorri, Alzaga jauna, eta ondo etorri tribunan dagozan konbidauak be bai.

Esango dot gaur eztabaidatuko dogun ekimen honek oster a be emongo deuskula aukerea hausnartzeko, ereduak kontrastetako eta herritarrei, oro har, eta andrei, batez



be, Bizkaiko Foru Aldundiak garatzen dituan politikak barriro azaltzeko, indarkeria matxisteari, hain garrantzitsua eta gatxa dan gai horri jagokonez. Indarkeria hori, behin eta barriro errepikauko dot, estrukturala da, eta desbardintasunez betetako errealidade baten erakusgarri. Errealidade horrek emakumeok kolpetzen gaitu, emakume izateagaitik, eta ezin dogu etsi.

Baina egin daidan berba kontu zehatzen ganean, ea. EH Bilduk gaur aurkeztu deuskun ekimen honen bitartez, errealidadetik guztiz aldentutako idea bat helarazoteko eta finkatzeko ahalegina egin da, gure ustez. Esan deuskuenez, “esku-hartze eredu desegiten dabil, ez da genero-ikuspegia sartzen politiken zehaztapenean, eta biktimak babes barik ixten dira”. Halan esan dozu gaur goizean, barriro. Eta, ganera, nasai-nasai esaten dozue, lotsaz gorritu barik, baieztapen horreek sostengatzeko datu objektibo eta erreal bakar bat be emon barik. Eta, ganera, Zerbitzu Zorroaren fitxak partzialki irakurriz. Baina, tira, jarraitu egingo dot.

Arazoa da zorroztasun falteak, esparru juridikoa zein dan ez jakiteak, balio-judizio alderdikoiek eta asmo lerratuek ez dabela balio eztabaida serioa egiteko, eta hori egin behar dogu gaur, eztabaida serioa. Izan be, zuok kezkatzen zaitue 3 behargin Aldundiaren beste zerbitzu batean jartzeak, eta hori herritarrei azaltzea ez danez hain erraza, asmatutako eraispenen eta babesbakotasunen itxurea emoten deusazue.

Aztertu daigun, punturik puntu, aurkeztu dozuen mozinoa. Lehenengo eta behin, esaten deuskue indarkeriaren biktima diran emakumeak ez dirala oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik pasetan, baizik eta, zuzenean, zerbitzu espezializatuetatik. Baieztapen hori gure arkitektura instituzionalaren eta zerbitzuen sarbideak ezarten dituen arauen eta legeen erabateko ezjakintasunetik baino ezin dabe egin, izan be, argi eta garbi marketan dira zeintzuk diran zuzeneko arretakoak, eta lehengo egunean ederto azaldu eutsuezan Laespada andreak: psikologikoa, juridikoa, larrialdia, Txikiak (Bizkaiaren kasuan), eta zeintzuk diran oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eratorritakoak. Eta ez dot nik esaten, Gizarte Zerbitzuen Legeak, ha garatzen daben Dekretuek eta Emakunderen barruan aho batez onartutako hirugarren akordio instituzionalak esaten dabe, eta azpimarratu egingo dot, aho batez.

Baina legeari buruzkoaz ganera, errealidadeari buruzko ezjakintasun sakona be agertzen dabe; izan be, ez deutset neuk ukatuko, ezta nire Taldeak be, indarkeria matxistearen biktima diran andrei aterik hurbilenera joteko aukerea, hau da, udalen Gizarte Zerbitzuetara. Zerbitzu horretan, gainera, profesional handiak dagoz, eta, euren behaketaren, diagnostikoaren edo balorazioaren arabera, zerbitzu espezializatueta bideratuko dabez edo ez.

Alkarrizketa integrala berreskuratzea aitatu deuskue, diagnostiko psikosozial integrala emoteko, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak diseinatu daiala tresnea. Eta, beste behin be, ez dakie erakunde bakotzak zer rol eta zer zeregin daukan. Eta, ganera, beste behin be, igarri-igarrian daukie, tresnea Jaurlaritzak diseinetan badau, ona dala, eta Aldundiak diseinetan badau, txarra dala. Ba, azaldu egin beharko deustazue.

Eta, edozelan be, gakoa zuok dinozuen gauza bat da: berreskuratzea. Zelan berreskuratuko dogu egiteari itxi ez deusagun zeozer? Galdu ez dan zeozer, Aldundiaren zerbitzuetan eta programetan ez jako-ta itxi balorazio psikosoziala egiteari.

Gainera, emakumeen aurkako indarkerian espezializatuako arreta integraleko programea, 2006an sortua, berreskuratzeke planteetan deuskuzue, hainbat errazoigaitik. Lehenengo: ez da inoiz egon izen hori daukan programarik Zerbitzuan, eta, izatekotan, egon zan bat, “Etxeko eremuan emakumeen aurkako indarkerian espezializatuako esku-hartze familiarreko programea” izenekoa. Eta bi: hori berreskuratuko gura badozue, denporan atzera egiteko proponiduten zabiltze, eta albo batera ixteko azken 18 urteotan legerian, baliabideetan, ezagutzan eta arretan lortu doguzan aurrerapenak eta konkistak. A ze bidea, Ilardia andrea, proponidu dozuna.



Eta, ganera, egiaztagiri judizial barik indarkeria matxistea jasoten daben andren seme-alaba guztiak artatzeko eskatzen dozue. Eta nik galdetuko neuskizue: non bizi izan zarie zuek? Izan be, hori aspaldi egiten da, oso arau-aldaketa garrantzitsua egin zan 2015ean, eta biktimen seme-alabak zuzeneko biktimatza hartzen dira, eta ezelan be ez jake eskatzen, sartzeko baldintza moduan, arreta emoteko akreditazio judizialik. Ez hareei, ez amei.

Eta gero, Tartekari Sarea aitatu deuskuzue, eta egia esan, ez dakigu oso ondo zergaitik, ez dauka-ta zerikusirik aurrekoagaz. Baina, seguru asko ez naz oso oker ibiliko esaten badot zuek hori egitearen errazoiak zerikusi handiagoa daukala Gizarte Zerbitzuen desegiteari buruz zabaldu gura dozuen ideagaz, biktimentzako arreta-ereduagaz beragaz baino.

Halanda be, nasai egon zaitezte, Sailean modu positiboan baloretan dan programea da ta. Indarrean dago, luzatu egingo da, hobetu egingo da, garai barrietara eta behar barrietara egokituko da, eta laster lizitauko da.

Amaitu egingo dot, denporea amaitzear daukat-eta, eta zuen ekimeneko puntu horri erantzungo deusat, eta zera esango deusuet: begira, biktimei eta biziraun dabenei arreta integrala eskaintzen deutsegu, ikuspegi feministatik, indarkeriaren biktima bakar bat be egon ez daiten arreta, babes eta laguntza barik. Eta ez euki zalantzarik gure lehentasuna indarkeria matxistari aurre egitea eta indarkeria hori desagerrarazotea dala. Ganera, profesionalei eta biktimei entzunda, errealidadearen diagnostikorik onena gura dogu, huts ez egiteko. Daukaguzan baliabide ekonomiko eta giza baliabide guztien eraginkortasuna hobetzeko alkarrizketea eskaintzen dogu, eta adostasunak bilatzen doguz indartsuagoak izateko. Eta hor topauko gaituzue, eta ez beste inon.

Eskerrik asko, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos.

La representante del grupo Nacionalistas Vascos, la señora Fika López, tiene usted la palabra.

La Sra. **FIKA LÓPEZ** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as. Ondo etorri.

Gaur eztabaidagai dan mozinoaren eukia ikusita, pentsau leiteke indarkeria matxista jaso daben edo jasoten daben Bizkaiko andrek ezelako babesik ez daukiela une honetan, asistentzia-baliabideetarako eta biktima babesteko zerbitzuetarako sarbide barik, mozinoan aditzera emoten dalako baliabide espezializauak zuzenean eskuratzeko aukerea ukatzen jakela. Baina hori ez da holan.

Bizkaian indarkeria matxistea jason daben edo jasoten daben emakume guztiek eskura daukiezan dagozan baliabideak, bai Emakumeen Zerbitzura zuzenean jotzen badabe, bai prozedura arruntaren edo preminazkoaren bidez sartzen badira. Guztiek eukiko dabez eskura arreta soziojuridikoko zerbitzuak, arreta psikologikoko eta terapeutikoko zerbitzuak, bai eta behar dabezan ostatu- eta egoitza-baliabideak be. Eta hori guztia, hareek babesteko eta laguntzeko heburuagaz, tratu txarreko egoera baten ondorio ikaragarriak gainditzeko, bai harentzat, bai euren seme-alabentzat eta bizikideentzat. Halanda ze, mozinoan egiten diran baieztapenak egiteak nahastea baino ezin dau eragin indarkeriaren biktima dan emakume batengan.



Ohiko planteamentua da, eta danek onartzen dabe, koordinazino-politikea behar dala, bai eta erakunde guztien eta hareen sailen arteko konpromisoa be, indarkeria matxistearen aurkako prebentzinoan eta burrukan esku hartzeko modua hobetzeko tresnak hartzeko, bai eta biktimak babesteko be. Horregaitik, gaur egun, eta helburu horregaz, Bizkaiko Foru Aldundia Emakumearen Arretarako Zerbitzua berrantolatzen dabil, esku hartzeko eredu barri bat ezarteari jagokonez. Eta, horretarako, balorazino-tresna bat sortu da, diagnostiko personalizauagoa egin ahal izateko, baliabideak emakumearen beharretara egokitu daitezana. Balorazino-tresna horrek legezko estaldura dauka, bai Zorroari buruzko Dekretuaren lege-eukian, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean, baita indarkeria matxistearen biktimei arretea emoteko hirugarren akordio instituzionalean jasoten diran jarraibideetan be. Akordio horren helburuetako bat indarkeriaren biktima diran andrei arretea emoten deutseen sail guztien arteko lankidetzak eta koordinazino-mekanismoak sortzea da, behar diran neurri guztiak aplikatu ahal izateko, andra horreek baliabideak arinago eskuratu daitezana.

Balorazino-tresna horrek beste ikuspegi bat emongo dau oinarritzko gizarte-zerbitzuakaz dinamikea kudeatzean; izan be, zerbitzu horreek bultzatu beharko dabe diagnostiko-prozedurea. Beti be, egiaztetan badabe Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen Zerbitzuen esku-hartze handiagoa behar dala. Holan, horren bidez, biktimearen egoera personalei eta preminei buruzko ezagutza handiagoa eukitea ahalbidetuko da, eta, beraz, ez da egia emakumei alkarrizketa integrala kendu jakenik Emakumearen Zerbitzuaren barruan, beti egongo da-ta biktimearen alkarrizketa bat, eta, halan badagokio, psikologiako profesional kualifikatuak egongo dira diagnostiko psikologikoak egiteko eta terapiak egiteko, horren ondoren beharrezko neurriak hartu daitezana.

Eta ez bakarrik tratu txarren biktima diran emakumei, baita hareen seme-alabei be; izan be, adinbakoek ziurtatuta daukie uneoro beharrezko arreta psikologikoa, dala egindako diagnostikotik ondorioztatzen dalako, dala, zuzeneko sarbide-prozedurearen bidez edo preminazko bidearen bidez sartuta, esku-hartze hori beharrezkoa dalako. Eta hori, Gil andreak esan dauen moduan, inolako egiaztapen berezirik eta judizialik barik, izan be, bagilaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren ingurune baten dagozan adinbako guztiak indarkeriaren biktima dirala onartu eban, laguntza eta babes-zerbitzuetarako eta beharrezko babes-neurrietarako sarbidea zuzenean bermatzeko.

Hori guztia dala-ta, ezin dogu mozino hau onartu, mozinoak ez dauelako errealidadea jasoten, hau da, Bizkaian, indarkeria matxistea jasoten daben edo jaso daben emakumeek kalidadezko arretea bermatuta daukiela, baita behar dabezan zerbitzu eta baliabide guztiak be.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fika López.

Vamos a pasar al turno de réplica. Señora Ildia Olangua, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias.

Lehenengo eta behin, poztan naz gaur hemen berba egin dozuenez ez dozuelako zerbitzu horreek eskatu behar izan, ze, ezin errealidadetik aldenduago egon. Autortzen dot oso nahasia izan nazela neure lehenengo berbaldian, araudia irakurten ez dogulako, Legea irakurten ez dogulako, ez dogulako behar lez kokatzen, etab. Baina horretan jarraituko dot.



Begira, ez deustazu aitatu, Gil andrea, Foru Dekretu horretan oinarritzen zarien artikulurik, indarkeria jaso dauen andra bat lehenengo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik pasau behar izateko, erakusmahaitik erakusmahai, ez dago artikulua bakar bat be indarreko legeetan. Lehenengo eta behin, gizarte-langilearengandik pasau beharko dabe, harek adierazo daian babesbakotasuneko arrisku larria dagoala, eta, aldi berean, bide emon daian Aldundiko Arreta Zerbitzuak erauzketako tresna barri hori aplikau deion, eta, emoten badau, ze, ohartarazoko dot, ez dau beti emongo, lo egiteko leku bat daukanean, autonomia edo bizileku bat ez eukiteaz ganera, ez dau emongo, eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bialduko dabe atzera. Hori ez da jazoko dana, hori daborduko jazoten dana.

Eta tresnari buruz berba egiten jarraituko dot, asko interesetan jat eta. Esan gura dot, laburbilduz, gaur egungo legeriaren arabera, tresnea, indakeriaren biktima diran andrentzako babesbakotasun-tresnea arautzen dauen Foru Agindu hau xedapen orokorra baliobakoa dala zuzenbidean, Administrazino Publikoen Administrazino Prozedura Erkidearen urrietaren leko 39/15 Legearen 47.2 artikuluan xedatutakoa aplikauz, emon dauen organuari ez jagokozan eskumenak arautzen dauz eta. Eta horretan itxiko dot, horretan ixiko dot. Guk, Legea irakurten ez dogunok.

Halanda ze, ez, ez gara populistak, zorroztasun handia daukagu, zorroztasun juridikoa be bai, batzuei gustau ez arren. Eta hemen kontua ez da terapia psikologikorako diagnostikoa, langile horreek era diziplinartekoan egiten dabena ez da terapia psikologikorako diagnostikoa. Kontua diagnostiko bat egitea da, ez arlo psikologikoan esku hartzeko, gero Esnatu programeak egingo dauena, hori Esnatuk egingo dau. Hemen, kontua diagnostiko integrala egitea da, behar beste saiotan, emakume horren beharizanak ikusteko, beharbada ez dau arreta psikologikorik behar, eta gerora emongo jako beste programa baten. Begira zertaz gabiltzan berbetan, eta zer dakigun horretaz.

Nuestra misión es recuperar los programas de atención integral especializados en violencia contra las mujeres, también en nuestra moción, señora Gil, y sí, esos programas han desaparecido.

Y no voy a extenderme demasiado porque ya hablé de esto en el Pleno anterior. Baina ziurtatzen deusut eraginkorrek izango diran programak berreskuratu behar doguzala, prozesu osoan laguntza integrala emongo dabena, abiapuntu hartuta andra horreek kontziente be ez dirala indarkeria matxistearen biktima izateaz. Eta hori, gaur egun, dagozan programakaz, ezin da.

Txikiak, tira, eskatzen deusuet Txikiak programeara deitzeko, eta ikusiko dozue sarbidea zuzena dan edo oinarrizko gizarte-langilearengana edo Umeen Psikiatriako unidadera bideratzen zaituen, hori aldarrikatzen gabiltz, ez aurretiazko salaketa bat egotea, baizik eta sarbidea zuzena izatea, dekretu eta legedietan aurreikusten dan lez.

En el anterior Pleno de Control me dijeron que veníamos con populismos, y que sería mejor leer bien en qué andábamos. Miren, hoy traemos la demanda de repensar todo eso que han llamado ustedes la estrategia de Bizkaia, y que, en nuestra opinión, propone que se deshaga el Servicio de Mujeres de la Diputación.

Han desarrollado ustedes una herramienta para valorar socialmente la desprotección de las mujeres víctimas de violencia machista en Bizkaia, y la han puesto en marcha. Con esto se mide, al parecer, la indefensión de las mujeres que han sufrido violencia. Y lo que decimos es que si la herramienta de valoración estuviera hecha desde la perspectiva de género, si ayuda a valorar a estas mujeres, a diagnosticarlas y a evaluar los recursos especializados que necesitan de una manera más concreta, bien, si ayuda, como acompañamiento.



Y sí, señora Laespada, hemos leído la Ley, los Decretos y la Ley Orgánica y, como los hemos leído correctamente, los hemos interpretado junto con otros, también desde los Tratados de Derechos Humanos, consideramos necesaria la aprobación de esta moción. No creemos en populismos.

Sinisten dogu entzute aktiboan, pausuak emotean, kalea zapaltzean, gure inguruan arazoa non dagoen ulertzen lagunduko deuskuen profesionalak eukitean, eta, itxurakeria morearen aurrean, eta holan esango dot, argi eta garbi, itxurakeria morearen aurrean, gure ustez, entzute aktibo gehiago gura dogu, prestakuntza gehiago, kalea gehiago zapaltzea, erakunde honetatik zelan lagundu behar dan aholkatuko deuskuen profesionalaz inguratzea.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua.

El representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Lehenengo eta behin esan gura dot, guk mozino honen puntuez egiten dogun balorazinoa, bistan dagoanez, kasu honetan gizarte-langile baten eta psikologo baten ikuspegitik egiten dogula. Halanda ze, argi itxi gura dot ez dala gai politikoa, ikuspegi profesionala baizik. Hau da, gure botoaren noranzkoa justifiketeagaitik, eta errepikakorra izateko asmorik barik, 1. puntuaz ez dogu aldeko botorik emongo, gure ustez ez dalako ez posiblea ez erreala. Dekretu honek berak zuen proposamenari jagokonez kontuan hartu beharreko alderdi bi zehazten dauz.

Alde batetik, esaten dau indarkeria matxistearen biktima guztiek, emakumeek eta haren guraso-ahalpean edo zaintza eta jagoletzapean dagozan adinbakoek, beren-beregi eurei zuzenduta dagozan Prestazino eta Zerbitzuen Karterako prestazinoak eta zerbitzuak eskuratu ahal izango dabezala, inork administrazino-betekizunik eskatu barik, eta nahikoa izango dala deskripzino teknikoa. Eta, bestetik, gizarte-larrialdiko kasuetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuak zuzenean jarriko dira hartu-emonean Foru Aldundiagaz, berehalako harrera-zerbitzua behar dabenean etxeko tratu txarren biktima diran andren kasuan, hau da, etxeko tratu txarren biktima diran emakumeentzako egoitza-zentroa, berehalako harrera-zerbitzua edo foru-eskumeneko beste edozein egoitza-zerbitzu behar dabenean kasuan.

Hortaz, gure taldearen ustez, oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ezinbestekoak dira, kasu honetan, baliabide espezializatuarentzako sarbide zuzena bermatzeko, gehienetan hareek dira-ta testuinguru judizialek edo polizialek igaro ez dan zuzeneko baliabidea. Gure ustez, arreta espezializatuaren zerbitzuetara sartzeko ate bat baino gehiago zabalik eukitea positiboa da emakume guztientzat. Arreta-zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, eta hori be izan daiteke sartzeko ate bat. Gizarte Zerbitzu horietatik ez igarotea udalek arlo horretan esleituta daukiezan ahalmenak eta eskumenak ukatzea da, bai udalerriko biztanleei, orokorrean, Orientazino eta Balorazino Zerbitzuan arreta emoteari jagokonez, bai indarkeria matxistearen biktima diran emakumeak artatzeko pisuak eukiteari jagokonez.

Bigarreanean, aldeko botoa emongo dogu; ez dogu alkarrizketa integrala berreskuratu gura, baizik eta bermatu. Hirugarren puntuaz, gure botoa be kontrakoa izango da, tresnari eta psikodiagnostikoari erreferentzia zuzena egiten deuskien item horreei buruz daukaguzan zalantzak gorabehera. Gure ustez, dagoeneko existiduten dan tresna da, nahi-ta ez



dan arrunta, eta, beraz, haren baliozkotasuna eta fidagarritasuna aztertu beharko dira, eta, batez be, intrusismo profesional ez ete dakarren.

4. puntuan, ez dogu aldeko botorik emongo, gure ustez, 18 urte daukazan programa bat berreskuratzea, Gil andreak zeozer esan dau horretaz, indarrean dagoan gaurkotasunari zeozelan jaramonik ez egitea dalako. Estrategiak ezarteak familia-eredu barrietan oinarritutako gaur egungo eta berariazko arazoak konpontzen laguntzen deusku.

5. puntuan, kasu horretan be, gure botoa kontrakoa izango da. Arretea emoteaz gain, arretea bermatu behar da. Izan be, 2015. urtea ezkeroztik, artatu ezean, indarreko legedia urratzen da. Txikiak programan sartzeko baldintzek ez dabe akreditazio judizialik eskatzen. Honeek dira: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizitzea edo erroldatuta egotea; indarkeria matxistako gaur egungo egoera bat egotea edo egon izana, edo aurretik izandako indarkeriaren ondorioek irautea; arretea-eskaria egitea amak edo arduradunak, kasuan inplikautako profesionalak, edo adinbako edo nerabeek eurek, 16 urte baino gehiago badaukiez, eta amak genero-indarkeriako egoerari buruzko aurretiazko prozesu personal bat egin izana, profesionalakaz batera edo ez.

Hori guztia, esan dodan moduan, alde batera itxita haren administrazio-egoera erregularizatuta egon zein ez, edo indarkeria matxistagaitik salaketa ipini zein ez.

6. puntuagaz guztiz ados gagoz, eta interesgarria izango litzateke, era berean, zerbitzuen kudeaketan lehiaketa publikoa ahalbidetzea, hirugarren sektoreko erakundeakazko gaur egungo lankidetzat-hitzarmena aldatuta. 7. puntuan, ez jaku egokia iruditzen, baina denporea amaitzen jatanez, azalduko deusuet ados gagozala goi-kargudunen prestakuntzagaz, ados egongo gintzatekez, prestakuntza horrek, euren egitekoen aplikazioan ezeze, erabagiak zuzenean hartzean be eragingo baleu. Halan ez bada, ez jaku beharrezkoa iruditzen. Ganera, kasu guztietan etenbako prestakuntza izan beharko leuke, jakina.

Amaitzeko, aukera hori aurkeztu daben eta mozino honi bide emon deusien pertsonak, psikologoen, erraioia daukien edo ez albo batera lagata, argi eta garbi esan behar da, gure ustez behintzat, euren burrukan ez dabela lanpostuan jarraitzea eskatzen, lanpostua eurek bete beharrik barik mantentzea baino, izan be, benetan kezka eragiten deusena, edo behintzat hori da gure taldeak ulertu dauena, modu egokian edo ez, arretea emoten deusien emakumeak dira, eta hori hemendik eskertu behar da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

A continuación, tiene la palabra el representante del Partido Popular de Bizkaia, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias, señora presidenta.

Labur esatearren eta azaldu doguna barriro aitatzearren, Talde Popularrekook ez gaitu bape konbentziduten Enpleo, Gizarte Kohesino eta Bardintasun Sailearen berregituraketa-proposamenak. Eta, gainera, agirikoa da beraren barruan dagoan adostasunik eza. Esan dogun lez, genero-indarkeriaren biktima diran andren diagnostikoan, gure ustez, gizarte-langilearen funtzinoak eta psikologoa ez dira ezelan be bateratuezinak, eskuhartze horretan, eta guztiz osogariak izan beharko lirateke.





Eta ez dogu ulertzen zerbitzu jakin hori ezabatzeko txostenaren zergaitia, eta hori jasota geratu daiten gura dogu.

Eta, azkenik, botoari jagokonez daukagun jarrera finkatzearen, abstenidu egingo gara mozino honen aurrean, ez dogulako ulertzen itaun batetik ailegau izana mozino honetara, zeinak Enpleo, Gizarte Kohesino eta Bardintasun Sailearen politiken zati handi baten ganean diharduen, gure ustez modu desegokian, eta, arabere gehiago, eztabaidan agirian geratu barri dan lez, funtzionetan daben programak zalantzan jarten dira, proponidu dan moduan. Besterik ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

A continuación, tiene la palabra la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene usted la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, de nuevo.

Gogor samarra iruditu jat zelan hasi dozun erantzuna, zalantzan ipiniz berba egin dogun ganerako emakumeon sensibilitadea, biktima zuzenak ez izategaitik. Espero dot txarto ulertu izana, itzela da-ta egin dozun baieztapena.

Baina, tira, esango deusuet sekulan ez dala hain egokia izan “errealidadeak ez deizula titular on bat zapuztu” esaldi ospetsua. Eta nik uste dot gaur goizean indarrez agertu dala kamara honetan horixe, hain zuzen be, itxurek errealidadearen aurrean daukien prebalentziaren teoriagaz. Neure lehenengo agerraldian esaten deusuegaitik dinot hori: balio-judizioak egiten dozuez esparru juridikoan oinarritu barik, eta behin baino gehiagotan azaldu deusuegu Gizarte Zerbitzuen eta arreta-zerbitzuen arkitekturan sartzeko eredia. Eta uste dot oso datu argigarria emon ebala diputadu andreak, aurrekoan. Bizkaian euki ebezan 3.000 emakumeetatik, 2.500 sarbide zuzenetik etozan, eta 500 baino ez oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik bideratuta.

Baina esango deusut, berbabide daukagun gai serio honetan, zorrotzasun falteak, edo egia erdiek, edo desinformazioak, oso ondorio txarrak daukiezala indarkeriaren biktimentzat. Horregaitik, nire taldeak argi itxi gura dau gaur, eta mezu ozen eta argia bialdu gura deutse Bizkaiko emakumeei, esanez ez dala Biktimei Laguntzeko Zerbitzua desegingo, ez dala arreta psikologikoa kolokan jarriko, eta ez dirala emakumeak babes barik itxiko, kontrakoa baino. 2021ean abian ipinitako eredu barriak, hain zuzen be, genero-indarkeriaren biktimakanako arrete indartzen dau, erdiunean ipinten dauzalako, ez baliabidea erdiunean ipinen dauelako, baizik eta emakumea erdiunean. Ikuspegi feministako eredia da, kutsu komunitariokoa eta interseksionalekoa. Eta, ganera, arrete emoteko balizko kasuak zabaltzen dauz, eta, beraz, artatutako emakumeen profilak dibersifiketan dauz, emakume gehiagorengana eta ahalik eta ondoen heltzeko.

Eta begira, nire lagun batek esaten dau datuak hil egiten dauela kontakizuna, eta nik datu batzuk emongo deusudaz gaur goizean kamara honetan egin gura izan dozun kontakizuna deseregiteko. Indarkeria matxistearen biktima diran andrei laguntzeko Zerbitzuaren aurrekontua bikoiztu egin da 2015etik, 6,2 milioitik 11,8 milioira. Ostatu-plazen kopurua sano handitu da, larrialdiena 15etik 24ra igaro da, egotaldi erdikoa 66tik 123ra, ostatu-baliabide guztiak 81etik 147ra. Testuinguru komunitarioan laguntzeko plazei jagokonez, 186 plaza daukaguz, Txikiak programatik eratorriak. Personak artatzeari jagokonez, 15etik 23ra



igaro gara. Larrialdietan, artatutako 171 personatik 308ra igaro da. Batez besteko egotaldian, artatutako 97 personatik 181era. Testuinguru komunitarioko arretan, 184tik 456ra.

Ganera, beste mugari garrantzitsu batzuk be izan dira. Berbarako, Txikiak Zentroa zabaldu zan 2016an, eta genero-indarkeriaren biktima adinbakoei laguntzeko zentro aitzindaria da Euskadin. Zuen berbaldietan zelanbait desegiten gabiltzala aditzera emoten dozuen arreta psikologikoaren alorrean, zerbitzuak arreta zuzen, doakoa eta unibersala emoten jarraituko dau. 2023an maximo historikoetara iritsi da, 994 kasuri arreteka emonda, eta orain dala gitxi arreta deszentralizatuko beste 3 postu zabaldu dira. Ganera, errefortzu bat egon da, berehala jarduteko eta artatzeko, eta itxaron-zerrendarik egon ez daiten, Guadalupe jaunak esan deusuen lez. Eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko sarea osotzen daben eta bertan lan egiten daben 200 profesional ingurutik, % 38 psikologoak dira.

Horretaz ganera, 2023ko gabonilaren amaieratik, krisialdiko arretarako Euskadiko lehenengo zentroa daukagu, Espainiako hirugarrena.

Eta zergaitik dinotsut hori guztia? Hori guztia kontau deusut esateko genero-indarkeriaren biktima diran emakumeak babesteko sistemeak, ekarri gura izan dozun idean ez bezala, ez dauela atzeranzko urratsik egin, indartu egin dala, eta, hain zuzen be, genero-indarkeriara hurbilduz indartu dala, haren adierazpen guztietan, eta profil guztietan.

Eta denpora gehiagorik ez daukadanez, amaitu beste erremediorik ez daukat.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos.

Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Fika López, tiene usted la palabra.

La Sra. **FIKA LÓPEZ** andreak: Buenos días de nuevo.

Eukiaren kontrako eta mozinoaren ezezko botoaren kontrako neure lehenengo berbaldia osotzeko, esango dot, Emakume eta Familiaren Zerbitzua martxan ipini zanetik gaur arte, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat ekintza, baliabide eta programa bultzatu dituala, indarkeria matxistearen biktima diran andren eskaerei eta beharizanei erantzuteko. Eboluzino hori, jakina, denporan zehar egin diran lege-barrikuntza ugarien eskutik etorri da. Barrikuntza horreek beharrezkoak ziran danok ezagutzen dogun gizarte-errealidadeari erantzun irmea emoteko, eta bardintasun-politketan adostutako akordioak hartzera eta biktimak babesteko sistema barriak eratzera behartzen gaitu.

Horregaitik guztiagaitik, Bizkaiko Foru Aldundia arau-aldaketetara egokitzen dabil, profesionaleri emakumeagaz ikuspegi zuzenagoan lan egiteko aukerea emongo deuseen hainbat neurri hartuta, biktimarentzako zerbitzu eta baliabide egokienak abian ipintea errazteko. Zerbitzu eta baliabide horreek ez dira arreta psikologikoko prozesuakaz lotuta egon behar bakarrik, modu personalagoan artatzeko baliabideak be izan behar dabe, emakumeari entzun dakiola, hainbeste urtez isilik egon ondoren. Azken baten, babestuta eta seguru sentitu daitela prozesu osoan.

Horretarako, indarkeriaren arloan prestatutako langileak dagoz eta egongo dira, eta derrigorrezko etenbako prestakuntza hartu eta abian jarriko da; izan be, biktimei arreteka emoteko esparru horreetan inplikazino horreek, prestakuntza hori, instituzinoek bermatzen



dabez, emakumeen aurkako indarkeria matxistearen biktimei arreteta emoteko koordinazinarako 2023ko urtarrilaren 23an sinatutako akordioaren arabera.

Euzko Abertzaleak batzar-taldean indarkeria matxistearen kontrako burrukan lanean jarraitzen dogu eta jarraituko dogu, indarkeria horren prebentzinoan eta horretarako beharrezkoak diran neurri guztiak hartzeko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Fika López.

Y finalizado el debate, debemos someter a votación la iniciativa. Se ha solicitado una votación especial, y, de acuerdo con la normativa, es la proponente quien debe aceptar que se pueda votar punto por punto. La señora Iardia lo confirma. Por lo tanto, realizaremos 2 votaciones. Por un lado, someteremos a votación los puntos primero, tercero, cuarto y quinto de la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido 48 votos en total. Han sido 14 votos a favor; 29 votos en contra; 5 abstenciones. Por lo tanto, no se aceptan los apartados de la moción mencionados.

Y, a continuación, sometemos a votación los puntos segundo, sexto y séptimo. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido 48 votos en total. Han sido 16 votos a favor; 29 votos en contra; 3 abstenciones. Por tanto, no han sido aceptados dichos puntos de la moción, por lo que la moción no ha sido aceptada.

A continuación, el segundo punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000460](#))

**Autor:** Vaquero Moreno, Ricardo (GM/TB-EB)

**Asunto:** Movilizaciones del sector primario.

**Documento Principal:**

([R.E.12/E/2024/0000460](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (11A)

**Expediente:** ([12/B/20/0000856](#))

2.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000460SE](#))

**Egilea:** Vaquero Moreno, Ricardo (GM/TB-EB)

**Gaia:** Lehen sektorearen mobilizazioak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000460SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (11A)

**Espedientea:** ([12/B/20/0000856](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Así pues, señor Vaquero Moreno, tiene usted la palabra.



El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Tira, euki apur bat trinkoagoagaz gatoz, baina ez horregaitik garrantzi gitxiagokoagaz. Joan dan hilaren 28an esan genduan lehenengo sektorea egoera kritikoa dagoala, eta egoera hori Europa osoan egindako protesten bidez azaldu zala, baita gure lurraldean be. Gure ustez, konpondu bako gatazka bat egoan eta dago, eta porrot egin dauen eredu bat, oinarritzko alderdiakaz aldatzen ahalegindu behar doguna. Esaterako, Elikadura Katearen Legea betez, zeinak produkzio-kostuetatik behera saltzea debeketan dauen.

Gogora dakargu, behin eta barriro, landak ekoizten ez badau uriak jaten ez dauela dinoan esakune hori. Eta nire taldeak erakunde guztietan egin ebazan proposamenak aurkeztu genduzan, eta, azkenik, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko diputaduari be galdetu geuntsan, Aldundiak nekazaritzako eta abeltzaintzako familia-ustiategi txikiak defendiduteko hartu beharreko neurriei buruz, haren bideragarritasuna sustatzeko. Hasierako erantzunean, egia da, eskumenen eremua erabiliz justifiketan saiatu zan, baina pausuak emoten dabilzala ulertu genduan, eta horregaitik proponidu dogu itaun haren ondoriozko mozino hau.

Danok daukagu argi Bizkaian nekazaritza gitxi dagoala, eta, dagozan nekazaritza-ustiategietatik, % 10ek baino ez daukiezala jarduera horretan esklusibotasunagaz behar egiten daben titularrak. Urtero desagertzen dira baserriak, ez dago belaunaldien arteko erreleborik, eta ustiategien arduradunaren batez besteko adina 58 urtekoa da. Artikulu baten esan eben lez, ahalegin handia da sari gitxi lortzeko. Baina, zertaz kexetan ziran Bizkaiko baserriarrak eta abeltzainak? Produkzio-kostu handiez, salmenta-prezio txikiez, banaketa-kate handiek ezarten deusezan abusuzko baldintzez, larrerik ez egoteaz, barriztagarrien ondoriozko espekulazioaz, Nekazaritza Politika Bateratuaren, NP Bren guztiz menpe egoteaz, eta Europar Batasuneko arauen burokratizazio handiaz.

Gure taldeak negoziatzinorako 7 puntu aurkeztu ditu, eta gero azalduko dogu negoziatzino hori zelan egin dan. Lehenengo eta behin, asmoen adierazpen bat egin genduan, eta Batzar Nagusiei eskatzen geuntseen bidezko trantsizino ekologikoaren preminazkotasuna autortzeko.

Bigarrenik, Batzar Nagusietatik, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen geuntsen Bizkaiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi txikiei balioa emoteko eta defendiduteko, eta bideragarritasuna sustatuko daben neurriak ezarteko, ustiategi txikienk lurraren jaubetza kontserbetako, belaunaldien arteko erreleboa egiteko, produktuak merkaturatzeko eta banatzeko, kalidadean eta bereizketan oinarrituta.

Hirugarrenik, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Eusko Jaurlaritzari, Elikadura Katearen Legearen aplikazioa eta ikuskapena indartzeko, lege horren aplikazioa hobetzeko eta arintzeko, banatzaileen eta bitartekarien abusuak saihestuta, transakzio komertzialetan gardentasuna eta ekidada sustatzeko, eta ekoizleak Legearen bidez defendiduteko.

Laugarren, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaerea egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, elikadura-burujaubetasuna nekazaritza-politikaren erdiunean ipini daian, persona eta animalien osasuna eta ingurumenari lehentasuna emonez, nekazariet lagunduz, eredu barria familiako eta tokiko nekazaritzara bideratuz, elikadura osasungarria eta ingurumen-jasangarritasuna gaur egungo testuinguruan bermatzeko ezinbesteko zutabea dalako.

Bosgarren, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, klima-aldaketeak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean daukazan eraginaren segimendu jarraitua egin daian.



Seigarren, larre faltari eta barriztagarren ondoriozko espekulazinoari erantzunez, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen deuse balio agrologiko handiko nekazaritza-lurra barriztagarren makroproiektuen aurrean babesteko.

Eta, amaitzeko, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deuse Europako Batzordeari, Nekazaritza Politika Bateratuagaz zerikusia daukien erabagietan herritarren partaidetza modu aktiboan sustatu daian, benetako demokrazia deszentralizaua bermatuta, tokiko landa komunitadeen beharrak eta asmoak islatuko dituana, eta elikagaien burujabetza nekazaritza-politikearen erdian ipini daian.

Horreek dira gure proposamenak, apur bat trinkoak, dinodan lez, autortzen dot, baina, zeozelan, sektorearen eskariak batu ez eze, erakundeen eta herritarren inplikazioa be ahalbidetu gura dabe, arazo hau ez dalako baserritarrena bakarrik, danon arazoa da.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

A continuación, los grupos Nationalistas Vascos y Socialistas Vascos presentaron una enmienda. Por tanto, la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Rebollo Frías, tiene usted la palabra.

La Sra. **REBOLLO FRÍAS** andreak: Buenos días. Gracias, señora presidenta, eta egun on danoi.

Elkarrekin Bizkaiak itaunetik eratorritako mozino bat planteau dau, Bizkaiko nekazaritza-sektorearen egoereagaz lotuta, eta ezin doguz alde batera itxi Vaquero jaunak itaun hori eztabaidatu zan Osoko Bilkuran egin ebazan baieztapenetako batzuk. Vaquero jaunak, orain dala aste bi eskas egindako azalpenean, konpondu bako gatazka bati buruz berba egin eban, porrot egin dauen nekazaritza-ereduari buruz, sektorearen egoera erabagi instituzionalen ondorioa zala, eta Europar Batasunaren politikearen, ez-betetearen, kontrol zorrotzaren faltearen ondorioa. Egoerearen zergaitien bila jarraitu zenduan, eta merkataritza libreko itunen politikea aitatu zenduan, zeinean kanpotik inportetan diran produktuei ez jakezana baldintza berberak eskatzen. Eta, kontakizun hori amaitzeko, esan eban ustiategi txiker eta ertainei NPBa baino ez jakela geratzen, Nekazaritza Politika Bateratua, bizirauteko, eta politika horrek egoera tamalgarrian egotera behartzen ebazala, dirulaguntzetatik bizitzera kondenetan ebazala, eta burokratizazio gaitzesgarria jasatera. Hori da Vaquero jaunak Kontroleko Osoko Bilkuran erabili eban berbakerea. Eta, jakina, talde sozialistan ezin gara ados egon baieztapen mardul horreekaz.

Baina luze joko leuke nekazaritzako elikagaien Europako balantza komertzialaz berba egiteak, edo Nekazaritza Politika Bateratuaren garrantzi historikoaz, edo Europar Batasunean erabagiak hartzeko formula konplejuaz, eta ez daukagu denporarik. Dakizun moduan, eta zuk zeuk be adierazo zenduan moduan, Espainiako nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen mobilizazioetan nahastu egin dira sektorearen zati handi baten interes eta eskari legitimoak eta hain legitimoak ez diran beste interes batzuk, eskumako muturreagaz lotutako personek eta plataformek gidatuta. Horreen helburu bakarra da euren interesetan oinarrituta protestak politizatea, eta ezbaian ipintea ezinbesteko zenbait politika, larrialdi klimatikoaren kontrako burrukea, besteak beste. Interes horreek, bide batez, edozein zirrikitu aprobetxau gura dabe Espainiako Gobernu eraisteko, eta zuek be Gobernu horren parte zinien.



Horregaitik, lehenengo eta behin, beharrezkoa da mobilizazio horreek eta sektoreak Bizkaian egiten dituan eskariak bereiztea. Azken horreek, Atutxa diputadu andreak gogorarazo eutsuen lez, hiru alderditan zentretan ziran: merkataritza libreko akordioak, Mercosurrekoa eta Zeelanda Berrikoa, berbarako; produktuen prezioak, baserriarren ekoizpen-kostuak bardintzeko; eta egaur gungo politika bateratuaren sinplifikazioa. Eta datuakaz baieztatu eban, sektoreagazko alkarrizketea etenbakoa eta izan dalako eta izaten jarraitzen dauelako, eta holan jakinarazo eutsien. Eta horixe dago jasota Foru Gobernua sostengatzen dogun taldeok aurkeztu dogun zuzenketan. Oraintxe irakurriko dot, bilkura-saioen egunerokoa jasota geratu daiten. “Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, lehen sektoreagaz zuzeneko alkarrizketea izaten jarraitu daian, Bizkaiko lehen sektoreak gure lurraldean egin dituan eskari zehatzak entzunez eta aztertuz”.

Baina baserriarrek eskatzen dabezan 3 gai horreei buruz zeozer gehiago esan gura neuke. Izan be, Alderdi Sozialista eta Espainiako Gobernua sektorearen eskari horreen aurrean sentiberak izan dira, eta erantzunak proponidu dabez. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura ministroak, zezeilaren 21ean, 18 neurri zehatz ipini ebazan mahai ganean, eta ASAJA, COAG eta UPA nekazaritzako erakundeei helarazo eutsezan. Neurri horreen asmoa nekazarien kezkei erantzutea zan, zenbait arlotan. Besteak beste, Elikadura Katearen Legea betetea eta hobetzea, Nekazaritza Politika Bateratuaren arauak betekizunak sinpletzea eta hirugarren herrialdeetako merkataritza. Bizkaiko nekazarien eta abeltzainen eskari berberak. Neurri horreek Europako Nekazaritza Kontseiluaren zezeilaren 26ko bileran iragarri eta defendatu ebazan ministroak.

Baina, ganera, hemen, Euskadin, lehenengo sektoreari laguntzeko konpromisoen dekalogotik harago (Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sinatu eben dekalogoia, eta aurreko Kontroleko Osoko Bilkuran azaldu zan), beste ekimen batzuk be gauzatu dira Eusko Legebiltzarrean, eta ekimen horreek gehiengo handiagaz eta adostasun handiagaz onartu dira, zure taldearen eta nire taldearen babesagaz, besteak beste.

Pero bueno, yo voy a lo positivo, y lo que queremos es... PNV y PSOE han presentado una enmienda a la totalidad, no ha sido posible conseguir una transaccional, porque que nosotros y nosotras queríamos era, si no otra cosa, recoger al menos el compromiso de que en el próximo Plan Foral se van a hacer unos Presupuestos participativos, y eso no ha sido posible. Hemos cambiado también la forma, pero no ha sido posible alcanzar ese compromiso. Al final, estábamos dispuestos y dispuestas a quitar el segundo punto, pero lo único que queríamos era Incluir en ese III. Plan Foral los procesos de Presupuestos participativos. Y eso no ha sido posible.

Por tanto, a sabiendas de que el II. Plan Foral para la participación está finalizado y de que la elaboración del III. Plan Foral para la participación se va a culminar en los próximos meses, y que, por otra parte, el Diputado manifestó su vocación de seguir dando pasos en al ámbito de la participación, hoy presentamos la siguiente moción para su debate aquí. Consta de dos puntos:

Uno es que la DFB recoja el proceso de incorporación de las propuestas de la ciudadanía y los agentes sociales dentro de la elaboración del anteproyecto de Presupuestos.

Y el segundo es la redacción, mientras eso se aprueba, de un protocolo que recoja todos los detalles para promover nuevas dinámicas de participación en los presupuestos abiertos de 2025.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Buruaga Bárcena. A continuación, el representante del partido Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.



El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora presidenta, señores y señoras, buenos días.

Oso pozik egon naz gaur goizean, hona ailegau eta “berehala toketan jat, eta goiz librea” pentsau dodanean. Aldaketa horreek... Lehenengoa berba egiten, gero azkena, tira, ez dau axola. Aurrera, danok bardin gagoz ta.

Mozino honen bidez, Euskal Herria Bilduk dei egiten deusku egiten deusku Bizkaiko Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Foru Planean herritarren zein gizarte-eragileen proposamenak jaso daitezcan, aurrekontuaren aurreproiektua egiteko prozesuan. Era berean, eta III. Foru Plana gauzatuta ez dagoan bitartean, protokolo zehatu bat idatzi daiten, 2025eko aurrekontua egiteko partaidetza-dinamika barriak jasoz.

Proposamen horri, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeok osoko zuzenketa hau aurkeztu deusagu, eta, bilkuren egunkarian jaso daiten, irakurri egingo dot:

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaerea egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Foru Planaren lanketea martxan dagoan partaidetza-prozesu zabalaren ondorioz jasoten dabilzen ekarpenak kontuan izanda, eta arlo posible guztiak aztertu ostean, aurrekontuena barne, aurrera egiten jarraitu daian, Bizkaiko Lurralde Historikoko politika eta zerbitzu publikoen zehaztapenean eta diseinuan herritarrek parte-hartze handiagoa eta hobeia eukitea ahalbidetuko daben tresnak eta kanalak gehitzen eta hobetzen.

Badakigu herritarren parte-hartzea funtsezkoa dala gizarte demokratiko batek funtzionamentu osasuntsua eukiteko. Eta halan da, erabagi politikoen zilegitasuna indartzen dauelako, herritarrak erabagiak hartzeko prozesuan sartuta. Funtzionarioek eta hautetsiok kontuak emoteko mekanismo lez balio dau. Erabagiak hartzeko prozesuan hainbat ahots eta ikuspegi kontuan hartuko dirala bermatzen dau, eta horrek lagundu egiten dau interes partikularrak gailentzea saihesten, eta politika inklusiboagoak eta bidezkoagoak sustatzen ditu.

Era berean, uritarren kontzientzia sustatzeko balio dau, herritarrak gai publikoetan inpliketan dituelako eta euren eskubideei eta erantzukizunei buruz hezten dituelako. Horrek gizarte informauago eta konprometiduagoa eukiten laguntzen dau.

Eta, azkenik, herritarren parte-hartzeak idea eta urtenbide barritzaileak sortu daikez erronka sozial eta politikoetarako, herritarren askoatiko esperientziak eta ezagutzak aprobetxauz. Hari esker, komunitadea eregiten lagundu daikegu, herritarrek alkarregaz konektetea eta euren ingurunea hobetzeko alkarregaz lan egitea ahalbidetuta. Holan, gizarte-loturak sendotzen dira eta kohesinoa sustatzen da gizartearen barruan.

Horri jagokonez, ezin gara ahaztu Batzar honeetan Herritarren Partaidetzari buruzko Azterketa Batzordeak 2017an egindako lanaz. Batzorde hori 2000ko maiatzaren 15ean sortu zan aho batez, Osoko Bilkurearen erabagiz. Horren jakitun, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso irmea dauka bere politikak, programak eta zerbitzuak lanketan eta ebaluazinoan parte hartzeari jagokonez, parte-hartzea kontzeptu zabaltzat hartuta, zeinaren barruan lurraldeko eragile instituzional, sozial eta ekonomikoen bidez egindakoa zein herritarrek zuzenean garatzen dabena dagozan.

Eta halantxe gogorarazo euskun Izagirre jaunak joan dan zezeilaren 28ko osoko bilkuran, 2023-2026 aldirako Bizkaia Denontzat aginte-planaren helburuak azaltzean.

2016an Gardentasunari buruzko Foru Araua onartu zanetik, gardentasuna da Aldundiaren jarduna bideratzen dauen Gobernu edegiaren printzipioa, herritarren eta gizarte eragileen parte-hartzea sustatu eta baloretako. Ildo horretan, denpora falteagaitik aitatu barik



itxiko dodazan adibide batzuk emon euskuzan. Era berean, araudiak egiteko, webgunean parte hartzeko arau-prozesuak egiteko gune bat gaitu da, eta arabere gehiago, aukerea emon jake halan gura daben persona eta kolektibo guztiei foru-arauak eta dekretuak egiteko, partaidetza-prozesuei buruzko abisuetan harpidetzeko aukerea emoten dabenak. 2020tik, herritarrek 959 arau-prozesutan parte hartu dabe, eta prozesu horretatik 87 ekarpen baino gehiago jaso dira. Halanda ze, ez da argazkirako bakarrik egindako plan bat.

Aurrekontuak egiteari jagokenez, gaur egun, Bizkaiko aurrekontuen legegintza-planean planteetan dan partaidetza-ereduan, herritarrek, alkarteek eta generako gizarte- eta kultura-erakundeek aurrekontuen tramitazioan parte hartu daikie, behar bezala formulautako alegazioak eta proposamenak aurkeztuz. Batzarretako taldeei helarazoten deuskue. Eta horrenbestez, egoki baderitxagu, konponketa-eskaera lez txertatuko dogu, Taldearen ustez egokia dana.

Gaur egun, Bizkaiko herritarren partaidetzarako III. Planaren partaidetza-garapenaren fasean gagoz, eta, horren bidez, herritarrek lurraldeko gai publikoetan modu aktiboan parte hartzea sustatu gura da. Europako gobernu barrizailleonek gero eta joera handiagoa daukie eztabaidarako prozesuak bermatzeko, gizartearen lagin bategaz, erronkei aurre egiteko, ezagutzak partekatuz, egon daitezkeen urtenbideak edo bitartekoak identifikauz parte-hartzaile eta arduradun publiko guztien artean.

Alde horretatik, Foru Aldundia be aitzindaria da arlo horretan. Izan be, 2022ko maiatzean herritarrentzako aurrez aurreko arretari buruzko eztabaida foroa egin zan. Herritarren 22 gomendio egin eta jaso ziran. Gomendio horreek dagoeneko aztertu dira sozialki, eta webgunean argitaratu dira, eta parte-hartzaile guztien bilakaera egin da. Sozialistok historikoki erakutsi dogu interesa eta konpromisoa daukagula herritarrek parte hartu deien, gure idea politikoaren funtsezko zatia da ta. Gure historian zehar, Alderdi Sozialistak erabagi politikoak hartzean eta, orokorrean, bizitza publikoan herritarren parte-hartzea indartzea helburu daukien politikak eta programak sustatu ditu.

Ildo horretan, 2023ko urtarrilaren 18an adierazo genduan babesba emoten deusagula herri-ekimen arauemoilea arautzen dauen Foru Arauari. Horren bidez, herritarrek eta gizarte-taldeek araugintzaren funtzinoan parte hartzea erraztu gura da, ekimenak proponiduteko prozedura errazagoa eta ez hain murriztailea izan daiten, gero Batzar Nagusi honeetan eztabaidatu ahal izateko.

Amaitu egingo dot. Bizkaiko Foru Aldundian herritarrek parte hartzea funtsezkoa da gure Lurralde Historikoan gai publikoen kudeaketan ordezkagarritasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzeko. Egiaz, eta modu iraunkorrean, erakunde bakotxean aurkitu behar dogu zer tresna eta eredu diran egokienak parte-hartzea areagotzeko, eta herritarrentzat, alkarteentzat edo edozein gizarte-eragilerentzat hori egiteko modurik onena.

Horregaitik, zuen esku dagoan eta berbaldi hau hastean aitatu dodana zuzenketea aurkeztu dogu.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Otermin Eraso. A continuación, el representante del grupo Nationalistas Vascos, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Gracias, señora Presidenta, Diputada General, diputados y diputadas, los nuevos y las nuevas y quienes no lo



son tanto. Señor Alzaga Sagastasola, bienvenido a esta cámara de los vizcaínos y las vizcaínas. Yo soy el último en darle la bienvenida. Junteros y junteros, buenos días, buen mediodía, y, casi ya, buenas tardes a todos y todas.

En respuesta a la interpelación realizada por EH Bildu en el pleno de febrero, el diputado señor Izagirre manifestó con claridad una serie de cosas.

Entre ellas, destacaré una por encima de los demás, que es la siguiente:

Impulsar la participación ciudadana y de los agentes sociales en todas las políticas públicas, programas y servicios de la DFB es, sin duda, uno de los objetivos del plan de mandato Bizkaia Danontzat para la legislatura 2023-2027.

Así estará recogido en el acta del pleno anterior, así se recoge en el plan Bizkaia Danontzat, y, además de estar recogido, como siempre digo, lo que es más importante, en eso está trabajando la DFB, también en la actualidad.

Señora Buruaga, usted ha dicho que puede que sea una ilusa, y que se planteaba que aprobaríamos esta moción. Yo también debo ser iluso, y pensé que, dada la respuesta que se dio a la interpelación, no incluirían ustedes la moción. Esta vez nos hemos equivocado ambos.

Pero el señor Izagirre también dijo claramente, aparte de lo que he mencionado, que este reto no es una cuestión que hayamos empezado en esta legislatura. La DFB lleva ya unos años trabajando por este camino, con constancia y coherencia. Se ha trabajado hasta hoy, se está trabajando hoy, y se seguirá de aquí en adelante. Y el resultado y la consecuencia de ello será el III Plan Foral de Participación Ciudadana y Social 2024-2027, que se publicará en el primer semestre de este año.

También en este caso, en mi opinión, lo más importante no será el Plan Foral en sí, sino cómo se ejecute dicho Plan Foral. Y ahí está la clave. Es muy importante dejar claro cómo, con qué metodología y con quién se está llevando a cabo este Plan. Porque el propio Plan de Participación se está configurando de forma participativa. Para afrontar los retos hay que compartir el conocimiento e identificar las posibilidades o vías que pueden existir entre todos las personas participantes y las que tienen responsabilidad pública. Y la DFB es pionera en este campo, al menos esta vez.

Este mes se culminarán tres foros de debate, con una amplia participación, y se analizarán las recomendaciones y propuestas recogidas en los foros de debate, para su inclusión, o posible inclusión, en el próximo Plan de Participación Ciudadana y Social. Paralelamente, se están llevando a cabo procesos de consulta para recoger mediante cuestionarios la valoración y propuestas de la ciudadanía. Entre ellas, se han enviado cuestionarios de participación a las 6.578 personas que conforman la red Bizkaitarren Sarea, a ayuntamientos, mancomunidades y a la plantilla de la DFB.

Se están haciendo talleres participativos con directores y directoras, y equipos técnicos de la Diputación.

La Diputación cuenta con 40 órganos estables de participación, a los que también se ha solicitado ayuda.

A la vista de ello, no cabe duda acerca del objetivo y del compromiso de la DFB en este tema, de las palabras a los hechos.





Pero el deseo de la DFB de fomentar la participación ciudadana no se limita a la Diputación Foral, por lo que desde 2022 existe una línea de colaboración abierta para apoyar o ayudar a los procesos participativos que promueven los ayuntamientos y mancomunidades. En 2022 se apoyaron 38 procesos participativos. En 2023 se ayudó a otros 38 proyectos. Y se ha cerrado el plazo de presentación de proyectos para 2024 y se han recibido 51 propuestas.

Esto es creer en un objetivo, llevar a cabo acciones para llevarlo a cabo y apoyar también a otras entidades que promueven la participación. De las palabras a los hechos, con proyectos concretos de participación, con compromisos, con cifras y haciendo lo que se pide de forma coherente y ofreciéndoselo al resto.

EH Bildu, ustedes, en esta moción, se limitan a los presupuestos participativos, ¿por qué?

A nuestro parecer, los presupuestos participativos deben ser una parte de todo este proceso o quehacer, una parte. ¿Una parte importante? Sí, seguro que sí, entre otras muchas. Pero, ¿la parte más importante? En mi opinión, no.

Lo importante es lo que la ciudadanía quiere, eso es lo que debemos tener en cuenta. Después de haber dado toda la información, qué priorizan, qué necesidades tienen, qué opiniones tienen, y después, a continuación, nos toca a quienes gobernamos las instituciones ver cómo llevamos a cabo esos proyectos o servicios.

Y los presupuestos son un instrumento imprescindible para esa ejecución de objetivos, un instrumento para el objetivo, no un objetivo. Yo así lo entiendo, y me parece que ustedes también, según los datos, en las instituciones donde EH Bildu gobierna. Pero aquí no, en las Juntas Generales de Bizkaia, al parecer, no.

También en este caso la historia, como en muchos otros ejemplos concretos, se repite, una y otra vez, como partido opositor un discurso y una demanda hacia los y las demás, cuando están en la oposición tienen claro el camino, y en los sitios donde están en el gobierno no van ustedes por ese camino.

Por último, para que quede claro, vamos a impulsar los presupuestos participativos, sí, ya los impulsamos en la actualidad, aquí y fuera de aquí, desde la oposición y desde el gobierno, con coherencia, y de cara al futuro también lo analizaremos, dentro de un plan de participación, y seguiremos avanzando, si se decide que es lo oportuno.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. La representante del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Barrero dator kamara honetara Aldundiaren aurrekontuetan herritarrek parte hartzeko mekanismoak ipintearen ganeko eztabaidea. Behin eta barrero egiten da eztabaida hori, eta, nire ustez, halan da agirikoa dalako hemen ordezkatura gagozan alderdi politikook daukaguzan partaidetza-ereduen arteko aldea.



Ni Lekerikabeaskoa jaunagaz bat nator, dinoanaren parte baten. Parte-hartzezko aurrekontuak zati bat dirala, eta, egia da, ez herritarrek parte har daikien parte-hartze prozesu guztiena. Baina parte horretaz berba egin gura dogu. Ez dogu eredu guztiaz, parte hartzeko prozesu guztiez berba egin gura. Parte-hartzezko aurrekontuen ganean berba egin gura dogu, zati zehatz horren ganean, eta gu aspalditik gabilz horretan. Aldundiaren kudeaketaren gai zehatz batzuetan, aurrekontuenean hain zuzen be, parte-hartze zuzeneko elementuak sartzeko eskatzen gabilz, jenteak erabagi ahal izateko mekanismoak, hain zuzen be. Eta erabagitea dinot, ez bakarrik hausnartzea edo eztabaidatzea, baizik eta erabagitea zer egin gura dauen, zer ipini gura dauen martxan.

Uste dot erraz ulertzen dala, eta ez dogu ukatuko, eta nik ez dot egingo, azken urteotan pausu garrantzitsuak emon dirala herritarrei parte hartzeko kanalak zabaltzeari jagokonez, baina, era berean, esan egingo dot, ez dakit Gobernu honek bere kabuz emongo ete ebazan, edo Europatik etorri dan Gobernu edegiaren eredu horren ondorioz eta Europatik etorri dan bultzadearen eta aldaketen ondorioz bultzauta sentidu ete dan, eta, ez daigun ahaztu, Europatik datorren bultzadeagaitik eta hortik datozan eskakizunakaitik. Eta gobernu edegiko eredu barri honetan egia da gardentasuna be, baina baita herritarren parte-hartzea be, higiene demokratikoko gitxieneko estandarrak bete gura dituan edozein gobernuaren ardatz estruktural bihurtu dala,

Orduan, nire ustez galderea da ea orain arte egin diran urratsak nahikoak diran ala ez, eta guk uste dogu urrats horreek ez dirala nahikoak. Gobernu hau, orain dala ez hainbeste, demokrazia ordezkatzaila irme defendidutetik deliberazinozko demokraziara igaroten ikusi dogu. Eta nik uste dot pausu hori oso egokia dala, garrantzitsua dala, ondo etorri, baina, egia bada be trantsizino hori beharrezkoa zala, uste dogu ezin garala gelditu arauak izapidetzeko prozesuan edo eztabaidarako edo hausnarketarako foroak sortzeko herritarren beharrezko parte-hartzea ezarten daben lege-aginduak beteteen, hainbat arrazoi dirala eta, begiratu.

Lehenengoa hau da: nork dauka foro horreetarako sarbidea? Argi eta garbi, antolatutako sektoreak edo gai jakin batzuetan adituak diranak. Eta hori holan da. Ekarri dozuezan datu horreek aztertu besterik ez da egin behar, nortzuk dabilzen parte hartzen.

Bigarrenik, zein da eztabaidatu edo hausnartu beharreko gaia? Aldundiak daroana, bere laneko helburuen artean dagoalako, edo ordezkaturako sektoretik eroaten dana, sortzen dabilen beharizan bat edo egoera disfuntzional bat igarri ostean hobekuntzak sartu ahal izateko. Baina ez daigun ahaztu, ganera, Gobernua dagoaneko hedatzen dabilen politika publikoa dala. Ez da ezer barria.

Eta, hirugarrenik, deliberazino-prozesu horreetatik aterako diran ekarpenak, gogoetak edo ondorioak ez dira ezelan be lotesleak izango, inoiz ez dira. Deliberazino-demokrazia ez dogu guk gaitzetsiko. Nik neuk ez dot egingo, uste dot beharrezkoa eta garrantzitsua dala. Era berean, uste dogu funtsezkoa dala kanalak zabalik eta ondo koipeztuta eukitea, alkarrizketa sozial hori egon daiten, eta, ganera, ahalik eta aberasgarrien izan daiten, politika publikoak hobetzeko. Baina ezin gara horretan geratu, eta uste dogu beharrezkoa dala Aldundiak aurrera egitea eta pausuak emotea, demokrazia zuzena bultzatzeko, jenteak aukerea euki daian garatu gura dauen ekimenari buruz erabagiteko.

Lo que se solicita es que la Diputación Foral sea capaz de ir más allá de la participación deliberativa. La cuestión no es solo abrir canales de información y tener disposición para hacer consultas o recibir alegaciones. Que se facilite que la ciudadanía forme parte de la decisión de las políticas públicas. Ese es el objetivo. No vale establecer criterios de gobierno abiertos, y, al mismo tiempo, que el compromiso sea únicamente para dar información o recibir alegaciones. Hay que cambiar, transformar. Y establecer un nuevo modelo de relación



entre la ciudadanía y esa institución. La cuestión es transitar de la democracia deliberativa a la democracia directa.

Eta gai horri jagokonez, gauza batzuk argitzeke dagoz hondino. Eta nik galdetu gura deusut ea Foru Gobernu honek noranzko horretan pausak emongo dituan edo ez. Aurreko Gobernuaren erantzunak ikusten badoguz, esate baterako, uste dot ezin dala espero egingo dauenik. Izan be, gai horri buruz galdetu jakenean, erantzuna beti izan da aurrekontuak alkarlanaren ondorio zirala, bertan agertzen diran politika publikoak badirala partaidetzazkoak, gaur egungo Gobernuko kideen erantzunei erreparetan badeutsegu, bai Berrojalbiz andreak bai Izagirre jaunak, legegintzaldi honetan, hori esan dabe eta hori nabarmentu eta azpimarratu dabe, hau da, aurrekontuak daborduko eztabaidatu diran eta hainbat gizarte-eragileren partaidetza euki daberen politika publikoak jasotzen dituala. Eta horrek pentsarazoten deusku ez dirala demokrazia zuzeneko tresnak gehitzearen aldekoak, parte-hartze bidezko aurrekontuak, berbarako. Halan be, kasu bietan, bai Berrojalbiz andreak bai Izagirre jaunak esan dabe parte-hartze bidezko aurrekontuen idea balorau daitekeala, partaidetzarako III. Foru Plan hau egiteko edegi dan partaidetza-foroan sortzen bada. Eta horixe bera esaten da, bestalde, aurkeztu dozu zuzenketan, ezta? Eta idea sortzen bada, loteslea izango da? Edo alegazioen funtzionamentu bera eukiko dau? Hau da, zuek erabagiko dozue?

Eta, beste alde batetik, sortzen ez bada, ez da nahikoa oposizionoko taldeok 2016. urtea ezkeroztik Aldundiaren kudeaketa-ereduan elementu hori sartzeko eskatu izana? Hori be parte hartzea da.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. A continuación, la representante del Partido Popular Bizkaia, señora González Díez-Andino, tiene la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko barriro, mahaiburua andrea.

Tira, nik uste dot talde guztiok bat gatozala, onena partaidetzazko aurrekontuak eukitea dala. Arazoa da gutako bakotzak zer deritxagun horretaz, edo zelan apliketan dogun. Eta arazoa horixe da, ez dala guztiz erabagiten zer diran edo zelan funtzionetan daben. Izan be, partaidetzazko aurrekontuak, alde batentzat, aurrekontu asanblearioak izan daitezke edo dira, non danek emoten daben eretxia danetaz, gura daben kopuruakaz eta gura daben moduan. Beste batzuentzat, partaidetzazko aurrekontuak zuzendutako aurrekontuak dira, “markau egizu zerrenda honetan zer aukeratuko dozun, neuk dinotsut zer aukera dagoan, baina ez aukeratu zuk”. Baina ez batzuk ez besteak ez dira, zehazki, partaidetzazko aurrekontuak. Asanblearioak, hain edegiak diranez, nekez bideratu daitezke, eta zuzendutakoak, azken baten, ez dabez benetako beharrak jasoten eta gatxa da eraginkorrak izatea.

Galderea, edo erronkea, hobeto esanda, erdibidea topetea eta aurrekontuak benetan partaidetza bidezkoak izatea da. Badakit ez dala mozinoaren helburua, baina nik uste dot hori dala gai honen kaxoa. Alde horretatik, mozinoaren ildoan, Alderdi Popularra hurrago dago Gobernu taldeak, EAJk eta Alderdi Sozialistek, proponidutakotik. Izan be, Plan hau, ondo garatuta, partaidetzazko aurrekontuak zer diran topetako puntu komun horretaranzko pausu bat izan daiteke. Baina, egia esan, mozinoa, berez, ez deusku koadretan.

Bai, ados gagoz herritarrek parte hartu behar dabela, eta gero eta gehiago, uste dot herritarrak gero eta inplikauago dagozala, gehiago interesetan jakela kudeaketaren



punturaino iristea, eta ez eretxiaren punturaino bakarrik, baina kasu honetan, esan dodan lez, ez dogu garbi ikusten zelan gauzatu hori.

Beraz, abstenidu egingo gara, eta konfiantzazko boto hori emongo dogu, ikusiko dogu zelan egiten dauen aurrera Plan horren garapenak, eta zer bide hartzen dauen. Eta, tira, ba, printzipioz, hau guztiau zelan amaituko dan begira, esan dodan moduan, gu abstenidu egiten gara mozino honetan.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak:

La Sra. **BURUAGA BARCENA** andreak: Muchas gracias. A ver si en cinco minutos me da tiempo a todo.

Primero, por aclararlo. EH Bildu no ha planteado en ningún momento que los presupuestos participativos sean la única participación. He dicho, tanto en euskera como en castellano, que tenemos muy claro que la participación es algo general, pero que, dentro de eso, hay que incluir también los presupuestos participativos. Por aclararlo. También hemos reconocido que la Diputación ha dado pasos. Ya lo hemos dicho. ¿Pasos? Sí. ¿Suficiente? No, pero el mismo diputado dijo que hay margen de mejorar.

Parece que no a salir adelante, y, ciertamente, nos da mucha pena, porque, insisto, ha sido una moción simple, sencilla, constructiva y abierta, para llegar a un consenso entre todos y todas, que parece que no va a ser posible.

La enmienda a la totalidad presentada por ustedes es un brindis al sol que no contiene ningún compromiso, y es evidente que no podemos aceptar algo así.

Después de recibir la enmienda a la totalidad, fuimos nosotros y nosotras quienes propusimos, ya lo he dicho antes, “eliminamos el segundo punto, nos olvidamos del 2025, si a partir de ahora, a partir del 26, hay presupuestos participativos”. Y lo que planteamos fue una moción de un solo punto:

*Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deustie Bizkaiko Foru Aldundiari, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako hirugarren Foru Plana egiteko esparruan, partaidetzarako tresna eta bide barriak sartu daizan. Horreen artean, herritarren eta gizarte-eragileen proposamenak gehitzea helburu eukiko dauen partaidetza-prozesu zehatua.*

Y entiendo, y creo, que todos y todas deberíamos estar de acuerdo con esto. No sé si se puede hacer algo más sencillo, simple y abierto. Solo un compromiso. Que en el III Plan Foral se recoja la elaboración de presupuestos participativos. Nada más.

Será el III Plan Foral de Participación 2024-2027, si no se recoge, ¿qué pasa? ¿Que los vizcaínos y las vizcaínas no tendrán hasta 2028 el derecho y la oportunidad que tienen las ciudadanías de Gipuzkoa, o la Álava? ¿Eso es lo que va a pasar? El PSOE ha dicho pionera, en cuanto a los debates forales. Se han hecho dos debates forales. Uno fue para adaptar el Servicio de Atención, y el de mayo de 2023 fue el foro de debate sobre la participación. En él se preguntaba cómo se pueden realizar los procesos para que la ciudadanía se informe o esté más informada. Pues son muchos. Se recomienda... Participaron 33 personas, hubo una amplia participación. 33 personas, no voy a entrar a valorar si es mucho o poco, pero ahí se decía que la Diputación saliera de pueblo en pueblo a la calle, se recomendaban nuevos canales, la asistencia a ferias, televisión, buzones, prensa escrita, redes sociales, páginas web... Además de la web, la



creación de nuevos canales, la promoción desde la escuela, profundizar en el desarrollo de proyectos de participación, y la Diputación respondió que era muy viable, que todo se haría. Que todo esto se iba a hacer, en mayo del año pasado.

Pues ahora, resulta es que, al parecer, el III. Plan Foral de Participación tiene un proceso participativo supergrande, pero ni el 1 % de los vizcaínos y las vizcaínas sabe que eso está en marcha. Y en ese debate foral que ustedes llaman pionero han recibido algunas recomendaciones, han dicho que es viable, muy viable, y que se va a hacer, y no tienen ningún buzón, ni en televisión, ni en revistas ni en ningún sitio, más allá de la página web, en ninguna parte han informado a la ciudadanía vizcaína de que pueden realizar aportaciones a ese Plan Foral de Participación.

Solo un minuto, y tengo un montón de cosas. Bueno, la cuestión es, han dicho, ustedes, Eneritz, erantzun egingo deutsut. Esan dozu, “Eta Partaidetzarako III. Foru Plan horretan agertzen bada partaidetza bidezko aurrekontuak egitea? Hori II.ean be agertu zan. Badakigu bigarrenean Bizkaiko herritar batzuek partaidetza bidezko aurrekontuak egitea proponidu ebela. Partaidetzarako II. Planean jaso zan? Ez. Zergaitik? Esan badogu III.ean, hurrengo partaidetza-prozesuan, partaidetza bidezko aurrekontuak agertzen dirala, egingo dirala, zergaitik II.ean ez ziran jaso? Ez dalako interesetan.

Izan be, zuek sinisten dozue, eta demokrazia ordezkatzailari heltzen deutzazue, eta horregaz nahikoa dala uste dozue, eta gaurko Osoko Bilkurea ikusi besterik ez dago. Mozino guztiei, eta oposizinoak aurkeztu dauen guztiari, arrabola, eta dana atzera bota dozue. Izan be, uste dozue, Gobernuan zagozenez, horrek dana atzera botetako eta zuena bakarrik bultzatzeko eskubidea emoten deutzuela. Ba hemen, oposizinoan, 215.000 persona baino gehiago ordezkaten gabilz, eta uste dot horreek, persona horreek guztiek, gitxieneko errespetua merezi dabela.

Orduan, barriro nator honetara, baina gauza asko daukadaz esateko, ez daukat astirik esateko, denporaz kanpo nago ta. Beste barik, esan behar dot uste dodala agirian geratu dala baietz, Aldundia gauza asko egiten dabilela, eta, era berean, beste asko egin barik ixten dabilela. Askok erabilten dituela argazkiak, eztabaida-foro asko, ez dakit zer egiteko plan asko, baina, egia esan, gero, ez da kontuan hartzen, oraintxe erakutsi dot. II. Planean partaidetza bidezko aurrekontuen proposamenak egin ziran, bai, eta ez ziran jaso. Nork bermatzen deusku orain jasoko dirala? Eta, zoritxarrez, Partaidetzarako II. Foru Plan honetan jasoten ez bada, los vizcaínos y las vizcaínas, una vez más, no tendrán el derecho que tienen la ciudadanía guipuzcoana y alavesa. Y ya sé que el presupuesto participativo no es el único aspecto de la participación. Pero sí una parte importante, como son muchas otras. Los vizcaínos y las vizcaínas tienen derecho a proponer y a decidir, como el resto.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Buruaga Bárcena. Y señor Otermin Eraso, el representante del grupo Socialistas Vascos, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ohorea kenduko deusat Lekerikabeaskoa jaunari, neu izango naz azkena ondoetorria emoten Ondo etorri.

Ea ba, beste barik. Guk zuzenketea prestau genduan, uste genduan partaidetza-prozesua aurrekontua baino askoz zabalagoa zala, eta ez genduan jardurea desbideratu gura. Foru Arau bat daukagu, 2016. urtean kamarearen aho bateko babesa lortu



ebana. 2017. urtean onartutako parte-hartzeari buruzko Foru Araua. Orduetik, aurrekontuetan beti egon da partaidetza-prozesurik.

Zer pasetan da? Bada, gehiago eskatzen dala, jakina, eta planak herritarren kontsultarako eta partaidetzarako prozesu batzuk antolatuz egiten dira. Egiteko modua ez dogula gustukoa? Hori beste kontu bat da. Izan be, badirudi EH Bilduk dinoanari errazoi emoten ez badeutsagu, hemen oker gagozala. Zuen ikuspuntua da, baina nik gogorarazo ahal deusuet gobernu edegiaren programa Patxi López jaunaren Gobernuak ipini ebala martxan, eta Irekiaren artikulazinarako programea, funtzinonetan ez eze, Latinoamerikara be esportetan dagoala. Beraz, ez dago Europara joan beharrik holango erreferentziak bilatzeko.

Uste dogu lanean gagozala, jarraitu egin behar dogula, kontsulta-prozesuak ez diralako aurrekontuetan parte hartzea bakar-bakarrik, askoz be elementu gehiago dagoz, eta herritarrek gero eta protagonismo handiagoa daukie. Zelan egituratzen dira gauza horreek? Ez deutsegu herritarrei esango zelan egin behar daben. Gogoetean egiten lagundu behar deutsegu. Ni, klase politikotik, edo politiko lez, ez naz ausartzen herritar bati esatera gauzak zelan egin behar dauzan. Baina bai beraren gogoetan laguntzera, eta holango kontuak, ondo funtzinonau daien, ezin doguz asmau, ezta urrunetik zuzendu be. Zuhurragoak eta zentzundunagoak izan behar dogu.

Tristetzen nau parte-hartzearen ganeko arau ha bertaratutakoek aho batez onartu izana, eta gaur egun, antza danez, Euskal Herria Bilduk esaten dituan gauzak egiten ez badira ez gabiltzala Bizkaiko herritarren alde egin beharrekoa egiten, uste dot hori desitxuraketea dala. Uste dot ez dala zentzunezkoena, eta uste dot sentsazino arraroa eragiten dala, behintzat nigan eta gu aditzen dagozan herritarrengan, ordu hauetan inor gu aditzen badago.

Edozelan be, aurrera jarraitzen dogu, III. Plana bigarrena baino askoz hobea izango dalakoan, eta hirugarrena baino hobea izango dan IV.a egongo dalakoan, herritarrak benetako protagonista izan arte, hausnarketan, erabagietan eta, aurrekontuagaz ez eze, generako foru-arauakaz be zerikusia daukan guztian.

Ez naz gehiago ibiliko aurrera eta atzera gaiagaz, ez dot-eta denpora gehiago galarazo gura. Beste barik, horregaitik ez dogu onartu ekimen hau, eta, horregaitik, Euskal Herria Bilduk aurkeztu deuskun mozinoaren kontra botauko dogu. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. El portavoz del grupo Nacionistas Vascos,

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Buenos días, otra vez. Y voy a ir directo al grano.

Yo no creo que haya que discutir aquí lo que se quiere hacer, sino cómo se hace. Y si lo hacemos en los sitios donde lo hacemos, o no.

Señora De Madariaga... Bueno, la representante del PP, ha hecho usted un planteamiento bastante parecido y dice que ve más adecuada nuestra enmienda. Como no lo aceptan, eso no lo podremos votar. Señora De Madariaga, solo dos puntualizaciones. Ha dicho usted: "Nahikoak dira emondako pausuak?". "Ez dira nahikoak", ha dicho usted, y yo le diré que sí lo son, y ahí termina la discusión. No puedo seguir profundizando más. Y ha dicho usted: "Nork dauka foro horreetarako sarbidea?" Todo el mundo, cualquiera. Cualquier vizcaíno o vizcaína tiene acceso a este foro.



Entonces, aquí está la primera metedura de pata, yo creo que no conocemos la casuística del III Plan, y su ejecución. Y eso es lo más importante. Y no voy a meterme en alusiones como las de los rodillos, porque ejemplos tengo muchos, y a mí me gusta poner ejemplos que me gustan, y soy bastante previsible y simple, siempre pongo el espejo delante. Y ahí, quien esté bien peinado o peinada, aparece bien peinado o peinada, y quien esté mal, aparece mal. Así que del rodillo ya hablaremos en otra ocasión, hoy me centraré en el presupuesto participativo.

Ha dicho usted que ustedes no afirman que la participación sea únicamente eso. Yo no he dicho eso. Que en esta moción solo se centran ustedes en eso. Y que no salen de ahí, han dicho. Y yo quiero subrayar tres cosas:

En primer lugar, como he dicho anteriormente, el proceso de participación ciudadana o, a día de hoy, tal y como han dicho ustedes, la opción de que la ciudadanía participe en los presupuestos existe y está regulada. Y como han dicho ustedes, que aumente la participación, dicen en su moción, y en eso coincidimos todos y todas. Los y las representantes de la Diputación Foral de Bizkaia no están cuatro años metidos en una habitación, y vienen aquí una vez al año a poner sobre la mesa un presupuesto. Ahí están los programas grupales, que son públicos, los sucesivos planes de legislatura, que son públicos, y, al margen de ellos, hay reuniones todos los días con los agentes, con los colectivos, con la ciudadanía, por parte de todos los departamentos. También por parte de los partidos, de los grupos de Juntas Generales y de los y las representantes de la Diputación Foral de Bizkaia. Así pues, todos y todas somos representantes en esta cámara. Después de escucharlos, ¿qué nos toca? Pues bien, la Diputación Foral de Bizkaia, en octubre, trae aquí, a estas Juntas Generales, una propuesta de presupuestos, se expone públicamente, hay un proceso de dos meses para plantear aportaciones u opciones, y luego, se aprueban los presupuestos, si se obtiene la mayoría. Presentar, explicar, dar opciones de participación, analizar, acordar, si es posible, y aprobar.

Ese es el proceso. Esa es una realidad que nadie puede negar. Pero no estamos en la autocomplacencia, no nos quedamos ahí, ni de palabras ni de hechos. Y hemos dicho que hay que seguir profundizando en los procesos participativos. En los procesos, y, lo más importante, en cómo profundizamos en el modelo de esos procesos participativos. Pues, en el III. Plan. No critiquemos un Plan que todavía no tenemos. Veamos qué es lo que se presenta en ese Plan, y luego, si no estamos de acuerdo, siempre habrá una oportunidad para salir aquí y criticarlo.

Segundo subrayado, como he dicho antes. ¿El aspecto más importante del proceso de participación ciudadana es contar con presupuestos participativos? No lo creo. Como he dicho, tampoco es así en los casos en que ustedes gobiernan, y daré el dato. En 3 años ha habido subvenciones para procesos participativos, en 2022 se aprobaron 38 proyectos, como he dicho, y, en aquel caso, hubo cuatro ayuntamientos que los solicitaron para presupuestos participativos. Y ninguno de esos cuatro ayuntamientos era de EH Bildu, se ha pedido para otras cosas, para otros procesos participativos.

En 2023, lo solicitaron 38 ayuntamientos. En aquel caso, 9 presentaron ayudas para los presupuestos participativos. Y solo uno fue EH Bildu. Elorrio, lo sabrán ustedes bien, en 2023.

Y en 2024 se han presentado 51 proyectos participativos, de los que 12 son para presupuestos participativos, 3 de EH Bildu. No es más que un dato. Lo puede decir cualquiera, honestamente, y bien. La participación no es solo pedir una subvención de esas para hacer un presupuesto participativo, se puede hacer sin presentarse. Pero ahí también hay otra realidad.



Y he aquí el tercer subrayado. En 2023, y hablo de las cosas que yo conozco, en 2023 se aprobaron los presupuestos en Lekeitio, y hubo un proceso de participación. En 2024 se aprobaron los presupuestos de Markina-Xemein y hubo un proceso de participación popular.

En 2024, esta semana se han aprobado los presupuestos en Lekeitio, y no ha habido ningún proceso de participación popular. En Markina se aprobaron en diciembre, y no ha habido proceso participativo.

¿Qué ha cambiado entre 2022 y 2024? Lo sabrá usted más o menos, ¿no? Que antes gobernaba el Partido Nacionalista Vasco, y ahora está gobernando EH Bildu. Entonces, lo que digo, nuevos vientos, nuevos vientos elegidos por la ciudadanía, pero esos nuevos vientos han sacado del Ayuntamiento el presupuesto participativo. Y eso es un dato. ¿Todo se hace así? No. Nosotros y nosotras no, y ustedes tampoco. Pero lo que no se puede hacer es venir aquí diciendo que éste es el único camino, y que lo que se sale de ese camino es rodillo, y luego, cuando tenemos la competencia, cómo hay que hacerlo cuando tenemos la competencia, y cuando podemos hacer el proceso participativo en los presupuestos, no hacerlo.

Pero yo también he venido con talante positivo, así que, de cara al futuro, pienso que tenemos dónde profundizar y cómo profundizar, y cómo avanzar en la elaboración de presupuestos participativos, se estudiará, como ya se ha dicho, en el III. Plan, y estamos dispuestos y dispuestas a ir de la mano. Pero, para que vayamos de la mano, creo que están ustedes un poco más rezagados, que tendrán que llegar hasta donde estamos nosotros y nosotras, y, posteriormente, tendremos que seguir avanzando.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga. A continuación, tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias, señora presidenta.

Nire ustez, ostera be aukerea galduko dogu, 2025ean ez, legealdi oso honetan parte-hartze bidezko aurrekontuak eukiteko.

Eta daukadan sentsazioa gaurko Osoko Bilkuraren hasieran eztabaidatu dogun gaietako bategaz euki dodan bera da. Ezin da atxikipenen taula aldatu, hausnartzen gabiltzalako. Ezin da partaidetza-aurrekontuen prozesurik gehitu, hausnartzen gabiltzalako. Eta hausnartu eta hausnartu egiten dogu, eta urteak pasetan dira, eta prozesu-eredu propio barik jarraitzen dogu, partaidetza-aurrekontuak egiteko.

Barrero esango dot, 2016an horreek gauzatzea proponidu genduan. Zortzi urte pasau dira, ez dozue astirik euki hausnartzeko ea hori Foru Aldundiaren barruan egitea egokia dan ala ez dan? Izan be, oso ondo dago hona igotea eta esatea, “ez, baina nik gobernetan dodan udaletan egiten da”. Hemen be gobernetan dozue, eta zergaitik ez? Eta ez hori bakarrik. Zergaitik igon dozue tribuna honetara, eta, kamara honetan, bost bider baino gehiagotan botau dizue Aldundian partaidetza-aurrekontuen prozesu hori ez gauzatzearen alde. Esan gura dot, primeran, udaletan hori egitea. Eta hemen zer?

Nik ulertu daiket, tira, ez, ezin dot ulertu, PPko kideari bildur emotea guk eredu asanbleario bat proponidu gura izateak. Ba, begira ze asanblearioa dan proponiduten





dogun eredia, Euzko Alderdi Jeltzalearen udaletan be gauzatzen da, eta, dakizunez, oso asanblearioak ez dira.

Orduan, ez dakit, ez izan hain bildur, eta animau zaitez herritarrei aukerea emotera Aldundiaren aurrekontuaren zati bategaz zer egin gura daben erabagiteko. Hori ez da aurrekontu osoa herritarren esku ixtea. Ondo da, ez gara zoraturko, badakigu hori ez dala posible, baina bai zati bat. Zati bat. Nonoz esaten izan dogu 600.000gaz hasi gaitzkeala, milioi bategaz. Itxi daiteke.

Pentsau daigun..., adibide bat ipiniko dot. Adibidez, herritarrek Errekaldeko Saihesbidea egiteko eskatzen eben aurrekontuetan, zubibidea bota ahal izateko, eta aurrekontua aurrekontuaren atzetik, ez zan agertzen. Eta, urterik urte, Errekaldeko jentek kalera urtetan eban saihesbidea egiteko eskatzera.

Begira, partaidetza-aurrekontuak eukiteko aukerea euki bagendu, eta, horreetan, personek aukerea euki baeben zer gura eben eta zer ez eben egin gura erabagiteko, seguru nago Errekaldeko saihesbidearen informazio-azterlana eginda egongo litzatekeala, eta, seguruenik, Errekaldeko saihesbidea eregiten hasita egongo litzatekeala, eta, luze barik, zubibidea erastea aukerea eukiko geunkeala.

Nik konfiantza daukat personak helduak dirala euren herrirentzat zer gura daben erabagiteko. Orduan, nik zalantza bat daukat hemen, zuek urte batean eta hurrengoan eta hurrengoan tematzen zarienean, kamera honetara era honetako mozinoak etorten diran bakotxean, zalantza bat daukat: ea zuek herritarrek umeen pare ipinten ete dozuezan, eta ez dozuen pentsetan erabagiak hartzeko behar besteko heldutasunik daukienik, eta Aldundiko Gobernuaren beharra daukien eure ordeztan dan-danak hartzeko. Edo bildurra daukazuen agintemakilea ez eukiteko, jenteari jaten noiz emoten deusazuen eta noiz ez erabagiteko. Zer dago mahai gainean zuek erabagi hori behin eta barrero hartzen dozuenean, hau da, erakunde honetan ez dala parte-hartze bidezko aurrekonturik garatuko?

Ederra litzateke zuek komentetea, ea Errekaldeko saihesbidearen txostena esku artean euki daikegun.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. La representante del Partido Popular Bizkaia, señora González Díez-Andino, tiene la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko ostera be.

Tira, egia esan, ez neukan barrero berba egiteko asmorik, uste izan dodalako gure jarrera argi geratu dala, baina ez dakit ez ete dodan ondo azaldu –litekeana da– edo ez ete deustazun ulertu gura izan. De Madariaga andrea, oso ankerra begitantzten jat esatea Errekaldekoa eratsi barik egotearen eta saihesbidea martxan ez egotearen errua herritarrek aurrekontu batzuetan parte hartzeko aukerarik euki ez izanarena dela. Ia-ia errua hareei leporatzea da, ez diralako nahikoa kexau, edo ez dabelako behar beste eskatu.

Neuri be oso arriskutsua iruditzen jataz mota horretako partaidetza-aurrekontuak, atsekabe handia eragin daikie ta. Zati bat esan dozu, jakina, besterik ez zan falta. Baina zenbatekoa zatia? 400, 600? Eta 600 nahikoa ez bada zubibidea erastea? Bizilagunak errudun ostera be? Urte horretan milioi batera igongo dogu, eta gero barrero jatsi?

Uste dot era horretako aurrekontuak oso arriskutsuak dirala. Eta ez dira nahikoak, era berean, bideratuta datozenak, eta horreetara ohituta gagoz. “Auzokideok, zer gura



dozue plaza honetan, A, B edo C?”. “Egia esanda, danok gura genduan D”. “Ba ez, ez dau balio”.

Halanda ze, zalantza handia daukagu partaidetzazko aurrekontuak, asanblearioak, zuzenduak edo aurrekontuetan sartutakoak, bizilagunek benetan gura dabenerako nahikoa ez badira, barriri arazoa daukagula, era beste frustrazino bat, arriskutsuak dira.

Beraz, konfiantzazko botoa emon gura deutzagu Plan horri, zeinean apurka-apurka sartzeko aukera daukien, eta ikusiko da zelan bideratzen dogun. Baina ez da bidezkoa hareei leporatzea ez egitearen betebeharra edo erantzukizuna. Nik biziten izan dot, eta kide gehiagok be, Bilboko Udalean, barrutietan. Eta askotan, auzotarrek esaten euskuen: “Alkateak tarta bat ipinten deutsu hemen, horixe da banatu daitekean dirua, eta orain, egizue alkarren aurka burruka, ea nork hartzen dauen zatirik onena”. Eta nik hori ikusi dot eta biziten izan dot, eta ez dot gura, herritarrak engainetako modu bat dalako, garden itxurea egiteko, norberak zer egin gura dauen erabagiteko aukerea daukalakoan. Eta ez da egia.

Eta, beraz, abstenidu egingo gara mozino honetan, ados gagozalako herritarrek parte hartzeagaz eta egunetik egunera gehiago parte hartu daien gura dogulako, baita kudeaketea egitera heldu daitezcan be. Baina ez gagoz ados ereduagaz, ziurtasunak baino askoz ziurbakotasun gehiago eragiten deuskuzalako, azaldu deutsudan lez.

Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora González Díez-Andino.

Finalizado el debate, ya se ha dicho que la enmienda presentada no ha sido aceptada. Esperemos a estar todo el mundo sentado. Y podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido un total de 47 votos; votos a favor, 16; votos en contra, 29; y ha habido 2 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

Y, habiendo llegado al final del orden del día, se da por finalizada esta sesión de Juntas Generales. Muy buen día a todos/as.

Batzarra 15:05ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 15:05 horas.

